# Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakunde Arteko Plana

(2013ko abendua)



# EDUKIA

1. PLANAREN ARRAZOIAK ETA EGOKITASUNA ........ 2
2. TESTUINGURU POLITIKO ETA NORMATIBOA ........ 6
3. EKINTZAILETZAREN EUSKAL ZERBITZUAREN ETA EKINTZAILETZAREN BILAKAERA HISTORIKOA ........ 14
4. EKINTZAILETZAREN EAEKO EGOERARI BURUZKO DIAGNOSIA ........ 18
   4.1 EKINTZAILETZA-JARDUERAREN ANALISIA 19
   4.2 EKINTZAILETZA-JARDUERAREN ERAGIN POTENTZIALA 23
   4.3 BIZTANLEEN EKINTZAILE-PERTZEPZIOAK 25
   4.4 EUSKAL EKINTZAILEAREN PROFILA 26
   4.5 ENPLEGUDUNEN EKINTZAILETZA-JARDUERA ETA INTRAEKINTZAILETZARAKO BALDINTZAK 27
5. EKINTZAILETZA JARDUERARI LAGUNTZEKO EUSKADIKO EKOSISTEMAREN EGOERAREN DIAGNOSIA ........ 29
   5.1 EKINTZAILETZA-EKOSISTEMA BATEN FUNTSEZKO FAKTOREAK 29
   5.2 EKINTZAILETZA-EKOSISTEMAREN DIAGNOSI KONPARATUA (ADITUEN BALORAZIOA) 33
   5.3 EKINTZAILETZA-EKOSISTEMAREN DIAGNOSIA (EKINTZAILEEN BALORAZIOA) 35
   5.4 EUSKADIKO EKOSISTEMAREN BERRIKUSPEN KRITIKOA 36
6. PLANAREN EDUKIAK ........ 42
   6.1 PLANAREN IKUSPEGIA 42
   6.2 PLANAREN HELBURUAK 43
   6.3 PLANAREN ERAGINA 43
   6.4 PLANAREN JARDUN-EREMUAK 45
7. EKINTZA-PLANA ........ 67
8. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA ........ 69
9. AURREKONTUA ........ 74

I. ERANSKINA ........ 76
   BESTE ERAGILE BATZUEK GARATUTAKO PROGRAMEN XEHETASUNAK 77
II. ERANSKINA ........ 92
   2014KO APIRILAREN 15EAN EUSKO LEGEBILTZARREAN JARDUERA EKINTZAILEARI LAGUNTZEKO ERAKUNDE ARTEKO PLANARI BURUZ IZANDAKO DEBATEAN ONARTUTAKO EBAZPEN-PROPOSAMENAK 93

## 1. PLANAREN ARRAZOIAK ETA EGOKITASUNA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak baditu zenbait arrazoi ekintzailetzari buruzko erakunde arteko plan bat egiten lehena izateko: herrialde garen aldetik, etorkizunean gure lehiakortasuna eta iraunkortasuna bermatuko duten aberastasuna eta enplegua sortzeko iturri berriak aurkitu behar ditu; Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko Legean eta Europako zein estatuko beste arau batzuetan xedatutakoa bete behar du; ekintzailetza-jarduerari laguntzeko ekosistema hobetzen laguntzeko aukera du; eta zenbait hamarkadetatik hona gauzatu den ekintzailetzarekiko eta intraekintzailetzarekiko erakunde arteko konpromisoa eta horien aldeko jarrera du.

Jarraian, xehetasunez aztertuko ditugu arrazoi horiek guztiak:

1. Ekonomia eta gizartea aldatzeko eragile den aldetik, ekintzailetzaren aldeko apustua egitea.

Sekula ez bezalako krisi ekonomikoa bizi du egun Euskal Autonomia Erkidegoak. Krisia hasi zenetik 2013ra arte, ehuneko 5,5 beheratu da euskal ekonomia, eta 116.000 lanpostu inguru galdu dira (lanpostu guztien % 11.8).




BPGren bilakaera EAEn (1981-2013: urteko hazkundearen ehunekoa). Iturria: Eustat.

Lau urteko higaduraren ondoren, atzeraldian sartu zen berriz ere EAE 2012. urtean. 2013an ere euskal ekonomiak atzera egin duen ustea dago; eta 2014an pixkatxo bat haziko dela (% 0,8 inguru). Aurreikuspenen arabera, 2017ra arte ez ditu EAEko ekonomiak berreskuratuko krisi aurreko benetako BPGren mailak. Krisiaren ondorio guztietatik larriena langabezia da. Izan ere, enplegu betea izatetik 2012aren amaieran % 12tik gorako langabezia-tasa izatera pasa gara. Guztietan larriena gazteen % 39ko langabezia-tasa da.

Testuinguru orokorra eta gertuko errealitate ekonomikoa ikusita, jauzi bat eman behar dugu gure lehiakortasunean eta hazkunde ekonomikoan aurrera egiteko. Gure ekonomia berritzean oinarritutako transformazioari eutsi behar diogu. EAEren egungo lehiakortasun-mailara egokitu behar dugu gure eredua, bai eta etorkizunean munduan izango diren egoeretara ere. Horretaz gainera, etorkizunean gure lehiakortasuna eta iraunkortasuna bermatuko dituzten aberastasuna eta enplegua sortzeko iturri berriak bilatu behar ditugu.

## 2. Indarreko legeak betetzea

Azken urteotan, garrantzi handiko zenbait aldaketa izan dira ekintzailetzaren alorreko Europako, estatuko eta tokian tokiko politiketan eta legeetan. Aztergai dugun alorrean epe ertainerako erakunde arteko plana egin nahi dugunez, aipatu aldaketa horiek aztertu beharrean gaude. Garrantzi handiko aldaketak izan dira Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko Legean, eta Ekintzaileari nahiz Hura Nazioartekotzen Laguntzeko Legean –gobernu zentralarena, azken hori–. Europako zuzentarauen esparruan daude biak; eta ekintzailetza sustatzeko hainbat urtetarako plan berria egiteko beharra planteatu dute.

Jarraian, plan honek bete behar dituen arautegi, politika eta plan nagusien eskema jaso dugu:




Plana egitean bete beharreko arau eta plan nagusien laburpena

## EAEn ekintzailetza-ekosistema hobetzea

EAEn badugu ekintzailetza-jarduerari laguntzeko sistema betea. Aurreratutako beste eskualde batzuetan dagoen antzekoa da gurea, konplexua, eta etenik gabe eboluzionatzen eta hobetzen ari dena. Sistema horren bilakaerari bultzada bat eman behar dio plan honek. Egungo egoera irudikatzeko asmoz, ahulezien, mehatxuen, indarren eta aukeren azterketa laburra ekarri dugu hona (AMIA). Esan gabe doa, alabaina, horiek guztiak zehaztasun handiagoz aztertuko ditugula planean zehar.

### INDARGUNEAK

- Enpresa-kultura erroturik dago Euskadin.
- Europako eskualde guztietatik hezkuntza-profilik altuenetako bat du Euskadik, bertako herritarren %38k lanbide ikasketak eta goi-mailako ikasketak baititu.
- Egokitasunagatik sortutako enpresen eta finkatutako enpresen ehunekoa oso handia da (%76,2).
- Erakunde publikoek urte asko daramatzate ekintzailetzari laguntzen (80ko hamarkadatik).
- Sistema betea, eragile publiko eta pribatu asko barnean hartzen dituena.
- Sistema adarkatu eta gertukoa.
- Baliabide publiko asko erabili dira ekintzailetza sustatzeko (urtean 60 milioi euro baino gehiago).
- Ekintzaileari laguntzeko zerbitzuak eta azpiegitura fisikoak daude.
- Gero eta ahalegin handiagoa egiten da ekintzailetzarekin lotura duten baloreak hezkuntza-fase guztietan transmititzeko.
- Ekintzailetzaren fase eta behar guztiez arduratzen diren programa publiko asko daude.
- Hainbat erakundek elkarlanean aritzeko gogoa dute, ekosistema are eraginkorragoa eta efektiboagoa sustatzeko.

### AUKERAK

- "Momentum", ekintzailetza mundu-mailan.
- Ekintzailetza bultzatzeko zuzentarauak eta legeak daude Europa-mailan zein estatu-mailan.
- Ekoizpena eta gizartea aldatzeko ardatz gako moduan erabili da ekintzailetza Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien beste plan batzuetan, bai eta Europako zenbait gidatan ere (RIS3, esaterako). Horietatik guztietatik sinergia interesgarriak sor daitezke.
- "Ekintzailetza-gune" berriak gorakadan dira: gizarte-ekintzailetza, ekintzailetza korporatiboa, mikroekintzailetza, eta abar.
- Egitura eta sistema publikoak ebaluatzearen, arrazionalizatzearen eta berrantolatzearen aldeko apustua.
- Internet gero eta eskuragarriago izatearen eta gero eta gehiago erabiltzearen eraginez, izapideak sinplifikatu eta prozesuak batera daitezke.
- Euskadin indarkeria behin betiko amaitu izanari esker, lehen baino inguru egokiagoa dago orain inbertsioak egin eta enpresak sortzeko.

### AHULEZIAK

- Ekintzailetza-kultura gutxi dago EAEn.
- Gizarteak ez du aintzat hartzen ekintzailetza eta ekintzailea.
- Porrotari diogun beldurrak ekintzailetza oztopatzen du.
- Hezkuntzako etapa guztietan prestakuntza gutxi ematen da ekintzailetzaren kulturari eta balioei buruz.
- Ekintzaileen asmoak mugatuak dira: etorkizunean enplegua sortzeko itxaropen gutxi dute, eta aukera on gutxi ikusten dituzte.
- Emakume ekintzaileen ehunekoa txikia da (%34,1).
- Horretara bideratutako baliabideak kontuan izanik, emaitzak urri dira.
- Enpresa sortu berriek ibilbide mugatua dute: eskainitako produktuek eta zerbitzuek berritasun handirik ez dute, eta ez daude nazioarteko merkatuari begira (sektore berrietako proiektuak izan ezik).
- Laguntza finantzario mugatua (formulen aniztasunari dagokionez, batiere).
- Enpresetara jakintza urri transferitzen da (loturarik ez da CT eragileen eta enpresen artean).
- Tokian tokiko enpresentzat dira laguntza-neurri gehienak (nazioarteko ikuspegia dutenenei eman beharrean).
- Proiektua egiteko eta sozietatea eratzeko faseetara bideraturik egon ohi dira eskainitako programak, behar baino gehiago.
- Sektore berriak ez dira nahikoa aztertu eta ez dira nahikoa ezagutzen.
- Ekintzailetzarako leku bezala proiekzio gutxi du Euskadik nazioartean.
- Intraekintzailetza-jarduerak gauzatzeko kultura eta baldintza urri daude.

### MEHATXUAK

- Datozen urteotan Euskadik testuinguru ekonomiko zaila izango duela aurreikusi da: 2013. urtean BPG %1,1 jaistea espero da, eta 2014. urtean hazkunde txikia egotea (2017. urtera arte ez omen du berreskuratuko euskal ekonomiak krisiaren aurreko PBG errealaren maila).
- Zalantzak daude aurrekontu publikoen bilakaerari buruz.
- Krisitik ateratzeko protagonistatzat hartu dira ekintzaileak.
- Potentzial handiko ekintzailetza-talentua galdu da, nazioartean ekintzailetzako erreferente diren beste leku batzuetara joan baita.
- Ekintzailetza sustatzeko "mezu-bonbardaketak" nahasmena sortu du gizartean.
- Herri administrazioetan zailtasunak izan dira epe ertain edo luzerako apustuak edo ereduak adosteko.

EAEko ekintzailetza-ekosistemaren ezaugarrien AMIA azterketa

## 3. Erakundeak lankidetzan aritzeko borondatea eta konpromisoa

Luze da EAEko erakunde publikoak lankidetzan ari direla ekintzailetza bultzatzeko. Bide horretan, beste urrats bat da Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakunde Arteko Plana egitea.

Zehazki, honako eragile hauek hartu dute parte plan hau egiteko orduan:

- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak (Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza).
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hezkuntza Sailburuordetza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza, eta Lanbide Heziketako Sailburuordetza).
- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak (Enplegu eta Lan Sailburuordetza).
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak (Osasun Sailburuordetza).
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen Sailak.
- Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua.




Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakunde Arteko Planeko parte-hartzaileak

Azpimarratu beharra dago, baita ere, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapena eta Lehiakortasun Saileko sailburuak eta hiru foru-aldundietako Ekonomia Sustapeneko diputatuek sinatutako Euskal Ekintzailetza Sistema Garatzeko Lankidetza Hitzarmen Markoaren barruan dela plan hau, eta datozen hilabeteotan aztertuko dela hura egiteko prozesuan parte hartu duten sail guztietara zabaltzea plana.

Erakunde arteko hainbat helburu aipatu dira hitzarmen horretan, besteak beste: euskal gizartearen ekintzailetza-ahalmena modu eraginkorrean eta efizientean sustatuko eta babestuko duen Ekintzailetzaren Euskal Sistema garatzea; ekintzaileei laguntza integrala ematea; eta Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko Legean bildutako laguntza-tresnak garatzea (plan hau, esaterako).

## 2. TESTUINGURU POLITIKO ETA NORMATIBOA

Azken urteotan, garrantzi handiko zenbait aldaketa izan dira ekintzailetzaren alorreko Europako, estatuko eta tokian tokiko politiketan eta legeetan. Aztergai dugun alorrean epe ertainerako erakunde arteko plan berria egin nahi dugunez, aipatu aldaketa horiek aztertu beharrean gaude. Hori dela eta, plan honek bete behar dituen Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko arau, politika eta plan nagusiak errepasatuko ditugu.




Plana egitean bete beharreko arau eta plan nagusien laburpena

EUROPA

Small Business Act

2008ko ekainean sinatu zen eta, egun, garapen betean da. Europako ekonomian enpresa txiki eta ertainek egiteko nagusia dutela aitortzen du eta, estreinakoz, enpresa horietarako esparru zehatza definitzen du. Politika publikoak diseinatzean "Think Small First" printzipioaren bitartez ekintzailetza bultzatzea eta enpresen hazkundea sustatzea du helburu arau horrek.

250 langile baino gutxiagoko enpresa guztietan aplika daitekeen arau horrek 10+5 printzipio ditu oinarri. Printzipio horietatik hainbat neurri eratorri dira, adibidez:

- Irakasleetan eta gazteetan espiritu berritzailea eta enpresa-espiritua piztea. Horretarako, enpresa-sena elementu gakotzat sartuko da eskola-programetan –bigarren mailako hezkuntza orokorrean, batez ere–.
- Jarduera bati berriz ekin nahi dioten enpresaburuekiko jarrera positiboa sustatzea gizartean.
- Erakunde kontratatzaileei kontratuak lotetan banatzen animatzea; azpikontratazioaren ikusgaitasuna handitzea; eta erakunde kontratatzaileei gogoraraztea finantza-gaitasunari eta -kualifikazioari buruzko neurriz kanpoko baldintzarik ezin dezaketela ezarri.
- Finantzazio-programak garatzea.
- Enpresa txiki eta ertainak nazioartekotzen eta hazkunde handiko enpresa bihurtzen ahalegindu daitezela sustatzea, batez ere, cluster berritzaileetan parte hartzearen bidez.
- Transferitu daitezkeen enpresentzako merkatuak eta datu-base eskuragarriak sortzea; eta beharrezkoa den laguntza ematea arrakastaz transferitutako enpresen kopurua handitzeko.
- Eta abar.

Ekintzailetzari buruzko 2020rako Ekintza Plana

Europa 2020 estrategia berriaren barruan sartzen da ekintza-plan hori; "Think Small First" printzipioa betetzen du; eta 20.400 milioi euroko zuzkidura du (berrikuntzara bideratu dira horietatik 18.000; eta enpresa txiki eta ertainetara 2.400). Eskualde baten garapen ekonomiko eta sozialean ekintzailetzak duen garrantzia nabarmendu du plan horrek. Azken hiru urteotan, jaitsi egin da autoenplegua lehenengo lan-aukeratzat duten Europako biztanleen ehunekoa (% 45etik % 37ra jaitsi da azken hiru urteotan). Datu horiek Estatu Batuetako (% 51) eta Txinako (% 56) datuekin alderatuta, hiru ildo nagusiren inguruko neurriak proposatu ditu planak:

- <u>Hezkuntza.</u> Hezkuntzako etapa goiztiarretan hastea ekintzailetza sustatzen, eta balio nagusien artean ekintzailetza duten unibertsitateetako ikasleekin trukeak ezartzea.
- <u>Ekintzailetzarentzat egokia den ekosistema sustatzea.</u> Eginkizun zehatzak izango ditu ekosistema horrek, besteak beste: finantzazioa lortzeko bidea hobetzea; enpresa sortzeko prozesuaren fase zailenetan laguntza ematea; negozioak eskuz aldatzeko prozesua erraztea; on ustez jardun duten ekintzaileei bigarren aukera bat ematea; eta burokrazia murriztea.
- <u>Ekintzailearen irudia sustatzea, jarraitu beharreko eredu diren aldetik.</u> Gizartearentzat eredugarri dira ekintzaileak. Hortaz, ekintzaileen arrakasta sozial eta profesionala bultzatuko da, adibidez, Europan "Ekintzailearen Eguna" ezartzearen bidez. Egun horretan, esaterako, lantegiak egin daitezke, baita hitzaldiak, enpresetan ateak zabaltzeko egunak, eta bilerak ekintzaileekin ere –bigarren hezkuntzako azken mailako ikasleei zuzendutakoak–. Gazteei, langabetuei, emakumeei, immigranteei eta edadeko pertsonei arreta berezia jar dakiela eskatzen du planak; besteek baino zailtasun handiagoak izan ohi baitituzte pertsona horiek beren negozio propioa martxan jartzeko orduan.

### Berrikuntza eta gizarte-ekintzailetza sustatzeko politikak

Gaur egun, Europako BPGren % 10 dira gizarte-enpresak, eta 11 milioi langile baino gehiago dituzte (langile guztien % 6). Bi ezaugarri nagusi dituzte: batetik, gizarte-eraginari lehentasuna ematen diote, akzionistentzako irabaziak lortzearen aurretik; eta, bestetik, langileek, bezeroek eta beste pertsona batzuek kudeatzen dituzte, modu arduratsuan, gardenean eta berritzailean.

Era honetako enpresatan parte hartzen duten herritarren kopurua aldatzen da Europako herrialde batetik bestera. Guztietan aitzindari Finlandia da, bertako biztanleria aktiboaren % 7,5 baitago era horretako erakunde batean. Haren atzetik dira Erresuma Batua (% 5,7), Eslovenia (5,4% ), Belgika (% 4,1), Italia (% 3,3) eta Frantzia (3,1% ). Europar Batasunean urtero sortzen diren enpresa berri guztietatik, lautik bat gizarte-enpresa sailkapenaren barruan sartzen da (hirutik bat, arestian aipatutako herrialdeetan).

Azken urtean, gizarte-enpresa sortzea, hots, gizarte-ekintzailetza bultzatzea xede duten lehentasunezko hainbat ekintza proposatu ditu Europako Batzordeak (are, Europako Parlamentuan negoziatzen ari dira egun ekintza horiek), hori guztia ikerketa eta garapenarentzako eta enpresa txiki eta ertainentzako 2020rako laguntza-lehentasunen esparruan. Lehentasunezko ekintza horien artean leudeke, esaterako: finantzazioa eskuratzeko bidea hobetzeko neurriak; gizarte-enpresen ikusgaitasuna hobetzeko neurriak; eta era horretako enpresak sortzen diren eta jarduten duten ingurune juridikoa hobetzeko neurriak.

Europako Batzordeak bultzatu du, oro har, ekintzailetzarako laguntza, Enplegurako Gizarte Gaietarako eta Parekotasunerako Zuzendaritza Nagusiaren eta Enpresa eta Industriako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez.

## ESTATUA

### Ekintzaileak eta Horien Nazioartekotzea Laguntzeko Legea

Europako legeetan xedatutakoa betez diseinatutako eta 2013ko irailaren amaieran onartutako lege horrek zenbait aldaketa dakartza, besteak beste:

- Enpresa bat sortzeko epeak eta zenbatekoak murriztea. Horrela bada, 24 ordu baino gutxiagotan eta 40 eurotan; edo, eskritura publikoa lortu nahi izanez gero, 48 ordu baino gutxiagotan eta 100 eurotan sor daiteke enpresa bat.
- Kaudimenik ezaren prozedura sortzea, banakako enpresaburuen zorra liberatzeko bide emango duena. Horrela, enpresaburuek ez dute zain egon beharko lehiaketa-prozesua amaitu arte –bi urteko iraupena du batez beste– eta ez dituzte 18.000 euroak ordaindu beharko.
- Erantzukizun mugatuko bi irudi juridiko berri hauek sortzea: erantzukizun mugatuko ekintzailea eta mailaz maila eratuko den sozietate mugatua. Horrela, porrota izanez gero, ekintzaileak edo autonomoak ez du bere ondasunekin erantzun beharko.
- Euro bakar baten zifra sinbolikora murriztea mailaz maila eratuko den sozietate mugatua eratzeko beharrezkoa den kapitala. Figura horren bitartez eratzen diren enpresek ezin izango dituzte dibidenduak banatu, harik eta 3.000 euroko kapitala izan arte.
- Espainiako bizileku-ziurtagiria ematea enpleguan eragin positiboa duten edo inbertsioak sortzen dituzten interes orokorreko proiektuak garatzen dituzten ekintzaileei; bai eta milioi erdi euro baino gehiagoko etxebizitza erosten duten edota bi milioi euro baino gehiagoko zor publikoa erosten duten horiei.
- Errenta finkoko beste merkatu batzuk sortzea ekintzaileentzat, finantzazioa lortzeko zailtasun handiak baitituzte jardueraren hasierako faseetan.
- Ekintzaile enpleguaniztunei murrizketak aplikatzea gizarte-segurantzari ordaindu beharreko kuotetan.
- "Kutxako BEZaren" irizpidea praktikan jartzea. Irizpide horren bitartez, faktura kobratu arte atzera daiteke administrazioei zerga hori ordaintzeko betebeharra (egun ez bezala; izan ere, faktura egitean sortzen baita BEZa ordaintzeko betebeharra). Elementu hori, hala ere, estatuko gobernuak zehazteke dago, hura praktikan jartzea oso zaila baita, batez ere, enpresa txikien eta handien artean gauzatutako

transakzioetan. Horretaz gainera, egiteke eta onartzeke dago, oraindik ere, irizpide hori aplikatzeko baldintzak arautuko dituen erregelamendua.

- Inbertitzaile partikularrentzako kenkari fiskalak ezartzea. Inbertitutako kapitalaren % 20 ere ken dezakete; gehienez ere, 20.000 euroren gain. Bestetik, lortutako irabaziak beste negozio berri batean edo negozio sortu-berri batean inbertitzen badituzte, erabateko zerga-salbuespena ezarriko zaie lortutako irabazi horiei.
- Ekintzaileari laguntza emateko guneak bateratzea. Zerbitzu bakar batean bateratuko dira honako hauek guztiak: enpresentzako leihatila bakarra; aholkuak emateko eta izapideak hasteko guneak; eta ordezkaritzen leihatila bakarrak.
- Sozietate-zergagatik ordaindu beharreko kuota % 10 murriztea (% 15ekoa izango da; % 25ekoa izan beharrean).

### Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren proiektua

Gaur egun, Kongresuan eztabaidatzen ari dira lege horren proiektua. Besteak beste, enplegagarritasuna bultzatzea eta ikasleen baitan ekintzailetza suspertzea du helburu lege-proiektu horrek. Horretarako, hainbat balio sustatuko dira; hala nola, jakin-mina, berrikuntza, gizartean parte hartzea, nork bere buruari kritika egiteko gaitasuna, eta ekintzaile izateko gaitasuna. Horiek horrela, bigarren hezkuntzako eta lanbide-heziketako etapetan zenbait ekintza zehatz egitea aurreikusi da, adibidez, "Ekintzailetza- eta enpresa-jardueraren hastapenari" buruzko hautazko ikasgai bat sartzea.

### 2013-2016rako Gazteen Ekintzailetza eta Enplegu Estrategia

Gazteen langabezia-tasa murrizteko neurriak bultzatzeko gobernu zentralaren helburuaren barruan sartzen da estrategia hori; eta gazteen enpleguari buruz Europako Batzordeak emandako aholkuak betez diseinatu da. Estrategia horren helburu nagusiak dira: gazteen enplegagarritasuna hobetzea; gazteen lanpostuen kalitatea eta egonkortasuna hobetzea; aukera-berdintasuna sustatzea; eta ekintzaile-espiritua bultzatzea.

Helburu horiek betetze aldera, eta kontuan izanik % 54etik gertu ibili dela 25 urte baino gutxiagoko gazteen langabezia tasa 2012. urtean (EB-27n % 23koa izan da tasa hori), lau urtetan 3.485 milioi euro bideratuko dira 30 urte baino gutxiagoko gazteei zuzendutako 10 jarduera-ildotara. Jarduera-ildo horietako batzuk dira, hain zuzen ere, hezkuntza; prestakuntza; ekintzailetza- eta autoenplegua bultzatzea; herri administrazioek orientazioa eta laguntza ematea; kontratazioa suspertzeko bideak garatzea; eta enplegua malgutzeko neurriak martxan jartzea.

Estrategia horren osagarri, ekintzailetzaren aldeko zenbait laguntza sustatu dituzte Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioak (Enpresa Txiki eta Ertainaren Zuzendaritza Nagusia, 2012; Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa, 2012; Aurrekontu eta Gastuetako Estatuko Idazkaritza, 2012).

### EAE:

### Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko Legea

2012ko ekainaren 28an onartutako lege horrek lau zutabe nagusi ditu oinarri:

- <u>Hezkuntza.</u> Balio hauetan egin du enfasia: enpresa-etika, gizarte-erantzukizuna, eta enpresa- eta hezkuntza-munduen arteko lotura bigarren hezkuntzan. Era berean, enpresen prestakuntza-beharretara eskaintza egokitzearen aldeko apustua egin du lege horrek; eta berrikuntzaren nahiz ekimen ekintzailearen alorreko prestakuntza bultzatu du. Horretaz gainera, irakaskuntza egokitu egin du, enpresa-ekimenerako eta autoenplegurako gaitasunak susta daitezen lanbide-heziketan eta unibertsitate-hezkuntzan.

- Administrazioaren eragina arintzea, apustu sendoa eginez administrazio-kargak pixkanaka murrizteko eta ezabatzeko; epeak laburtzeko; prozedurak uztartzeko eta hizkera ulergarriago bat erabiltzeko.
- Ekintzailetza-jarduerari laguntza ematea, ekimen zehatzen bidez, adibidez: langabezia-prestazioa osorik kapitalizatzea; jardueraren hasierako udal-tasak konpentsatzea; enpresaburu berritzaileentzako babes-neurriak; hazi-kapital funts misto publiko-pribatua sortzea; edo mikrokredituak. Horiek guztiak honako helburu hauek betetzeko asmoz egin dira: ekintzailetza-jardueraren finantzaketa egokia bermatzea; lehiakortasuna hobetzea; eta enpresen nazioartekotzea babestea.
- Business Angels direlakoak sustatzea. Horretarako, era horretako sareetarako diru-laguntzak emango ditu Eusko Jaurlaritzak, eta sare horien direktorio bat sortuko da, edozer ekintzaileren esku izango dena. Horretaz gainera, oinarri teknologikoa eta berritzailea duten enpresetan inbertsioak egiten dituzten sareetan inbertsioak egingo ditu Eusko Jaurlaritzak funts baten bitartez.

## EAEko hezkuntza-sisteman oinarrizko gaitasunak arautzeko dekretua

Derrigorrezko hezkuntza oinarrizko zenbait gaitasun garatzera bideratzearen aldeko apustua egin du 175/2007 Dekretuan araututako gaitasun-curriculumak. Curriculum hori osatzeko, Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeak eta Europako Batasunak azken urteotan alor horretan egindako proposamenak hartu dira oinarri. Hizpide dugun curriculum horren bitartez, bidenabar, eguneroko bizitzarekin lotura duten eskaera berriei erantzuna eman nahi zaie, bai eta modu autonomoan eta kritikoan jarduteko eta bizi-proiektu bat gauzatzeko beharrezkoak diren trebetasunak eta gaitasunak garatzearekin lotura dutenei ere.

Etengabeko ikaskuntzaren gaitasun gakoak gomendatu zituzten Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006. urtean; horien artean, "ekimen-sena eta enpresa-espiritua" zegoen. Gomendio horri helduz, "Autonomiaren eta ekimen pertsonalaren gaitasuna" sartu da 2007an onartutako EAEko oinarrizko hezkuntzaren curriculumean. Gaitasun horren bitartez, honako balio hauek landu nahi dira: erantzukizuna, pertseberantzia, norberaren burua ezagutzea, autoestimua, sormena, autokritika, kontrol emozionala, eta aukeratzeko, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko gaitasuna.

## 2010-2015rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana

Ongizatea eta aberastasuna sortzea helburu duen erakunde-arteko plan horren printzipio nagusiak hauek dira: jakintza sortzea, emaitzak bideratzea, EAEko gaitasunak aintzat hartzea, merkatuan arreta jartzea, eta erakunde publiko naiz pribatuen arteko lankidetza sustatzea. Plan horrek, alabaina, ekintzailetzarekin lotura duten zenbait gai nabarmendu ditu, hala nola:

- Talentu-gune aurreratu gisa EAE bultzatzea, eta EAEk kanpoan duen ikusgarritasuna eta produktibitatea hobetzea; adibidez, berrikuntzarekin eta ekintzailetzarekin lotura duten balioak eta jarrerak sustatzearen bidez prestakuntza-ibilbide osoan barrena.
- Finantzazio-eredu berriak sustatzea, balio-ekarpenari lehentasuna emango diotenak, maila guztietan ekimen pribatuaren parte-hartzea haztea eragingo dutenak, eta arrisku partekatuko tresna berriak izango dituztenak.
- Gizarte-ekintzailetza; gizarte-berrikuntzaren barruko irtenbide eraldatzaile, ardurazko eta finantzazioaren aldetik iraunkorra baita.

## Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Eusko Jaurlaritzaren Ezohiko Funtsa

Ekonomia eta enplegua sustatzeko ezohiko funtsa sortzea erabaki zuten Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek 2013ko maiatzean; bai eta funts horretara 245 milioi euroko zuzkidura egiteko konpromisoa hartu ere. Erakunde arteko plan horrek 4 ardatz nagusi ditu:

- Ekonomia Suspertzeko funtsa. 180 milioi euro bideratuko dira funts horretara.

- Berrikuntzarako funtsa. 20 milioi euro izango ditu, eta erabiliko da, batez ere, proiektu estrategikoak egiteko eta enpresetara doktoreak ekartzeko.
- Elkartasunerako funtsa. Enpleguaren aldeko elkartasun-funtsa izango da, eta 40 milioi euro izango ditu. Erabiliko da, batez ere, enpleguari buruzko tokian tokiko nahiz eskualdeko planak egiteko, etxebizitzak berritzeko plan bat egiteko, eta Lehen Urrats programarako (lehenengo lan-esperientziarako).
- Ekintzailetzarako funtsa. 5 milioi euroko aurrekontua izango du, eta ekintzailetza-kultura nahiz *seed capital* delakoa sustatzeko erabiliko da.

## Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren 2013-2016 Ekintza Plana

Sailaren 2016ra arteko lehentasunak zehaztu dira ekintza-plan horretan, berrikuntzaren aldeko konpromisoa hartuta. Plan horretan ekintzailetza babestu nahi izan da; bermatu nahi baitu finkatzeko eta hazteko bidea emango dieten laguntzak eta erraztasunak izango dituztela proiektu berritzaile eta bideragarriei ekitearen aldeko apustua egiten duten pertsonek (berdin proiektu teknologikoak izan ala ez). Planak nabarmendu du iraganean EAEren ezaugarri izan den pentsaera ekintzailea suspertu beharra dagoela; hainbat balio berreskuratu behar direla (ekimena, konpromisoa, arriskua, autonomia eta abar); eta enpresaburu ekintzaileen eginkizuna aldarrikatu behar dela, aberastasuna eta ongizatea sortzeko funtsezko eragile diren aldetik.

Horretaz gainera, intraekintzailetzaren aldeko apustua egin du Sailak, enplegua sortzeko eta finkatzeko ahalmena duen aldetik hura sustatu beharra baitago. Hartara, intraekintzailetzari laguntzeko programa espezifikoa bultzatu nahi da, alor horretan martxan diren ekimenak integratu, koordinatu eta indartuko dituena.

## Enplegua Sustatzeko 2013-2016 Programa (Eusko Jaurlaritza)

2013ko martxoan, Ekintzailetzarekin lotura handia duen Enplegua Sustatzeko Programa aurkeztu zuen Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak. 2013. urterako 281 milioi euroko aurrekontua izan zuen programa horrek; legegintzaldi osoan, alabaina, 3.630 milioi euro izango ditu (finantzazioaren eta inbertsio pribatuaren alorrean mugitutako baliabideak kontuan hartuta). Enplegua Sustatzeko Programa horren bitartez, 6 programa eragile hauek jarri nahi dira martxan:

- Enpresa Txiki eta Ertainentzako eta Autonomoentzako Finantzazio Programa. Euskal enpresa-ehuna finantzatzen laguntzeko ekimenak jarriko dira martxan, era horretako finantzazioa ematea ezinbestekoa baita egun dagoen enpleguari eusteko.
- Ekintzailetza Sustatzeko Programa. Haren helburua da EAEn kultura ekintzailea biziberritzea, autoenplegua eta ekintzailetza sustatzea; eta enpresa berrien sorrera bideratzeko behar diren baliabideak eskaintzea.
- Gazteen Enplegua Sustatzeko Programa. Gazteen langabezia-tasa handiei aurre egiteko helburu espezifikoa duen programa da. Horretarako, zenbait neurri baliatzen dira, laneratzea, enplegurako prestakuntza eta gazteen ekintzailetza bultzatzea ardatz hartuta.
- Enplegurako Prestakuntza Programa. Enplegagarritasuna handitzea du helburu, aukerak dituzten sektoreetan pertsonak gaitzearen bidez.
- Enplegurako Elkartasun Funtsa. Ezohiko diru-sarrerekin hornituko da eta Eusko Jaurlaritzaren eta funtsari atxiki zaizkion beste erakundeen ohiko gastuetan eta transferentzietan aurreztuko du. Funts horren bitartez finantzatuko dira, hain zuzen ere, lan-munduan sartzeko zailtasun handienak dituzten taldeei lan-munduan txertatzen laguntzeko zenbait ekintza zehatz.
- Renove Birgaitzeko Programa. Eraikinak berritzeko sektorean enplegua sor dadila sustatu nahi da programa horren bitartez. Sustatu nahi da, batetik, etxebizitzetan hobekuntzak egitea (etxebizitzen irisgarritasun-baldintzak eta efizientzia energetikoa hobetzea) eta, bestetik, osasun-etxeak berritzea, birgaitzea, eta horietan mantentze-lanak egitea.

### 2011-2014ko Unibertsitate Plana (Eusko Jaurlaritza)

Jakintza gero eta handiagoa duen enpresa-ehunari eta gizarte aurreratuari jakintza, balioak, espiritu kritikoa eta gogoetarako esparrua ematea da Unibertsitate Planaren helburu nagusia. Helburu horiek guztiak betetzeko bidean, hezkuntza, ikerketa eta jakintzaren transferentzia zainduko du Jaurlaritzak, eta Zientzia-Teknologia-Enpresa-Gizartea ekosisteman aitzindari izango da.

Horrela bada, helburu horiek guztiak eta beste batzuk betetzeko aukera emango dioten bederatzi programa zehaztu dira Unibertsitate Planean, besteak beste: ikerketa bultzatzeko programa; zientzia eta teknologia barreiatzeko programa; eta unibertsitate-enpresa programa. Azken horrek, esaterako, arautu egin ditu unibertsitate-eremuan sortutako jakintza transferitzen eta ustiatzen laguntzeko jarduerak; merkatuari begira, betiere.

### Euskadi 2015 Agenda Estrategikoa (Eusko Jaurlaritza)

Pertsona guztiei prestakuntza are gehiago hurbiltzea eta, bizitzan barrena, prestakuntza are malguagoa izatea lortu nahi du plan horrek. Horrela, beste gizarte batzuengandik bereiziko gaituen balioa sortuko dugu; azken batean, etorkizunean izan daitezkeen egoeretara egokitzeko gai izango den gizarte ahalik eta irekiena, jantziena eta prestatuena lortzeko bidea egin behar baititugu. Horiek horrela izanik, hamabi ildo estrategiko zehaztu ditu planak, besteak beste: lanbide-heziketaren inguruko arauak garatzeko konpromisoa; ikastetxeen eta enpresen arteko harremana indartzea; enpresa-sorrera eta kultura ekintzaileari laguntza ematea; eta ikasleak gaitzea enpresen nazioartekotzean lagungarri izan daitezen.

### Enpleguaren eta ekonomia sustatzearen aldeko apustua (Bizkaiko Foru Aldundia)

Lurralde horretan, enpleguaren eta ekonomia sustatzearen aldeko apustua egin du Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko Sailak. Zeregin horretan, 5 ardatz estrategiko definitu ditu uneko legegintzaldirako (2011-2015):

- Sortzea: enpresa berrien sustapena egitea.
- Lehiatzea: Enpresa txiki eta ertainei nahiz autonomoei bultzada berria ematea.
- Dinamizatzea: Azpiegitura Plana bertan sartzen da.
- Enplegatzea: Gazteen Enplegurako Planean zehaztu da ardatz horren ildoa.
- Erakartzea: Turismoaren industria sustatzea.

### Ekonomia Sustatzeko Planeamendu Estrategikoa (Gipuzkoako Foru Aldundia)

Jakintzaren Gizartean oinarritutako herrialdea sortzen lagundu nahi du Gipuzkoako Foru Aldundiak; gizarte-iraunkortasuna (gizarte-kohesioa), iraunkortasun ekonomikoa (berrikuntza eta lehiakortasuna), eta ingurumen-iraunkortasuna hirurak ere uztartuko dituena. Orain inoiz baino gehiago, pertsonen talentuan oinarritzen da garapen ekonomiko eta soziala (hots, pertsonen bizi-baldintzak eta horien ingurunea hobetzen dituzten jardunbideen multzoa). Horrela bada, politika publiko egokiak erabilita, gizarteak eta lurraldeak modu iraunkorrean garatzera lagun dezakete sormenak, berrikuntzak eta jakintzaren sozietateak. Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere aldetik, horren guztiaren jakitun den lurraldea garatzen lagundu nahi du.

Horren harira, hainbat ekintza-ildo garatuko dira:

- Berrikuntzaren jatorria pertsonak direla aitortzea eta, ondorioz, kultura berritzailea eta ekintzailea sustatzea (aldeko gizarte-inguruak eta gaitasun egokiak).
- Enpresak sortzeko eta finkatzeko ekosistema bultzatzea, honako hauei arreta berezia jarrita: ekonomia berde deritzonari, mikroenpresei, emakumeek sustatutako enpresa-proiektuei, oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren enpresa berriei, eta intraekintzailetzari edo ekintzailetza korporatiboari.

### Ekintzailetza-jarduerari laguntzeko azpiegitura (Arabako Foru Aldundia)

Araban, ekintzailetza-jarduera are gehiago garatzearen aldeko apustu sendoa egin du Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak, honako jarduketa-ardatz hauen bitartez:

- Kultura ekintzaileari buruz sentikortzea eta hura gizarteratzea, Araba Ekinean programako jarduketen bitartez, eta ekintzailetzarekin lotura duten Arabako hainbat eragile ekonomiko eta sozialen parte-hartzearen bitartez.
- Enpresa-unitate berriak sortzen laguntzea –hasierako faseetan– Ekin Araban programaren bitartez.
- Proiektuak aztertzen eta administrazioko izapideetan laguntzea, Arabako Merkataritza Ganberarekin egindako lankidetza-hitzarmenen bitartez.
- Proiektu berrien lokalizazioa egiteko azpiegiturak interesdunen esku jartzea, CEIA Arabako Eraberrikuntza Industrialdearen instalazioen bitartez edo, bestela ere, Araba Garapen Agentziak kudeatutako azpiegituretan.
- Enpresa-proiektu berriak finantzatzen laguntzea; bai Hazbide hazi-kapitaleko sozietatean parte hartzeko aukera emateren bidez, bai eta Elkargi eta Oinarri elkarren bermerako sozietateek kudeatutako abal-linea interesdunen eskura jartzearen bidez ere.
- Enpresa-proiektuak finkatzen laguntzea, Euskadi Innova enpresa-lehiakortasuna hobetzen laguntzeko programaren bitartez.
- Ekintzailetzaren bitarteko eragileei laguntza ematea: hitzarmenak Merkataritza Ganberarekin, Ajebask elkartearekin eta Ampea elkartearekin.

# 3. EKINTZAILETZAREN EUSKAL ZERBITZUAREN ETA EKINTZAILETZAREN BILAKAERA HISTORIKOA

## 1. ETAPA: SISTEMAREN SORRERA

Laurogeiko hamarkadara joan behar dugu ikusi ahal izateko zer testuinguru ekonomiko eta sozialetan proposatu zen Kultura eta Jarduera Ekintzaileari Laguntza Emateko Euskal Sistema sortzea. [1]

Industria-iraultzatik garatutako industrializazio-ereduak "azkena eman" zuen laurogeiko hamarkadan eta, ondorioz, "kolapso" handia izan zen EAEn hamarkada horretan.

Egoera horren ondorioz sortutako krisi orokorraren barruan, honako azpitalde hauek bereiz ditzakegu:

- "Krisi industriala". Lehiakortasuna galdu zuen industria tradizional osoak. Horren eraginez, EAEn jarduten zuten industria-lantegien kopurua pixkatxo bat murriztu zen.
- "Krisi soziala". Gizartearentzako langabezia-tasa jasangaitzak izan ziren (% 25 baino handiagoak); gizartearen desegituratze-maila oso handia izan zen; eta krisi politiko handia izan zen.
- "Ingurumen-krisia". Lurraldea neurriz kanpo ustiatzearen ondorioz –antolakuntzarik gabeko hirigintzaren erruz– euskal ekosistemak kaltea hartu zuen.

Testuinguru horretan, enpresa-lehiakortasunari laguntzeko estrategia integrala diseinatu eta martxan jarri zuten euskal erakunde publikoek. Lau ardatz nagusi hartu zituzten oinarri:




Enpresa-lehiakortasunari laguntzeko estrategia integrala garatzeko ardatzak, laurogeiko hamarkada.

Langabezia-tasak % 25etik gorakoak izan ziren; are, % 40tik gertuko langabezia-tasa izan zen zenbait zona eta udalerritan. Horiek horrela, EAEn enplegua sortzeko funtsezko tresna moduan eratu zen Kultura eta Jarduera Ekintzaileari Laguntza Emateko Euskal Sistema. Enplegua sustatu nahi zen, hain zuzen ere, autoenpleguaren eta enpresa txikiak –tokian tokikoak, gehien bat– sortzearen bitartez.

Hasiera batean, enpresa-proiektuak egiteko eta sozietateak eratzeko prozesuetan laguntza ematea izan zen Sistemaren egiteko nagusia. Horretarako, hiru eratako laguntzak eman zituen:

- Azpiegiturak; sozietate berria kokatzeko.

[1] Hurrengo paragrafoan azalduko dugun moduan, Eusko Jaurlaritzako Sailek, Foru Aldundiek eta ekimen honekin lotura duten eragileek osatzen dute Kultura eta Jarduera Ekintzaileari Laguntza Emateko Euskal Sistema edo Ekintzailetzako EAEko Sistema. Ekintzailetzari laguntzeko jarduerak garatzen hasi ziren horiek guztiak laurogeiko hamarkadan.

- Gastua edota inbertsioa, enpresa martxan jartzearen inpaktu ekonomikoa murrizteko.
- Prestakuntza eta kudeaketa-laguntza jardueraren lehenengo hilabeteetan.

## 2. ETAPA: MENDE-ALDAKETA

XX. mendearen amaieran eta XXI. mendearen hasieran, gure egoera sozio-ekonomikoak zenbait ezaugarri adierazgarri izan zituen:

- Sektore industrialak hartzen zuen euskal ekonomiaren % 25-30 inguru, eta euskal ekonomiaren eragile nagusienetako bat izaten jarraitzen zuen. Hala eta guztiz ere, sektoreen zerbitzuak gero eta zati handiagoa betetzen hasi zen enpresa-jardueren mapan.
- Egoera ekonomikoa osasuntsua zen, hainbat urtetan izandako hazkundea eta langabezia frikzionaletik gertuko langabezia-tasa nabarmen ziren.
- Ongizate-estatuak garapen handia izan zuen euskal gizartean, eta goi-mailako hezkuntzan trebatutako jende asko zegoen.

Aztergai ditugun urte horietan, aldaketa handiak izan ziren ekintzailetza-beharretan. Hasiera batean, langabeziatik ateratzeko bide bat bezala ikusten zen ekintzailetza (behar bat bezala); mende-aldaketan, ordea, negozio-aukera bihurtu zen.

Ingurua eta ekintzailetza-motibazioak aldatzen ari zirela ikusita, egoera berrira mailaz maila "auto-egokitzeko" prozesua bete zuen Sistemak, honako printzipio hauei helduta:

- Sistemaren xedearen etenik gabeko eboluzioa
  - Enpresa-sorkuntzari lehen baino garrantzi handiagoa eman zion Sistemak. Sustatu nahi zituen, batez ere, enpresa globalak, berritzaileak, ibilbide luzekoak, eta inguruan ekarpen ekonomiko eta sozial handia egingo zutenak (hazkunde azkarreko gazela enpresak edo Young Innovative Companies deritzenak).
  - Gero eta garrantzi handiagoa eman zitzaion ekintzailetzari lotutako balioak transmititzeari, eta gizarteak ekintzaileen irudia balioesteari. Gazte-gaztetatik ekintzailetza-balioak sustatzeko ahalegin asko egin ziren Sisteman.
- Sistema gero eta egituratuagoa
  - Sistemaren jatorrizko egiturak sendotu ziren, hiru lurraldeetako laguntza emateko erakunde-tresnak finkatzearen eta zabaltzearen bidez.
  - Laguntza-zerbitzuen kopurua hazi zen. Sozietatearen proiektua egiteko eta sozietatea eratzeko laguntza ematen jarraitu bazuen ere, beste zerbitzu batzuk ematen hasi zen Sistema, hala nola: enpresa garatzeko, hura eskualdatzeko edota ondorengoek hartzeko prozesuetan laguntza ematea; eta unibertsitate-inguruetan eta lanbide-heziketan ekintzailetzari buruzko prestakuntza ematea.
  - Sailez edo industriarekin eta sustapen ekonomikoarekin lotura duten arloez gain, laguntza-neurriak garatzen zituzten beste eragile publiko eta pribatuen kopurua hazi zen.
  - Hazi egin zen eragileen eta programen espezializazio-maila. Ekintzailetza-prozesuaren fase eta lurralde bakoitzaren beharretara egokitu dira, bai eta sortzen ari diren sektore berrietan sartu ere. Esate baterako, bioinkubadorea sortu zen mende-aldaketan; eta, sektore berrien aldeko apustu estrategikoari dagokionez, zenbait jarduketa zehatz garatu ziren era horretako ekimenei laguntza emateko baliagarriak izango diren gaitasunak sortzeko .

Aipatu berri dugun eboluzioaren ezaugarri nagusiak laburbildu ditugu eskema honetan:

| | Hasieran… (80ko hamarkadan) | Mende-aldaketa | Gaur egun |
|---|---|---|---|
| 1. Herritarren ekiteko beharra / justifikazioa | • %25etik gorako langabezia-tasak zeuden, eta gizarte-desegituratze handia zegoen. Horregatik guztiagatik, nork bere lana sortzeko bide bat izan zen ekintzailetza. | • Goi-mailako ikasketen maila handia zen, eta langabezia frikzionaletik gertuko langabezia-tasa zegoen. Hortaz, negozio-aukeratzat hartzen zen ekintzailetza. | • Sekula ez bezalako krisi ekonomikoa dago. Langabezia-tasa oso handiak daude, eta ekintzailetza-kulturarik ia ez dago. Ekintzailetza, beraz, langabeziatik ateratzeko modu bat da oraingoan ere. |
| 2. Ekintzailetza-sistemaren egitekoa | • Enplegua sortzea, autoenplegua sustatzearen bitartez eta enpresa txikiak sortzearen bidez. Enpresa txikiak izan ziren, gehien bat, tokian tokikoak eta ibilbide mugatua zutenak. | • Behar aldakorretara egokitzea (Lurraldearen, eragilearen, fasearen, eta abarren arabera). Ibilbide handiagoko enpresa berritzaileak sortu nahi ziren, eta ekintzailetzari lotutako balioak transmititu. | • Ekintzailetzari buruz gizarteak dituen baloreak aldatu nahi dira.<br>• Ibilbide luzeko enpresa globalak sortzeari bultzada mailakatua eman nahi zaio; baina hura ere ez da nahikoa oraindik. Erreferentziazko adierazlean sortutako enpresen bolumena (kantitatea edo kalitatea?). |
| 3. Garatutako tresnak, laguntza-sistema eta ekintza-politikak | • Jarduerek arreta jartzen zuten, batez ere, balore-katearen proiektua egiteko eta gizartea eratzeko fasetan, proiektua edozer motatakoa izanik ere.<br>• Hainbat laguntza-egitura sortu ziren (azpiegiturak, inbertsioa eta prestakuntza). | • Eragileak eta programak espezializatu ziren.<br>• Eragileen eta programen kopurua handitu zen.<br>• Ekintzailetza-prozesuaren fase guztiei heldu zitzaien, ez soilik hasierako faseei.<br>• Programa espezifiko berriak diseinatu ziren unibertsitateetan, lanbide-heziketan, zentro teknologikoetan eta abarretan. | • Sistemak eboluzionatu egin du, eta balore-katearen fase guztietara zabaldu da. Hala ere, proiektua egiteko eta sozietatea eratzeko faseetan arreta gehien jartzen jarraitzen du.<br>• Jatorrizko erakunde-laguntzaren azpiegiturak finkatu dira. Hona ekosistemaren zenbait ezaugarri:<br>• Nahiz eta finkatuta egon, zatikatze handia dago.<br>• Eragile parte-hartzaile ugari daude.<br>• Sail eta alor asko dira tartean. |
| 4. Lortutako emaitzak | • Sortutako "mini-enpresek" langabezia-tasa pixkanaka jaistera lagundu zuten. | • Sortutako enpresen kopurua hazi bazen ere, enpresa horietako gehienak sektore tradizionaletan sortu ziren. | • Oraindik ere, sektore tradizionaletan sortzen dira enpresak, baita berrikuntza- edota teknologia-maila mugatuaz sortu ere.<br>• Zabalkuntza-prozesu betean daude hezkuntzari eta ekintzailetza-kulturari buruzko programak. |

Kultura eta Jarduera Ekintzaileari Laguntza Emateko Euskal Sistemaren bilakaera

## 3. ETAPA: EGUNGO KRISIA

Lau urteko higaduraren ondoren, EAE atzeraldian sartu da, berriz ere, 2012an; % 1,3 egin baitu behera barne-produktu gordinak. Epe laburrean, testuinguru ekonomiko zailari aurre egiten jarraitu beharko du EAEk; 2013. urtean barne-produktu gordina beste % 1,1 jaistea eta 2014. urtean pixkatxo bat haztea espero baita. Krisiaren ondorio guztietatik larriena langabezia da. Izan ere, enplegu betea izatetik 2012aren amaieran % 12tik gorako langabezia-tasa izatera pasa gara. Gazteek, hau da, 16-24 urte bitarteko biztanleria aktiboak langabezia-tasa handia izan du; % 39koa ere. Hainbat eragilek aurreikusi dutenez, enplegua oso motel berreskuratuko omen da.

Epe laburrari begira, hainbat urtez egin beharko dugu lan ekonomia suspertzeko. Aurreikuspenen arabera, 2017. urtera arte ez omen du berreskuratuko euskal ekonomiak krisiaren aurreko BPG errealaren maila. Mundu-mailako egoera eta gure errealitate ekonomikoa ikusita, bat-bateko aldaketa egin behar dugu gure lehiakortasunean eta hazkunde ekonomikoan. Horretarako, gure ekonomiaren berrikuntzan oinarritutako eraldaketa sendotu behar dugu; eta gure eredua egokitu behar dugu, batetik, EAEren egungo lehiakortasun-egoerara eta, bestetik, etorkizunean munduan izango diren egoeretara.

Testuinguru zail honetan zenbait galdera egin behar dizkiogu gure buruari:

- **Guk behar dugun eraldaketa produktibo eta sozial horren barruan, zer egiteko utz daiteke enpresen esku?** Hainbat egilek adierazitakoaren arabera eta mundu osoko hainbat eskualdetan gauzatutako eraldatze-proiektuekin bat etorriz, ekintzailetzaren bitartez produkzioa eta gizartea eraldatzea posible da (eta desiragarria). Atzeraldian den ekonomia batean, ekintzailetzak garrantzi handiko eginkizuna du, ekonomia berrirako bidean, euskal enpresa-ehuna berreratzeko eta dibertsifikatzeko orduan. Ekintzailetza inklusiboa (hau da, beharrean oinarritutako motibazioa) gaikuntza-pertsonalaz arduratzen da eta, ondorioz, biztanleriaren enplegagarritasuna hobetzen laguntzen du.

- Ekintzaileari laguntza emateko gure sistema egokituta al dago gure ekonomiaren eta gizartearen egungo zein etorkizuneko beharretara? Aitortu beharra dago, lehenik eta behin, hizpide dugun sistema funtsezkoa izan dela EAEren garapen sozio-ekonomikoarentzat, sortu zenetik orain arte. Kontuan hartu behar dira, baita ere, Europako, estatuko eta Autonomia Erkidegoko egungo esparru politikoaren eta lege-esparruaren eskakizunak. Horrela bada, gure buruari galdetu beharko diogu sistema horretako zer faktore kritiko edo elementu gako indartu edo egokitu behar ditugun, ekintzailetza ardatz izango duen eraldaketa produktibo eta soziala bermatzeko.

Hurrengo kapituluetan, honako bi gai hauek jorratuko dira: ekintzailetzak gure gizartean egun duen egitekoa, eta Ekintzaileari Laguntza Emateko Euskal Sistemaren balioespena.

## 4. EKINTZAILETZAREN EAEKO EGOERARI BURUZKO DIAGNOSIA

EAEn ekintzailetza zer egoeratan dagoen aztertuko dugu atal honetan. Beste autonomia-erkidego batzuetan ekintzailetzak bizi duen egoerarekin alderatuko dugu EAEkoa, baita estatuko eta Europako beste neurri batzuekin ere. Horretarako, EAEko ekintzailetza-jardueraren tasa aztertuko da, bai eta etorkizunean egon daitekeen ekintzailetzaren kalitatea eta ahalmena zehazten duten beste faktore batzuk ere. Azterketa, zehazki, honako atal hauetan banatu da:

- Ekintzailetza-jardueraren analisia
- Ekintzailetza-jardueraren eragin potentziala
- Biztanle helduen ekintzailetza-pertzepzioak
- Euskal ekintzailearen profila
- Enplegudunen ekintzailetza-jarduera eta intraekintzailetzarako baldintzak

Global Entrepreneurship Monitor (GEM) proiektuaren txostenek emandako informazioa erabili da Analisia egiteko datu-iturri nagusi bezala. GEM proiektuak ematen dituen datuak beste eskualde edo herrialde batzuetakoekin aldera daitezke. GEM proiektuak aztertzen ditu, batez ere, biztanle helduen ekintzailetza-jarrerak; ekintzailetza-jarduera bera; eta ekintzailetza-jardueraren ondorioz sortutako negozio-ekimenen anbizio-maila (hau da, berrikuntza, hazkunde-itxaropenak eta nazioarteko orientazioa). Mundu-mailako ikuspegia duenez, lurralde jakin bateko ekintzailetza-jardueraren diagnosi orokorra egiteko erabilgarriak dira GEM proiektuaren datuak.

Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko Global Entrepreneurship Monitor (GEM) txostenaren bederatzigarren edizioa egin da 2012. urtean[2]. 69 herrialdek hartu dute parte proiektu horretan, eta guzti-guztiek eredu metodologiko eta kontzeptual bera erabili dute ekintzailetza-jarduera, enpresa-dinamika eta hazkunde ekonomikoan hark izango duen eragina neurtzeko. Munduko biztanleria osoaren % 74 eta BPGren % 87 egiten dute GEM proiektuan parte hartu duten 69 herrialdeek. Urte honetan, esaterako, 198.000 pertsonari egin zaie inkesta. Estatuari dagokionez, Espainiako autonomia-erkidego guztiak estaltzen ditu GEM proiektuak. Hartara, GEM proiektuaren eskualdeko datu-baserik garrantzitsuenetako bat da. GEM Euskadi taldearen bitartez hartzen du parte EAEk proiektu horretan eta, ondorioz, euskal ekintzailetza-jarduera ondo kokatuta dago nazioartean.

[2] GEM proiektuaren nazioarteko partzuergoaren baitan bildu dira azterlan hau egiteko erabili diren datuak. Hala ere, GEM proiektuaren EAEko taldeari dagokio datu horiek aztertzea eta interpretatzea. Honako hauek osatzen dute GEM proiektuaren EAEko taldea: Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuak; Mondragon Unibertsitateak; Euskal Herriko Unibertsitateak; Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak; eta beste erakunde laguntzaile batzuek (foru-aldundiek, Eusko Ikaskuntzak, SPRIk, eta Emilio Soldevilla fundazioak).

## 4.1 Ekintzailetza-jardueraren analisia

GEM proiektuaren arabera, hainbat fasetan bana daitekeen prozesutzat har daiteke ekintzailetza-jarduera: hasi pertsona batek ekiteko asmoa duen unean, eta buka enpresa bat martxan jartzeko beharrezkoak diren jarduéretan; edo buka enpresa baten jabe bihurtu eta hura merkatuan kudeatzen duenean; edo, are, buka enpresa-proiektua bertan behera uzten duen unean. Ikuspegi horretatik begira, egiteko aktiboa duten hiru ekintzaile-mota bereiz daitezke: ekintzaile sortu berriak, ekintzaile berriak, eta finkatutako ekintzaileak. Ekintzaile sortu berrien taldean sartzen dira, hain zuzen ere, enpresa bat martxan jarri nahian dabiltzan pertsonak eta, 3 hilabete baino gehiago igaro ondoren, soldatarik ordaindu ez dutenak. Ekintzaile berritzat hartzen dira, berriz, enpresa berri baten jabe eta kudeatzaile izan eta 3 eta 42 hilabete artean soldatak ordaindu dituzten pertsonak (hots, 3 urte eta erdiz). Azkenik, finkatutako ekintzailetzat hartzen dira 42 hilabete baino gehiagoz soldatak ordaindu dituzten enpresen jabe eta kudeatzaile diren pertsonak. Ekintzaile sortu berrien eta ekintzaile berrien tasak gehitzen baditugu, guztizko ekintzailetza-tasa izango dugu (TEA). Tasa hori da, hain zuzen ere, ekonomia baten ekintzailetza-jardueraren maila neurtzeko GEM proiektuak ematen duen adierazle nagusia.

EAEren kasuan, % 4,4koa izan zen 2012ko TEA adierazlea. Horrek esan nahi du euskal biztanle helduen % 4,4 enpresa bat martxan jartzen ari zela edo, bestela ere, jardunaren hasierako fasean, hau da, 0 eta 42 hilabete arteko jarduna duten enpresen jabe edo kudeatzaile zirela. Zehazki, biztanle helduen % 2,4 ekintzaile sortu berri ziren 2012an; eta ekintzaile berri, ordea, % 2,0. Aitzitik, biztanle helduen % 8,4 finkatutako ekintzaile zen 2012. urtean. Egiteko aktiboa duten ekintzaileez gain, badira ekintzaile izan daitezkeen beste pertsona batzuk ere; hau da, hurrengo 3 urteetan enpresa berri bat sortzeko asmoa duten pertsonak. Pertsona horiek, hain zuzen, biztanleria helduaren % 8,9 ziren aztergai dugun urtean. Biztanle helduen % 1,7k, berriz, enpresa-proiektu bat bertan behera utzi zuen azken urtebetean eta, ondorioz, ekintzaile izan dira berriki.




TEA Guztizko ekintzailetza-tasaren banaketa

Beste ekonomia batzuekin alderatuta, autonomia-erkidego gehienen eta estatuko batez bestekoaren azpitik izan zen EAEko TEA adierazlea 2012. urtean (% 5,7). Europa-mailan, Europar Batasuneko herrialdeetatik 2012. urtean GEM proiektuan parte hartu zuten horiek % 7,7ko TEA izan zuten batez beste. EAE, beraz, oso urrun dago maila horretatik. Mundu-mailan, grafikoak erakusten duen moduan, bada loturarik errenta-mailen eta TEA guztizko ekintzailetza-tasaren artean: zenbat eta ekintzailetza-jarduera gutxiago izan, orduan eta ekonomiaren eta ongizatearen garapen-maila handiagoa du gizarte horrek.




TEA adierazlearen eta garapen ekonomikoaren mailaren arteko lotura

Kronologiari so, EAEko ekintzailetza-jarduerak gainbehera handia izan zuen 2009 eta 2010. urteetan krisi ekonomikoaren ondorioz. Hurrengo bi urteetan euskal ekintzailetza-jarduerak gora egin badu ere, oraindik ez gara heldu krisiaren aurreko mailetara.

Estatuan eta Europan ere izan du eragina krisiak ekintzailetza-jardueraren gain; baina ez EAEn bezainbat. 2008. urtean hirurek ekintzailetza-maila bera bazuten ere, EAEren TEA adierazlearen oso gainetik izan dira 2009. urtetik bai estatuko TEA adierazlea, bai eta azken urteotan GEM proiektuan parte hartu duten Europar Batasuneko herrialdeen batez besteko TEA adierazlea ere.

Bestalde, gero eta alde handiagoa dago EAEko ekintzailetza-jardueraren mailaren eta GEM proiektuan urtero parte hartu duten herrialde guztien artean. Izan ere, % 10aren gainetik izan da TEA adierazlearen mundu-mailako batez bestekoa; are gehiago, goranzko joera izan du aztertutako aldi guztian.




EAEren TEA adierazlearen bilakaera, eta beste eremu batzuetako TEAk, 2008-2012.

2009ko beherakadaren ondoren, **ekintzaile sortu berrien taldearen** jarduera izan da, guztietatik, gorabehera gehien izan duena denboran barrena. **Ekintzaile berrien taldearen** jardueraren bilakaera, berriz, egonkorragoa izan da. Autonomia-erkidegoen batez bestekoaren antzekoa da **finkatutako ekintzaileen** EAEko taldearen 2012ko jarduera. Are gehiago, GEM proiektuan parte hartu duten Europar Batasuneko herrialdeen finkatutako ekintzaileen batez besteko kopuruaren gainetik dago EAEkoa.

Kontuan izan behar dugu, alabaina, **autoenplegua** sartzen dela TEA adierazlearen barruan. Gai horri helduz, 2005. urtetik eta 2013. urteko bigarren hiruhilekora arte, EAEn autoenplegatutako pertsonen kopuruak zer bilakaera izan duen ikusteko aukera ematen digu Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestak. Ikus daitekeenez, autoenplegatuen kopurua % 4,3 jaitsi da urtero 2006. urtetik (60.000 pertsona baino gehiago, guztira). Kopuru hori, hala ere, urtean % 0,4 besterik ez da jaitsi azken urteotan (2010-2013). 2013ko uztailaren amaiera aldera argitaratutako datuen arabera (azken datua), 8.700 autonomo galdu dira azken hiruhilekoan; gehienak zerbitzuen sektorekoan (4.900 autonomo gutxiago sektore horretan).




EAEn autoenplegua duten pertsonen kopuruaren bilakaera, 2005-2013.

Ekintzailetza-negozioak **txikiak** izan ohi dira. Batez beste, 1,3 pertsona enplegatu dira 2012. urtean EAEn hasitako ekintzailetza-negozio bakoitzean (jabeak edo ekintzaileak zenbatu gabe). Ekintzailetza-negozio horiek tarteka aztertzen baditugu, hau da, bakoitzean kontratatu den langileen kopuruaren arabera, ikusiko dugu ekintzailetza-negozioen % 51,6k ez duela enplegatu bakar bat ere; % 41,8k 1 eta 5 enplegatu artean dituela; eta gainerako % 6,6ak, berriz, 6 eta 19 enplegatu dituela (lagineko negozio bakar batek ere ez du 19 enplegatu baino gehiago).

Tamaina txikiko enpresak izan ohi direnez eta eskarmenturik ez dutenez, sartzeko oztopo gutxi dituzten eta inbertsio handiren beharrik ez den **sektoreetan** garatu ohi dira negozio berriak. Horrela bada, zerbitzuen alorreko jardueretara loturik zeuden 2012. urtean EAEn izandako ekintzailetza-negozioen % 74,4: kontsumitzailearentzako zerbitzuak ematen zituzten horien % 43,5k; eta gainerako % 30,9ak enpresentzako zerbitzuak eman zituen. Ekintzailetza-negozio guztien % 24,5ak transformazio-jarduerekin edo eskulangintzarekin lotura izan zuen; eta lehen sektorean edo aterakuntzan aritu ziren ekintzailetza-negozioen % 1,2.




EAEko ekintzailetza-ekimenen banaketa, jarduera-sektorearen arabera, 2012.

Sortzeko bidean diren negozioen proiektuek behar duten hazi-kapitalari dagokionez, 2011. urtetik hona apur bat jaitsi da kapital horretatik **inbertsio informalari** zegokion kopurua EAEn. 2012an, berriz, 20.000 eurotan izan da, batez beste, enpresa-proiektu bat martxan jartzeko beharrezkoa den kapitala. Urte horretan, nabarmen jaitsi da ekintzaileak berak bere gain hartzen duen finantzazioaren ehunekoa (10.000 eurotik 5.000 eurora). Finantzazio-iturri garrantzitsua da inbertsio informala. Hartara, norberaren dirua beste norbaiten ekimen sortzailean inbertitzea erabaki zuen 18 eta 64 urte bitarteko pertsona helduen % 3,1ek. Inbertsio informalari buruzko nazioarteko daturik onenetako bat du EAEk. Are, Kataluniaren atzetik, EAE da inbertsio informalaren tasarik handiena duten autonomia-erkidegoetan bigarrena.

**Inbertsiogile pribatuak** gizonezko izan ohi dira, 46 urte ingurukoak, goi-mailako ikasketak dituztenak eta lan-egoera aktiboan direnak. Nabarmendu beharra dago, baita ere, enpresaren alorrean arituak izan ohi direla eta alor horretan eskarmentua izan ohi dutela inbertsiogile pribatuek. Hortaz, dirua inbertitzen duten proiektu horietara transferitu ohi dute beren jakintza, eta aholkuak eman ohi dituzte. Datu horiek agerian utzi dute egon badagoela inbertsiogile profesionalen sare egonkor bat, eta ez dutela zertan aurretiazko harremanik izan behar (berdin senitarteko-harremanik edo laguntasun-harremanik izan behar) finantzatuko dituzten proiektuen ekintzaileekin. Business Angels figuraren antzekoa litzateke inbertsiogile pribatuaren profil hori. Guztizkoaren % 8,4 era horretako inbertsiogile izan zen EAEn 2012. urtean; estatu osoan, berriz, % 5,6.

## 4.2 Ekintzailetza-jardueraren eragin potentziala

Beste bi adierazle ere badaude, ekintzailetza-proiektu horiek zenbaterainoko kalitatea duten jakiteko balio digutenak, eta zenbait alderdi aztertzeko ere erabil daitezkeenak; hauek, besteak beste: pertsonek beren proiektuei zergatik ekiten dieten, premia dutelako edo aukeraren bat sortu zaielako; lanean aurrera egiteko eta lana sortzeko zer aurreikuspen dituzten; lana lortzeko zer gaitasun-maila duten; eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuak zenbateraino diren berritzaileak; eta munduan barrena hedatzeko zer aukera dituzten.

Alde horretatik, beste zenbait herrialderen aldean EAEn ekintzailetza-jarduera hain nabarmena ez den arren, badirudi gurean abian jarritako negozioen kalitatea hemendik kanpoko Autonomia Erkidegoetakoa baino hobea dela, aztergai ditugun zenbait adierazleren arabera.

Hala, esate baterako, aukeraren bat izan eta proiektu bat abian jarri dutenen TEA adierazlearen ehunekoa % 76,2 da EAEn; Estatuko batez bestekoa (% 72,3) eta Europar Batasuneko herrialdeetakoa (% 74,9) baino zertxobait gehixeago, hain zuzen.

Lehiakortasun-mailari dagokionez, badirudi lan-merkatuan lehiakide ugari ari direla elkarrekin lehian, 2012an EAEn identifikatutako ekintzailetza-negozioetan ari ziren ekintzaileetatik % 48,1ek onartzen zuenez. Haietatik % 10,1ek baino ez zuen uste lehiakiderik batere ez zuela; eta produktu edo zerbitzu berbera eskaintzen zutenen artean, % 48,8k hautematen zuen lehiakide gutxi batzuk izan bazituela.

Ekintzailetzari ekiteko motiboez landa, etorkizunean enplegua sortzeko itxaropenei dagokienez ere alde nabarmenak daude beren artean, eta horrek, jakina, berebiziko eragina du lekuan lekuko ekonomian, hazkundeari eta lehiakortasunari dagokienez. 2012an EAEko TEA adierazlearen arabera identifikatutako ekintzaileen artetik lanean hasi berri zirenen % 5,1ek espero zuen hurrengo bost urtean 19 laguni lana ematea. Estatuko batez bestekotik (% 3) goraxeago egon arren, ehuneko hori txiki samarra da Europar Batasuneko herrialdetakoen aldean, haietan ekintzaileen % 11,2k baitauka gorago aipatutako datuak erdiesteko itxaropena[3].

Ekintzailetza-jardueraren kalitatearekin lotutako beste adierazle bat ere bada: ekintzailetza-negozioetan eskainitako produktu edo zerbitzuen berritasun-maila, hain zuzen. 2012an lanean hasi berriak ziren EAEko ekintzaileen % 40,5ek eskaintzen zuen produktu edo zerbitzu gutxi-asko berritzaileren bat. Zehatz esatera, % 17,7k bezero guztiei eskaintzen zien produktu edo zerbitzu berritzaileren bat, eta % 22,8k, berriz, bezero batzuei eskaintzen zien produktu edo zerbitzu berritzaileren bat. Bi adierazle horiei dagokienez, beste autonomia-erkidego batzuetako datuekin alderatuta, EAEn antzeko kopuruak dira nagusi. Europar Batasuneko herrialdeetan, batez beste, ia ekintzaileen erdiek eskaintzen dute berritasun-maila jakin bateko produktu edo zerbitzuren bat; edonola ere, zenbait bezerori produktu edo zerbitzu berritzaileren bat eskaintzea helburu duten ekintzailetza-jarduerak egotea, horixe da EAEko datuekiko alde horren arrazoi nagusia.

[3] Erantzunik batere eman ez dutenak ere kontuan hartzen dira ehuneko hauetan. Izan ere, ez zekitenak eta erantzun ez zutenak kontuan hartu ez, eta erantzun zutenak baino ez bagenitu hartu kontuan, TEA adierazleari jarraituz 2012an 20 langile edo gehiago izatea espero zuten ekintzaileen ehunekoa % 6,2ra igoko zen. Azken hori da, hain zuzen, 2012ko EAEko GEM txostenean aipatzen den ehunekoa.




2012ko TEA adierazleari dagokionez, autonomia-erkidegoetako datuen arteko alderaketa, eskainitako produktu edo zerbitzuen berritasun-mailaren arabera

**Erabilitako teknologiaren antzinatasunari** dagokionez, EAEn abian jarritako ekintzailetza-negozioen % 13tan erabili omen dituzte teknologia berriak (urtebetetik beherako antzinatasuna dutenak), beren produktu edo zerbitzua sortzeko. Horietatik % 15,5etan teknologia sortu berriak (urtebetetik bost urtera bitarterainoko antzinatasunekoak) erabiltzen omen dira; eta % 71,6tan, berriz, bost urtetik gorako antzinatasuna dutenak.

Azkenik, beren negozioek izan dezaketen eragin potentziala baloratzeko pertsona ekintzaileek gogoan hartu beharreko beste alderdi kualitatibo bat ere badago: **hemendik kanpoko merkatuetan negozioak abian jartzeko aukerak aprobetxatzearekin** lotutakoa, alegia. 2012an EAEko TEA adierazleak barnean hartzen zituen ekintzaileen % 24,7k bideratu zuen bere negozioa nazioarteko merkatura. Pertsona horietako gehienen (% 13,5en) bezeroak atzerrikoak ziren (bezeroen % 1 eta % 24 artean, hain zuzen). Ekintzaile horien % 4,3k baino ez zizkien eskaini beren produktu eta zerbitzuak beren bezero-zorroan atzerrikoak ziren bezeroei (% 25 eta % 49 artean); eta % 6,3k, berriz, bezero guztietatik % 75 atzerrikoak zirenei saldu zizkien beren produktuak. Dena dela, nazioartean negozioak egiten diharduten ekintzaileen proiektuak atzerriko bezeroen % 1etik % 24ra bitarterainoko tartean oinarritzen badira ere, EAEko ekintzailetza-jardueraren nazioarteko orientazioa autonomia-erkidegoetako eta estatuko batez bestekoaren parekoa da. Hala eta guztiz ere, Euskadiko ekintzaileen nazioarterako joeraren maila Europar Batasuneko herrialdetako ekintzaileenaren atzetik doa, Europan sortzen diren negozioen % 50ek baino gehiagok izan ohi baitu bezeroren bat atzerrian.

## 4.3 Biztanleen ekintzaile-pertzepzioak

Ekintzailetzari ekiteko pertsonok dugun ahalmen errealaz gain, ekintzailetza-jardueraren arrakastan zeresana duten alderdiei buruz norberak duen pertzepzioak ere berebiziko eragina izaten du enpresa berri bat abian jartzeko erabakian.

GEM proiektuaren arabera, ekintzailetzarekin lotutako erabakiak balorazio subjektiboetan ardazten dira, eta balorazio ok, berriz, norbanakoon hiru pertzepzio-mota oinarri hartuta eratzen dira: negoziorako aukerekin edo oraindik inork urratu gabeko negozio-ildoei igartzearekin lotutakoak; norberaren ekintzailetza-gaitasunei antzematearekin edo ekintzailetzan aritzeko norberak dituen abilezietan konfiantza izatearekin lotutakoak; eta porrot egiteko beldurrarekin edo arriskurik hartu nahi ez eta negozio bat abian jartzeko asmoa baztertzeko aukerarekin lotutakoak[4].

Norberaren inguruan negozio bati ekiteko zer aukera dauden hautemateari eta aukeren aurrean erne ibiltzeari dagokionez, inkesta egin eta hurrengo 6 hilabetean zehar negozio bati ekiteko aukera berri eta onak zeudela, horixe pentsatzen zuen 2012an euskal biztanleen % 13,3k. Aukera berriei buruzko pertzepzio-maila hori bat dator autonomia-erkidegoetako batez bestekoarekin, baina, hala eta guztiz ere, Europar Batasuneko herrialdeetako datuetatik oso urruti dago, haietan herritarren % 31,4k uste baitu epe laburrean negozioren bati ekiteko aukera onak izango dituela. Europako herrialdeen aldean, EAEn eta, oro har, Estatuan aukera berriei buruzko pertzepzioa hain eskasa izatearen arrazoia ulertuko badugu, ezinbestez gaur egun nagusi den krisi ekonomikoaren ondorioei erreparatu behar zaie.

Honaino iritsita, gainera, esan beharra dago alde nabarmena dagoela, aukeren pertzepzioari dagokionez, 30 urtetik beherako gazteen eta adineko pertsonen artean. Izan ere, 30 urtetik gorako biztanleen artetik % 11,7k dioenez, datozen 6 hilabeteetan EAEn negozioren bat abian jartzeko aukera onak daude; gazteei galdetuta, aldiz, haien % 19,6k uste du denbora-tarte horretan negozio bat martxan jartzeko aukera onak egon litezkeela. Adierazle hori estu lotuta dago datozen 3 urteetan negozio bati ekiteko asmoa duten ekintzaile potentzialen ehunekoarekin: 30 urtetik beherako biztanleen artean, biztanleen % 14,1ek du horretarako asmoa; adin horretatik gorakoen artean, berriz, kopurua erditik behera jaisten da (% 7,2raino, hain juxtu).

Ekintzaile jokatzeko nork beraren ahalmenean duen konfiantza-mailari dagokionez, negozio bat martxan jartzeko bere abilezietan, ezagueretan eta eskarmentuan konfiantza nahikoa zuela adierazi zuen EAEko GEM proiektuari jarraituz 2012an egindako inkestan parte hartu zuten helduen % 44,1ek. Hori dela-eta, Europar Batasuneko herrialdeetako batez bestekotik goraxeago daude EAEko datuak, baina gainerako autonomia-erkidegoetakotik beheraxeago. Atzera ere adinak kontuan hartzen baditugu, berriz, gazteenen artean, ulertzeko modukoa denez, ekintzailetzan jarduteko norberak dituen ahalmenei buruzko pertzepzioa 30 urtetik gorako biztanleena baino zertxobait hobea da: 30 urtetik gorakoen % 45,8k pentsatzen du ekintzaile-jardueretan aritzeko beharrezkoa den ezaguera-maila duela; gazteen artean, aldiz, % 37,3k baino ez du bere burua horretarako gai ikusten.

Azkenik, 2012ko inkesta horretan euskal biztanle helduen % 52,6k hartzen zuen porrot egiteko beldurra ekintzailetza-jarduerei ekiteko eragozpentzat. EAEn erregistratutako batez bestekoaren antzekoa da Estatukoa ere; Europakoa, baina, % 50etik beherakoa da (% 46,7).

---

[4] Zenbait herrialdetako ebidentzia enpririkoak garbi erakusten digu zeinen garrantzitsua den pertzepzioa ekintzailetzari ekiteko. Hori dela-eta,eragin horri buruzko deskribapen zehatzagoa nahi izanez gero, jo, esate baterako, Arenius eta Minnitiren (2005) ikerketa-lanera.

## 4.4 Euskal ekintzailearen profila

Ekintzailetza-jarduera ondo ulertzeko, enpresa berriak martxan jarri eta horretan diharduten pertsonak nolakoak diren ondo aztertzea ere garrantzi handikoa da. Ondoren, 2012ko EAEko TEA adierazleak oinarri hartzen duen ekintzaileen kolektiboaren ezaugarri nagusiak laburbilduko ditugu.







EAEko TEA 2012 adierazleak oinarri hartzen dituen ekintzaileen generoa eta adina







EAEko TEA 2012 adierazleak oinarri hartzen dituen ekintzaileen ikasketa-maila eta diru-sarrerak

Datuek garbi erakusten dutenez, EAEko ekintzaile tipoa gizonezkoa da (% 66), 35 urtetik 44 urtera bitartean dituena (% 36), eta unibertsitate-ikasketak dituena (% 46). Diru-sarrerei dagokienez, zaila da profila argi eta garbi zehaztea, inkestan horri buruz erantzunik eman ez dutenak asko izan baitira.

## 4.5 Enplegudunen ekintzailetza-jarduera eta intraekintzailetzarako baldintzak

Intraekintzailetza[5] honela defini daiteke: "Erakunde publikoetan nahiz pribatuetan gauzatzen den edozein motatako ekintzailetza-jarduera da, erakunde horrek lehiarako abantailak izan ditzan edota aurrez dituen abantailei eutsi diezaion, baliabideak egoki erabiliz eta ekintzaileek ideia berritzaileak identifikatzea eta/edo ustiatzea errazten duen ingurunea baliatuz".

Intraekintzailetza erdiesteko baliabidea den aldetik, 2011. urtean, GEM proiektuak aintzat hartu zuen pertsonen ekintzailetza-jarduera ondo aztertu beharra. Horretarako, proiektuan parte hartu zuten herrialde eta eskualde bakoitzeko enplegudun pertsonen lagin adierazgarri bat hautatu eta inkesta bat egin zitzaien; helburua garbia zen, oso: jakitea pertsona horietatik zenbat ari ziren lidergo-karguetan beren enplegu-emaileentzat negozio-jarduera berriak garatzen.

Adierazle horren arabera, azken 3 urteetan (definizio hedatua), 18-64 adin-tarteko euskal biztanle enplegudunen % 5,3k ekin dio intraekintzailetza-jardueraren bati, eta % 4,9k, berriz, horretan ziharduen inkesta egin zitzaion unean bertan (definizio mugatua).

Beste ingurune batzuen aldean, gurean batez bestekotik oso gertu dago bai inkesta egitean bai azken 3 urteetan enplegua zutela intraekintzailetza-jardueraren bati ekin dioten pertsonen ehunekoa. EAEren, Estatuaren eta autonomia-erkidego gehienen aldean, Europar Batasunean askoz gehiago dira enplegua dutela intraekintzailetza-jardueraren bati ekiten dioten pertsonak (Europar Batasunean, herritarren % 9,4k ekin dio azken 3 urteotan intraekintzailetza-jardueraren bati, eta gaur egun ere horretan dihardu biztanleen % 7,2k).

Enplegua duten pertsonei egindako inkesta espezifiko horretaz gain, GEM proiektuan ari zirenek zenbait aditurengana ere jo zuen 2011. urtean, intraekintzailetza sustatzeko baldintzekin lotutako hainbat alderdiri galdetzea helburu hartuta. Haien balorazioa aintzat hartuta, EAEn nagusi diren baldintzek ez omen diote batere mesederik egiten gurean lanean diharduten erakundeetan intraekintzailetza-jarduerak bultzatzeari.

Alde batetik, adituen iritziz, erakundeek ez omen diote batere babes korporatiborik ematen intraekintzailetzari (5etik 2,7ko balorazioa), eta hezkuntza- eta lan-inguruneetan ere ez omen da pertsonen proaktibitatea sustatzen (5etik 2,3ko balorazioa).

Beste alde batetik, adituek diotenez, EAEko enpresetan erabakiak hartzean goitik beherako ereduari eusten zaionez, antolakuntzan mailarik baxuenean dauden pertsonek ez dute erabakietan parte hartzen (5etik 3,9ko balorazioa), eta enplegatu izateari utzi eta ekintzailetza-jardueraren bati ekiteko gizarte-pizgarririk ere ez omen dago (5etik 3,4ko balorazioa).




[5] Iturria: Orkestra, 2011, "Emprendimiento corporativo en España"

Intraekintzailetza sustatzeko baldintzen balorazioa

| ADIERAZLEA | EAE | ESTATUA, BATEZ BESTE | EB, BATEZ BESTE |
|---|---|---|---|
| TEA adierazlea | % 4,4 | % 5,7 | % 7,7 |
| Ekintzaile kontsolidatuen ehunekoa | % 8,5 | % 8,7 | % 6,6 |
| Aukeraren batek bultzatuta abiatutako proiektuen ehunekoa | % 76,2 | % 72,3 | % 74,9 |
| 5 urtean 19 langile izatea aurreikusten duten ekintzaileen ehunekoa | % 5,1 | % 3 | % 11,2 |
| Produktu gutxi-asko berritzaileak eskaintzen dituzten enpresen ehunekoa | % 40,5 | % 41,7 | % 48,8 |
| - Produktu berritzaileak denentzat | % 17,7 | % 19,2 | % 16,3 |
| - Produktu berritzaileak batzuentzat | % 22,8 | % 22,6 | % 31,3 |
| Nazioartean lanean diharduten enpresen ehunekoa | % 24,7 | % 25,5 | % 57,8 |
| Datozen 6 hilabeteetan ekintzailetza-jardueraren bati ekiteko aukera onak daudela pentsatzen duten pertsonen ehunekoa | % 13,3 | % 13,9 | % 31,4 |
| Ekintzailetza-jardueraren bati ekiteko premiazkoak diren gaitasunak dituztela pentsatzen duten pertsonen ehunekoa | % 44,1 | % 50,4 | % 42,4 |
| Porrot egiteko beldurra ekintzailetza-jardueraren bati ekiteko oztopotzat hartzen duten pertsonen ehunekoa | % 52,6 | % 51,6 | % 46,7 |
| Azken 3 urteetan intraekintzailetza-jardueraren bati ekin dioten langileen ehunekoa (2011ko datuak) | % 5,3 | % 6 | % 9,4 |
| Enplegu bat dutela ekintzailetza-jardueraren bati ekin dioten pertsonen ehunekoa | % 4,9 | % 5,5 | % 7,2 |

Ekintzailetzari buruzko adierazle nagusiak laburbiltzen dituen taula (2012)

# 5. EKINTZAILETZA JARDUERARI LAGUNTZEKO EUSKADIKO EKOSISTEMAREN EGOERAREN DIAGNOSIA

## 5.1 Ekintzailetza-ekosistema baten funtsezko faktoreak

Hainbat adituk adierazi dutenez, enpresa berrien edota start-upen kopuruan izan den gorakadak eragin zuzena du eskualde edo herrialde baten epe luzerako lehiakortasuna zehazten duten funtsezko aldagaietan. Hala adierazten dute mundu osoko gobernuek bultzatu dituzten araudiek eta politikek. Berriki egin duten "Startup Ecosystema Report 2012" azterketaren arabera, Estatu Batuek, Kanadak, Australiak, Israelek, Erresuma Batuak, Frantziak eta Alemaniak dituzte munduko ekosistema onenak ekintzailetza sustatzeko; hain zuzen ere, herrialde horiek hamarkadak daramatzate ekintzailetza-jarduera oinarritzat hartuta, beren eskualdeetako produkzio- eta gizarte-eraldaketa lortzeko.

Noski, ez dago ekintzailetza-jarduera bultzatzeko modu bakarra, baina herrialde horien esperientzia oinarri hartuta, errendimendu altuko ekintzailetza-ekosistema orotan funtsezkoak diren zenbait faktore identifikatu ditugu, ikuspegi integral batetik aztertuta. EAEn aplikagarri diren irakaspenak lortu nahian, eta Babson Entrepreneur Ecosystem Projectek proposatutako eskema oinarri hartuta, hauek dira funtsezko faktore horiek:




Ekintzailetza-ekosistema bat garatzeko funtsezko faktoreak

## POLITIKAK

Lidergo ausarta eta gizartearen zilegitasuna izatea faktore ukiezinak baina funtsezkoak dira ekintzailetza-ekosistema baten ezarpena eta bilakaera arrakastatsuak izan daitezen. Ekintzailetza gehien sustatzen den eskualdeetan, administrazio publikoak laguntza sendoa ematen du baina ez du ekosistemaren lidergoa. Liderrak ekintzaileak berak dira, eta sektore pribatu konprometitu baten laguntza dute, bai eta gizarte baten babesa ere, ekosistemaren helburua zilegitzeaz gain egokitzat hartzen duen gizartearena. Epe luzera, eskualde batek lidergoa izateak marka edo sentimendu bat sortzen du, eta horren ondorioz, hau pentsatzen du sektore jakin bateko ekintzaileak: "Hori da nire proiektuari ekiteko lekurik onena".

Administrazio publikoen betebeharra da ekintzailetza bultzatuko duten politika-, lege- eta finantza-esparrua sortzea. Zalantzarik gabe, esparru garrantzitsuenetako bat zerga-politikarekin dago lotuta, hori baita gobernu batek jarduerak sustatzeko edo zigortzeko duen eragile nagusietako bat, bai ekintzaileei dagokienez, bai inbertsiogileei dagokienez. Halaber, ezin dira ahaztu administrazioarekin lotutako politikak; besteak beste, hauek nabarmendu behar dira: enpresa bat sortzeko edota langileak kontratatzeko izapideak erraztea, "leihatila bakarrak" sortzea, eta askotariko programak, funtsak eta diru-laguntzak integratzea.

Azkenik, funtsezkoa da ekosistemako jarduera arrakastatsuak kontuan hartzea eta haiek ahalik gehiena zabaltzea tokian-tokian, eskualdean eta nazioartean; izan ere, beste ekintzaile (eta inbertsiogile) batzuk arriskua hartzera bultzatzeaz gain, iritzi bat sortuko du denen (ikasle, langile eta funtzionario) buruan: "Ekintzailetza oso bide interesgarria da".

## MERKATUA

Faktore horretan eragitea konplexua izan arren, enpresa berri batek haren jarduerari eutsiko dion merkatua behar du; hau da, bezeroak behar ditu. Faktore horrek erabat baldintzatzen du eskualde bakoitzean sortu daitekeen ekintzailetza-ekosistema mota. Horrez gain, beharrezkoa da aurrez merkatu horretan jardunean dauden enpresen industria-ehuna izatea, sinergiak sortzeko, akordioak egiteko edota erosketa- nahiz fusio-aukerak aztertzeko; horrek, noski, eskulan kualifikatua eta dagokion arloan esperientzia duena lortzeko beharra sortzen du.

Teknologiak presentzia handia duen inguruetan, asko dira Interneten eta "e-commerce" deritzon merkataritza elektronikoan (ekintzailetza teknologikoa edo digitala) oinarritutako negozioak. Industria-ingurune batean, negozio-ereduak eta enpresa berriak jarduera horietara bideratuta egon ohi dira (industria- eta produkzio-ekintzailetza), batzuetan ekintzailetza korporatiboko edo intraekintzailetzako prozesuen bidez; zerbitzuen ingurune batean (soziosanitarioak, turistikoak, etab.), berriz, sektore horietan txertatzen diren enpresa berriak sortzen dira (gizarte-ekintzailetza, etab.).

## FINANTZAK

Ekosistema "bertutetsuek" enpresa bakoitzaren behar eta etapetara egokitutako finantzaketa-tresnen aniztasun zabala dute. Enpresa baten bizi-zikloko fase guztietan, behar besteko estaldura izan behar da kapitalari dagokionez, inbertsioak inbutu baten moduan funtzionatzen baitu. Alde batetik, betiko finantzaketa-tresnen bitartez: FFF (family, friends and fools) ekarpenak eta hazi-kapitalaren mekanismoak, besteak beste. Ekintzailetza-ekosistema bat sortzeko funtsezko beste alderdietako bat da inbertsiogile pribatuen behar besteko ehuna izatea, proiektuen lehen faseetan. Inbertsiogile edo "Business Anggels" horiek jarduera hasteko kapitala jartzeaz gain, sektorean dituzten esperientzia, ezagutzak eta kontaktu-sareak jartzen dituzte; inbertsiogile horiek, gainera, sareetan edota elkarteetan bilduta egon ohi dira.

Ekosistema horietan, finantzaketarako eskaintza zabal hori osatzeko, gero eta ugariagoak dira formula berriak, adibidez: banku-erakundeen mikrokredituak, azeleratzaile pribatuak edo publiko-pribatuak, edota inbertsiogile partikularren mikrofinantzaketak (crowdfundinga).

Dena den, eta zentzugabea badirudi ere, fase guztietan behar beste kreditu izatea beharrezkoa den arren, zenbaitetan ez dago gaizki kreditua lortzeko zailtasunak izatea; izan ere, horrela, finantzaketa zinez merezi duten enpresek lortzea bermatzen da. Arau orokortzat balio ez izan arren, oso garrantzitsua da Start Up-etan gastu murriztuaren kultura bultzatzea, lehen faseetan, merkatuan ideia probatu artean; hain zuzen ere, une horretan sartuko gara hurrengo fasean.

## KULTURA

Kultura da eragitea gehien kostatzen den faktoreetako bat, "iraupen-lasterketa" bat baita, epe luzekoa. Dena den, funtsezkoa da ekintzailetza-ekosistema bat diseinatzeko eta ezartzeko. Ekintzailetza-kultura hainbat baliok osatzen dute, adibidez: hobetzeko grina, aniztasunerako irekia izatea, sormena, aldaketekiko eta aniztasunarekiko onarpena, tolerantzia, arriskuak hartzeko prestutasuna, jakin-mina, ekiteko nahia, etab. Horrez gain, beste zenbait gaitasun izan behar dira; esaterako, ekintzailetza sustatzen duen iniziatibazko jarrera, bizitza osoan zehar ikasi behar dena (hainbat arlotan), bizitzeko beste aukera baten gisa. Gainera, balioen garapen hori errazagoa da ekintzailetzak gizartearen zilegitasuna lortzen duenean, bai eta enpresaburuaren funtzioa (eta gizarteari egiten dion ekarpena) aitortzen direnean ere.

## GIZA KAPITALA

Zalantzarik gabe, hezkuntza da ekintzailetzaren eragile nagusietako bat, baina ez unibertsitatekoa soilik. Hainbat ekosistematan adierazi da eskolan, oinarrizko hezkuntzan, eragiten hasteko beharra, haurrak hainbat trebetasunetan trebatuz eta haiengan funtsezko ezagutzak sustatuz, esaterako: finantzen funtzionamendua, jarduerak zuzentzeko trebetasunak (idaztea, jendaurrean hitz egitea, dialektika, etab.), hizkuntzak eta ekintzailetza. Izan ere, aldi horretan planteatzen dira norberak bizitzan izango dituen aukerak (ez zer lanbide izango duen, baizik nork bere konturako lan egingo duen, ekintzailetzan jardungo duen, etab). Beti bultzatu behar da ikuspegi praktiko batetik; hau da, "eginez ikasiz".

Unibertsitatean, planteamendu horiek indartu egiten dira, ikasgai zehatz batzuen bidez, arrakasta izan duten ekintzaileen hitzaldien bidez, edota ikasle baten ekintzailetza unibertsitateko kredituekin baliozkotuz. Garrantzitsua da, halaber, prestakuntza teorikoa indartzea esperientzia praktikoa duten irakasleek emandako eskolen bidez. Bestalde, hutsune handia dago pertsona ekintzaileen prestakuntza espezifikoari dagokionez; askotan, hutsune hori gainditzeko, ekintzailetza-prozesuaren funtsezko alderdiak azaltzen dituzte ekintzailetzan esperientzia praktikoa duten irakasleek, benetan garrantzia duten alderdiak landuz, adibidez: nola aurkeztu proiektu bat inbertsiogile bati, nola eta noiz eskatu dirua, ideien balioa eta gauzapenaren balioa kontrajarriz, etab. Azkenik, funtsezkoa da mundu osoko talentuak bultzatzea eta erakartzea, ikasleak, ikertzaileak, graduatu berriak edota irakasleak izan.

## EUSKARRIA

Errendimendu altuko ekintzailetza-ekosistema baten azken elementu edo eragile gisa, ezin dugu aipatu gabe utzi (oso agerikoa izan arren) ekosistemaren helburuen euskarri izango diren azpiegiturak izateko beharra. Alde batetik, guneak edota mintegiak; hau da, oinarrizko azpiegiturak dira, geroz eta espezializazio handiago dutenak (enpresen tipologiaren, adinaren edota negozio-arloaren arabera). Eta bestetik, ezin aipatu gabe utzi beste elementu hauek: banda zabala eta arrazoizko prezioa duen abiadura handiko konektagarritasuna, bulegoetan eta lurzoruan behar beste leku izatea, energia-hornikuntzaren kostu eta kalitate egokia, eta kalitatezko logistika- eta garraio-azpiegiturak (errepidekoa, trenbidekoa eta itsasokoa), betiere ekosistema horretan garatzen den jarduera-motaren arabera (produkziokoak, zerbitzukoak, teknologikoak, etab.).

Halaber, kontuan hartu beharreko elementuak dira ekintzailetza-ekosistemako enpresei eta eragileei hainbat arlotan sostengua ematen dieten zerbitzu aurreratuak, adibidez: legeria-arloko zerbitzuak, finantza-arlokoak, laguntza teknikoak, aholkularitzak, bitarteko espezializatuak, etab.

Amaitzeko, garrantzitsua da ekintzailetza sustatzeko, gai horri buruz kontzientziatzeko edota lotzeko egiten diren dinamikei eta jarduerei jarraipena ematea; arreta berezia jarriko zaie gobernuz kanpoko eragileei,

dinamika horiek zuzendu baititzakete, bai eta gainerako eragileak mugiarazi ere (hitzaldien, topaketen, komunikazio-argitalpenen edota lehiaketen bidez), ekosistema aktibo eta produktibo bat bultzatzen duten dinamika diren aldetik.

Ekintzailetza-ekosistema baten funtsezko faktoreen azterketa hau egiteko, Babson Entrepreneur Ecosystema Report eta Startup Ecosystem Report 2012 hartu dira oinarri. Azken txosten honetan,nazioarteko 20 ekosistema aurreratuenak aurkeztu dira (Asia salbu), funtsezko faktore batzuen arabera:

| Ecosystem | Ranking | Startup Output Index | Funding Index | Performance Index | Talent Index | Support Index | Mindset Index | Trendsetter Index | Differentiation from SV Index |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Silicon Valley | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| Tel Aviv | 2 | 2 | 1 | 12 | 5 | 5 | 9 | 17 | 18 |
| Los Angeles | 3 | 4 | 6 | 2 | 3 | 13 | 11 | 4 | 11 |
| Seattle | 4 | 19 | 7 | 6 | 2 | 4 | 6 | 11 | 14 |
| New York City | 5 | 3 | 4 | 8 | 12 | 9 | 8 | 7 | 8 |
| Boston | 6 | 10 | 1 | 7 | 7 | 8 | 7 | 5 | 20 |
| London | 7 | 7 | 5 | 10 | 9 | 2 | 3 | 14 | 17 |
| Toronto | 8 | 6 | 9 | 3 | 10 | 3 | 15 | 12 | 5 |
| Vancouver | 9 | 13 | 12 | 9 | 4 | 14 | 2 | 9 | 19 |
| Chicago | 10 | 8 | 15 | 5 | 14 | 7 | 13 | 18 | 9 |
| Paris | 11 | 14 | 13 | 4 | 17 | 6 | 12 | 15 | 6 |
| Sydney | 12 | 5 | 14 | 16 | 6 | 12 | 16 | 1 | 3 |
| Sao Paulo | 13 | 9 | 10 | 15 | 19 | 11 | 5 | 16 | 4 |
| Moscow | 14 | 16 | 19 | 18 | 11 | 10 | 14 | 8 | 2 |
| Berlin | 15 | 15 | 11 | 13 | 13 | 20 | 18 | 5 | 16 |
| Waterloo | 16 | 11 | 16 | 14 | 16 | 17 | 17 | 10 | 13 |
| Singapore | 17 | 18 | 8 | 19 | 8 | 16 | 20 | 19 | 12 |
| Melbourne | 18 | 12 | 17 | 20 | 15 | 18 | 19 | 3 | 15 |
| Bangalore | 19 | 17 | 18 | 17 | 18 | 15 | 10 | 20 | 10 |
| Santiago | 20 | 20 | 20 | 11 | 20 | 19 | 4 | 13 | 7 |

Munduko 20 ekintzailetza-ekosistema aurreratuenen sailkapena

## 5.2 Ekintzailetza-ekosistemaren diagnosi konparatua (adituen balorazioa)

2012ko GEM txostenean,ekintzailetza-jarduerari laguntzeko Euskadiko ekosistemari buruz 36 adituk egindako balorazioa txertatu da.

Azken 8-10 urteetan balorazio horrek izan duen bilakaera kontuan hartuta, adituek zenbait faktoreren inguruan egindako balorazioak eta Espainiako estatuko batezbestekoarekiko alderaketa adierazi dira beheko grafikoan.




Ekintzailetza-ekosistema bat garatzeko funtsezkoak diren zenbait faktoreren balorazioa

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, ekintzailetza-ingurunea oso gutxi aldatu da azken bi urteetan. Dena den, adituen iritziz, 2011 eta 2012 artean, enpresa berrietarako eta hazten ari diren enpresetarako finantza-laguntza bereziki gutxitu da; aldi berean, bereziki ugaritu dira ekintzaileentzako lan-azpiegiturak eta azpiegitura komertzialak. 2012an, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ekintzailetza eta ekintzaileek jasotzen duten finantza-laguntza izan dira adituek gutxien baloratu dituzten ingurune-baldintzak; balorazio onena, berriz, baldintza hauek jaso dituzte: azpiegitura fisikoak eta zerbitzu-azpiegiturak erabiltzeko aukera, gobernuak sustatutako programak, eta lan-azpiegiturak eta azpiegitura komertzialak erabiltzeko aukera.




EAEko ekintzailetza-ingurunearen balorazioa, 2011n eta 2012an

Beste autonomia-erkidegoekin alderatuz, EAEko ekintzailetza-inguruneak batezbestekoa baino balorazio hobea lortu du azpiegitura fisikoak eta zerbitzu-azpiegiturak erabiltzeko aukerari dagokionez, bai eta enpresak sortzeko gobernu-programei dagokienez ere (hurrengo taulan laburbilduta ikus daiteke).

EAE beste autonomia-erkidegoetako batezbestekoaren gainetik dago ekintzailetza-inguruneko beste zenbait baldintzatan ere, baina ez aurrekoetan bezain nabarmenen; besteak beste, baldintza hauek aipatu behar dira: ekintzailetza sustatzen duten gizarte- eta kultura-arauak, I+Bren maila eta transferentzia teknologikoa, burokrazia eta araudiak gutxitzea xede duten gobernu-politikak, eta barne-merkatuaren irekiera, ez baitago inongo oztoporik.

Bestalde, EAE gainerako erkidegoen maila berean dago ekintzailetza-inguruneko baldintza hauetan: enpresa berriei ematen zaien aukera lan-azpiegiturak eta azpiegitura komertzialak erabiltzeko, enpresak sortzeko eta hazten jarraitzeko finantza-laguntza, eta ekintzailetza-jarduerari lehentasuna eta babesa ematen dioten gobernu-politikak.

Azkenik, ekintzailetza-inguruneko baldintza hauei dagokienez, EAE batezbestekoaren oso azpitik dago: hezkuntza-maila guztietako ekintzailetza, eta barne-merkatuaren irekiera, haren dinamismoari dagokionez.

| | |
|---|---|
| EAEk batezbestekoa baino balorazio nabarmen hobea lortu duen baldintzak | - Azpiegitura fisikoak eta zerbitzu-azpiegiturak erabiltzeko aukera<br>- Gobernu-programak |
| EAEk batezbestekoa baino balorazio apur bat hobea lortu duen baldintzak | - Gizarte- eta kultura-arauak, eta gizartearen babesa<br>- I+B eta transferentzia teknologikoa<br>- Gobernu-politikak: burokrazia eta araudiak<br>- Barne-merkaturako oztopoak |
| EAEk batezbestekoaren antzeko balorazioa lortu duen baldintzak | - Lan-azpiegiturak eta azpiegitura komertzialak erabiltzeko aukera<br>- Finantza-laguntza |
| EAEk batezbestekoa baino balorazio nabarmen okerragoa lortu duen baldintzak | - Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ekintzailetza<br>- Erdi- eta goi-mailako hezkuntzako ekintzailetza<br>- Barne-merkatuaren dinamismoa |

EAEko ekintzailetza-ingurunearen balorazioen laburpena

## 5.3 Ekintzailetza-ekosistemaren diagnosia (ekintzaileen balorazioa)

Adegiko Ekintzaile Foroa lankidetza-proiektu bat da, eta bertan, 46 ekintzailetza-proiektuk norberaren proiektua eta negozio-ideia gauzatzeko bizi izan dituzten esperientziak eta dituzten ezagutzak partekatzen dituzte. Hain zuzen ere, foro horrek Gipuzkoako ekintzailetza-ekosistemaren diagnosi bat aurkeztu zuen 2012ko abenduan, eta bertan, lehentasuneko 5 lan-ildo zehaztu eta ekintzailetza-ekosistema hobetzeko beharrezko diren 5 erreforma proposatu zituzten. Zehazki, elementu hauek identifikatu zituzten:

| LEHENTASUNEKO LAN-ILDOAK |
| --- |
| - Kultura eta gizartean dagoen giroa; helburua da gizartean ekintzailetzaren aldeko giroa sortzea, aukera oinarritzat duen ekintzailetza aurrera egiteko posibilitate bihurtzeko.<br>- Administrazio-jarduerak erraztea, eta egun, ekintzaileen zerbitzura dauden eragileen eta programen kopuru handia optimizatzea.<br>- Lidergo publiko eta pribatua sustatzea, enpresa-sektorea ekintzailetza-prozesuan esku hartzera bultzatuz.<br>- Ekintzaileek prestakuntza egokia izatea hezkuntza- eta prestakuntza-maila guztietan; hala, gai izango dira zer aukera dauden jabetzeko, arriskua eta ziurgabetasun-egoerak kudeatzeko, eta dituzten baliabideak antolatzeko.<br>- Giza kapitalaren mugikortasuna eta lotura; hau da, ekintzaileen arteko lankidetza sustatuko da, talentudun jendea EAEra erakarriz eta bertan atxikiz, eta profesionalen mugikortasuna sustatuz. |
| PROPOSATUTAKO HOBEKUNTZAK |
| - Burokrazia gutxitzea, proiektuak ez daitezen ez atzera ez aurrera gelditu, egin beharreko hainbat eta hainbat kudeaketa direla eta.<br>- Zergak eta administrazio publikoak; hau da, zergak modu eraginkorragoan kudeatzea, enpresek likidezia gehiago izan dezaten iraunkortasunean eta hazkundean inbertitzen jarraitzeko.<br>- Finantzaketa. Legeria aldatu behar da, finantzaketa-bide berriak sortzeko eta eragileen irudia hobetzeko: Business Angel-ak, inbertsio-funtsak....<br>- Giza kapitala; talentuak erakarri eta bertakoak atxikitzea lortu behar da, alde batetik, eta bestetik, intraekintzailetza sustatu behar da (askotan ahaztu ohi da).<br>- Erantzukizun mugatua. Lege-elementu hori beharrezkoa da ekintzaileen ondare-erantzukizuna mugatzeko, egungo eta etorkizuneko (bigarren aukera) arriskuarekiko herra gutxitzea eragingo bailuke. |

## 5.4 Euskadiko ekosistemaren berrikuspen kritikoa

Ekosistemako zenbait funtsezko faktoretan sakondu nahian, eta adituen eta ekintzaileen balorazioa oinarritzat hartuta, Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Euskadiko Ekosistemaren ezaugarri hauek aipa ditzakegu:

1. Eragile publiko ugariren eta zenbait eragile pribaturen konkurrentzia, ekintzaileari laguntza-zerbitzuak emateko.

   Sistema abian jarri zenetik, askotariko administrazio publikoek (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiek) esku-hartze irmoa izan dute ekintzailetza-prozesuaren hainbat fasetarako programak diseinatzen eta ezartzen; horrez gain, azpiegituren eta profesionalen sare handia jarri dute eskura, ekintzaileei laguntzeko eta zerbitzuak emateko.

   Beraz, sistema oso bat dago egun, eta bertan eragile ugarik hartzen dute parte; eragile horiek ekintzaileei kapilaritatea eta gertutasuna transmititzeaz gain, hainbat funtzio betetzen dituzte (programen eta ekintzen diseinua, finantzaketa, zerbitzuen prestazioa, bitartekaritza, etab.), eta espezializatuz joan dira, gainera, ekintzaile-mota desberdinen edota lurraldearen premia berezien arabera, besteak beste.




Oharra: Eranskinetan, eragile horiek eta beste eragile batzuek gauzatutako programak eta jarduerak zehaztu dira.

Sisteman parte hartzen duten eragileen mapa

Dena den, zenbait hobekuntza-arlo proposatu dira, benetako ekintzailetza-ekosistema lortzeko bidean aurrera egiteko.

Alde batetik, sisteman parte hartzen duten eragileen kopuru handia dela eta, geroz eta beharrezkoagoa da eragile publikoen arteko nahiz eragile publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta lankidetza, eraginkortasun ezeko egoerarik eta gainezartzerik ez izateko, ez eta eragileen arteko lehiarik ere (zenbaitetan, ekintzaileak jasotzen dituen laguntzak aldatu egin daitezke apur bat pertsona hori bizi den lurraldearen arabera).

Bestalde, eragileen arteko konkurrentziak eta askotariko programak zabaltzeak/komunikatzeak nahastea eta sistema ulertzeko zailtasunak eragin diezazkioke ekintzaileari ("nor da nor eta zer eskaintzen dit"), nahiz eta azken urteetan ahalegin berezia egin den sisteman sartzeko bidea ordenatzeko.

Amaitzeko, hausnarketa bat egin behar da, EAEk sektore publikoko erakundeen beste egitura bat diseinatzeko hasitako erronka aintzat hartuta; egitura horren oinarri izango dira egituren neurriaren egokitzapena, baliabide-erabileraren arrazionalizazioa, eta ahaleginen eta eragileen berrantolaketa eta ardaztea, eragile horiek ematen dituzten zerbitzuen kalitatearen eta horiek duten eraginaren arabera.

2. Ekintzailetza-jarduerari laguntzeko sistema zabaltzeko baliabideen ugaritasuna.

2012. urtean ekintzailetza-jardueretarako emandako laguntzetan eragina izan dute Euskadiko administrazio publikoen aurrekontuetan izandako murrizketek; dena den, 2001-2011 aldian, EAEn ekintzaletza-jarduerari laguntzeko sistema osatzen duten eragileek handitu egin zituzten urtez urte ekintzailetza-jarduerari laguntzeko askotariko azpiegituretarako, programetarako eta ekintzetarako esleitutako baliabide publikoak.

Hala eta guztiz ere, gobernu-politiken balorazioa nahiko baxua da; agian, ekintzailetza-jarduerarako laguntzak lehenesten dituztelako (balioetan heztearen edota bestelako lehentasunen gainetik). Esaterako, leihatila bakarren bidez ahalegin berezia egin den arren, adituek uste dute administrazio-sistemaren konplexutasunak (araudiak, enpresa eratzeari edota enpresa-jarduera gauzatzeari lotutako zergak eta burokrazia) oztopo izaten jarraitzen duela oraindik EAEn enpresak sortzeko eta haien hazkundea bultzatzeko; dena den, ezin da ahaztu Euskadiko administrazio publikoek gai horretan jarduteko duten aukera mugatua dela zenbait kasutan.

Euskadiko administrazio publikoek beste erakunde batzuek (Espainiar estatukoek nahiz nazioartekoek) sustatutako ildoetara eta araudietara lerratu behar dute eta haiek bete behar dituzte, ezinbestean.

3. Programa ugari; zehazki, enpresak sortzeko programak dira nagusi.

Lehenik eta behin, adierazi behar dugu ekintzailetzari laguntzeari dagokionez aitzindari diren herrialdeen maila berean dagoela Euskadiko sistema bertan eskura dauden tresnen eta programen kopuruari, aukerari eta espezializazio-mailari dagokienez.

Mapa batean txertatu dira sisteman erabiltzen diren hamaika programa eta tresna (*ikus hurrengo orrialdeko mapa*), eta beraz, bertan ikus ditzakegu zenbaitetan sor daitezkeen gainezartzeak eta horiek eragin ditzaketen nahasteak. Horrez gain, agerian gelditzen da enpresak sortzeari askoz ere laguntza handiagoa ematen zaiola beste faseei baino, hau da: gerora enpresak sendotzeari (hazkundea) eta aurrez egiten den sentsibilizazio-lanari.

Mapa hori ikusita, laguntza-programak lehenesten eta segmentatzen jarraitzeko aukera proposatzen da. Ildo horretan, sistemak ezinbestekoa izango du, etorkizunean, elementu hauek ondo bereiztea:

- Askotariko ekintzaileak: ekintzailetza berritzailea (profil zientifiko eta teknologikoak dituzten pertsonak) eta ekintzailetza inklusiboa (nork bere negozioa martxan jartzeko zailtasun handiagoak dituzten pertsonak).
- Ekintzailetza-prozesuaren etapak; indar berezia jarriko zaie enpresak sendotzeari eta balioak transmititzeari.

- Askotariko finantza-tresnak edota euskarriak; esaterako, zerga-pizgarriak ezarriko dira enpresak sortzeko, proiektu tekniko eta zientifikoei emandako laguntza-zerbitzuetan arriskuaren kudeaketa aztertuko da, eta norberaren enplegagarritasunari laguntzeko azpiegiturak hobetuko dira.
- Ingurune desberdinak; besteak beste, intraekintzailetza sustatuko da, ingurunea eraberritzeko eta gaztetzeko formulatzat.

## Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako arloek garatutako egungo programen mapa



4. Geroz eta ahalegin handiagoa hezkuntza- eta prestakuntza-etapetan ekintzailetza-, sormen- eta berrikuntza-balioak transmititzeko.

   Egun, badira EAEko hezkuntza-sisteman (unibertsitatean nahiz unibertsitatez kanpoko hezkuntzan) ekintzailetzarekiko sentsibilizazioa sustatzeko ekimenak (adibidez, Egin eta Ekin, Hasi eta Hazi, eta Kosmodisea); hala ere, adituen iritziz, ekimen horiek ez dira nahikoa, eta beraz, hurrengo belaunaldiei ekintzailetzaren balioak sustatzen jarraitzea proposatu dute.

   Horretarako, beraz, ekintzailetza sustatu behar da, bai enpresa-kudeaketari buruzko edukiak prestakuntza-jardueretan txertatuz, bai ekintzailetza-prozesuan eragiten duten oztopo psikologikoak eta kulturalak gutxituz, hezkuntza-maila guztietan eta enpresa-trebakuntzako programetan.

5. Ezagutzaren transferentzia mugatua eragile zientifiko eta teknologikoen aldetik.

   EAEk I+B arloan ahalegin handia egin arren, azken urteetan adituek ezagutza transferitzeari buruz egindako balorazioa ez da bereziki nabarmena izan.

   Balorazio apal horrek, ordea, azalpen bat izan dezake; hau da, EAEn, I+B arloan inbertsio handia egin izan den arren, ikerkuntzen eta garapenen emaitzen ustiapena ez da izan hain nabarmena.

   Hain zuzen ere, prozesuko atal horretan lagundu behar du ekintzailetza-jarduerak, ezagutza transmititzeko bitartekotzat.

6. Finantza-laguntza mugatua enpresa berrientzat eta hazten ari diren enpresentzat.

   EAEko ekintzailetza-ekosisteman, enpresa berrietarako eta hazten ari diren enpresetarako gobernu-programak daude indarrean; hain zuzen ere, programa horiek dira ekosistema horretako indarretako bat da. Egun bizi dugun egoeran, leheneste hori enplegua sortzeko eta ekonomia berrindartzeko helburuarekin lotu daiteke.

   Hala eta guztiz ere, ekimen horiei ematen zaien finantza-laguntza da adituek okerren baloratu duten baldintzetako bat.

   Balorazio horrek argi islatzen du edozein enpresak finantzaketa-iturri berriak lortzeko bizi duen egoera zaila, krisi ekonomikoko aldien ezaugarri den ziurgabetasun-egoera dela eta.

   Hala eta guztiz ere, azken urteetan ahalegin berezia egin da EAEn enpresa berrietarako finantza-laguntza hobetzeko: besteak beste, ekimen hauek aipa ditzakegu: arrisku-kapitaleko erakundeek enpresa berrietan inbertitzeko erakutsi duten interesa, Business Angel-eko euskal sareak sortzeko eta horiek funtzionamenduan jartzeko dirulaguntzak, eta baterako inbertsio publiko-pribatuen ereduen sorrera, enpresa berrien hazkundea finantzatzeko.

   Horrez gain, Euskadiko ekintzaileei eta enpresa txikiari laguntzeko legean (16/2012 Legean) Business Angel inbertsiogileak eta beste zenbait neurri aipatzen dira, enpresa-proiektuetarako finantzaketa eta likidezia indartzeko.

7. Tokian tokiko enpresei laguntzeko neurrien nagusitasuna, nazioarteko ikuspegia edota ikuspegi globala dutenen aurrean

   Egungo sistemak gero eta gehiago sustatu ditu nazioarteko ikuspegia edota ikuspegi globala duten enpresak, baina kasu gehienetan, joera hori "nahia" izan da, ez benetako joera. Sistemak ekintzailetza-jardueraren hasieratik bertatik saiatu behar du nazioartekotzearekin lotutako balioak eta kontzeptuak txertatzen, bai eta enpresa-lehiakortasuna bultzatzen duten beste zenbait faktore ere (adibidez, berrikuntza). Helburua da ekintzailea bera ez sentitzea behartuta ekintzailetza-jarduerari laguntzeko programetatik garapen ekonomikorako programetara "salto" egitera.

8. Ekintzailetzak (berritzailea eta inklusiboa) eta ekintzaileek eraldaketa eragiletzat duten funtzioak (produkzio- eta gizarte-arloetakoa, hurrenez hurren) gizartean duten aitorpen urria

   Ekintzaileen irudiari eta haiek gizartean duten aitorpenari dagokienez, asko aurreratu da azken urteetan, baina hala ere, ez dira iritsi beste gizarteetan duten maila lortzera, haietan ekintzaileak eredu bihurtzen baitira.

   Horrez gain, gizartean geroz eta aitortza handiagoa izate hori kontrajarri egiten zaio enpresaburuen estigmatizazioari, eta horren ondorioz, dikotomia kaltegarria sortzen da.

   Dena dela ere, ekonomia-jarduerako ekimen bat hasten duen pertsona batek gizartean duen irudia hobetzeko, lehenik eta behin, zenbait neurri bultzatu behar dira, EAEko ekonomiaren eta gizartearen eraldaketan pertsona horiek duten funtsezko garrantziaz gizartea sentsibilizatzeko; horretarako, produkzioaren (industria-, berrikuntza- eta lehiakortasun-politikak) eta gizartearen (hezkuntza- eta enplegu-politikak) eraldaketan eragiten duten programa batzuk jarri behar dira abian, eta horiekin sinergiak eraiki.

9. Emaitza eskasak egindako ahaleginarekin alderatuta.

   Hainbat erakundek ekintzailetza-jarduerari laguntzeko baliabideak (ekonomikoak nahiz giza baliabideak) jarri arren, sortzen diren enpresen neurria eta kopurua urria da nazioarteko beste sistema batzuekin alderatuta.

   Horrez gain, jarduera publikoen eragin eraginkorra neurtzeko mekanismoak, bai eta enpresa-ehunari entzutekoak ere, indartzeko eta sistematizatzeko beharra aipatu behar da, ebaluazioei erantzunez sistemak doikuntzak egiteko.

10. Euskadiko ekosistemaren irudi eta proiekzio eskasa nazioartean

    Sistemak aitorpen zabala du Espainiar estatuan, azken hamarkadetan eraldaketaren motortzat izan duen bilakaera dela eta; nazioartean, ordea, ez du lortu ekintzailetza-eskualde erakargarrienetako bat izatea. Etorkizunera begira, kontuan hartzeko jarduerak izan daitezke Euskadiko ekosistemaren ahalmenak sustatzea eta nazioarteko beste errealitate eta ekosistema batzuekin lotzea.

# 6. PLANAREN EDUKIAK

Hurrengo kapituluetan, Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakunde Arteko Planaren eduki nagusiak azalduko dira.




Planaren edukiaren eskema

## 6.1 Planaren ikuspegia

Zer ikuspegi dute plan honek eta bertan esku hartzen duten erakundeek? Euskadin gizarte ekintzailea izatea. Hau da, pertsonek, norbanako gisa edota besteekin lankidetzan, eta beharrak edota izan dezaketen aukerak bultzatuta, ideiak jarduera praktiko bihurtzeko jarduten duten gizartea lortu nahi da; hala, emaitza onenak lortuko dituzte, ziurtasunik gabeko gizarte-, kultura- edota ekonomia-ingurunean. Herritarren artean aitorpen eta onarpen zabala duen ekintzailetza-jarduera ekonomia- eta gizarte-eraldaketaren benetako eragile bihurtzen den gizartea.

Ikuspegi horrek, noski, ezinbesteko du funtsezko bi elementu hauek bat egitea: **pertsona ekintzaileak eta haien ekintzailetza-jarduera babestuko duen ingurunea.**

Alde batetik, ezaugarri berezi batzuk dituzten gizon-emakumeak behar dira, ezagutza, ezaugarri eta jarrera jakin batzuk dituztenak (sormena, tolerantzia, hobetzeko grina, arriskuak hartzeko ausardia, jakin-mina, aldaketak eta aniztasuna onartzeko gaitasuna, ikasteko nahia, etab.), une eta ingurune (gizartea edo enpresa-mundua) bakoitzean dauden beharrak eta aukerak hautemateko beharrezko direnak eta "ekintzara pasatzera" bultzatzen dituztenak, jarduera eta proiektu ekintzaileak lortuz (enpresa bat sortzea xede dutenak ala ez). Planean, bereziki azpimarratzen da "ekintzaile" terminoa, eta "enpresa-proiektu baten hainbat garapen-fasetan konpromisoa duen pertsona" gisa definitzen da. Dena den, plan honen ikuspegi orokorraren arabera, pertsona guztiok izan gaitezke ekintzaile; hau da, gai gara hausnarketa, sormena eta berrikuntza garatzeko eta gauzatzeko hainbat arlotan (pertsonala, gizartekoa nahiz profesionala).

Bestalde, gizarte-ingurune egokia izan behar da, pertsona horiek aitortu eta balioetsiko dituena, bai eta ekintzailetza-jarduerari laguntzeko sistema bat ere, etengabeko bilakaera izango duena, ekimen berriek etorkizunean arrakasta izatea bermatzeko beharrezko diren laguntzak, babesa, gaitasunak eta eskumenak ezartzeko; hau da, ondasun eta zerbitzu berriak diseinatuko dira, ekonomia-jarduera errentagarria sortzeko eta/edo gizartearen ongizatea hobetzeko.

## 6.2 Planaren helburuak

Zehaztutako ikuspegiaren baitan, helburu estrategiko eta operatibo hauek bereiz ditzakegu:

Helburu estrategikoak:

- Ekintzailetzaren kultura eta balioak sustatzea, gizartearen maila orotan eta bizitzaren aro guztietan, iraganean gure herrialdearen bereizgarri zen ekintzailetza-pentsaera berriro aktibatzeko.
- Baliatutako ideien eta merkatura iritsitako ekimen berrien kopurua handitzea, enplegua sortzeko eta ekonomia-jarduera bultzatzeko.
- Euskadiko enpresa berrien hazkundea, sendotzea eta transmisioa (halakorik bada) bultzatzea.
- Apustu bereizgarri bat egitea intraekintzailetzaren edo ekintzailetza korporatiboaren alde, lanpostuak eta ekonomia-jarduera sortzeko duen gaitasuna dela eta.
- Ekintzailetza-jarduerari laguntzeko Euskadiko egungo ekosistema osatzen duten askotariko politikak, tresnak eta baliabideak bateratzen ahalegintzea.

Helburu operatiboak:

- EAEn, ekintzailetzaren etorkizunari buruzko ikuspegi bateratua eta osoa ezartzea, askotariko alderdiak kontuan hartuz (ekintzailearen profila, motibazioak, ekintzailetza-prozesuaren faseak, ekintzailetzarako ekimenen tipologia, ekintzailetza-inguruneak, etab.).
- Ekintzaileei laguntzen parte hartzen duten hainbat erakundek eta eragilek bultzatzen dituzten politikak eta laguntza-programak ordenatzea, osatzea eta zerrendatzea, geroz eta osatuagoa, hurbilagoa eta ezagunagoa izango den ekintzailetza-jarduerari laguntzeko Euskadiko ekosistemaren baitan.
- Laguntzeko ekosistemaren eraginkortasunaren eta benetako eraginaren eskakizunak indartzea, ekintzaileei entzunez, sistema aldian-aldian ebaluatuz eta egokitzapen-neurriak diseinatuz.

## 6.3 Planaren eragina

Plan honek EAEko ekintzailetzaren etorkizunari buruzko ikuspegi adostua eta osoa ezartzen duela aintzat hartuta, Planaren eraginean edo ekintza-eremuan aldagai edo alderdi hauek sartuko dira:

- Ekintzailearen profila eta ingurunea: Norentzat da plan hau? Pertsona ekintzaileentzat funtsean, haien tipologia guztiak kontuan hartuta: ekintzailetzan esperientzia duten edota esperientziarik ez duten pertsonak, oinarrizko eta goi-mailako hezkuntzako ikasleak, enpresaburuak, laguntza berezia behar duten gizarteko segmentu espezifikoak (emakumeak, langabezian dauden gazteak, pertsona helduak, eta gizarte-bazterketaren arriskuan dauden pertsonak), gizartea oro har, etab. Kontuan hartu behar da, halaber, ekintzailetza-jarduera hori zer ingurunetan gauzatu daitekeen; hau da, ingurune pribatuan edo norbanakoaren ingurunean, hezkuntza-testuinguruan, gizarte-testuinguruan edota lan-testuinguruan. Azken horri dagokionez, Planak garrantzi berezia emango dio, ekimen sendoak, babestuak eta etorkizunekoak garatzeko duen ahalmenagatik.
- Motibazioa eta ekintzailetza-ekimenen tipologia: Planaren arabera, pertsona batek bi motibazio nagusi ditu jarduera bati ekiten dionean: beharra (lana bilatzekoa, ekintzailetza inklusiboa bultzatuz) eta aukera (aberastasuna sortzekoa, ekintzailetza berritzailea bultzatuz). Horrez gain, kasu bakoitzean emandako laguntza-, zerbitzu- eta arreta-mota bereizten ditu. Motibazio horiek, bestalde, ekimen-mota hauek sortzen dituzte: batetik, autoenplegu-ekimenak eta/edo ETEak (beharra), premiak eragindakoak eta negozio bat sortzea xede dutenak; eta bestetik, enpresa-ekimenak (aukera), hasiera batean ikuspegi zabalagoa eta anbizio handiagoa dutenak (hazkundean, errentagarritasunean, enplegua sortzeko xedean, iraupenean, etab.).
- Ekintzailetza-prozesuaren faseak eta iraupena: Planak ekintzailetza-jardueraren ziklo osoa hartzen du kontuan, “ideia sortzen denetik, merkaturatzen den arte”, negozioa transmititzen den arte (halakorik bada); hau da, proiektua edo ideia garatzea, sozietatea eratzea, ekimena abian jartzea, eta merkatuan sendotzea eta haztea.

Prozesuaren iraupenari dagokionez, beraz, Planak epe laburreko, epe ertaineko eta epe luzeko ikuspegiak hartzen ditu kontuan. Epe laburrari dagokionez, egungo testuinguruak enplegua sortzeko eragileak aktibatzera behartzen du; hain zuzen ere, ekintzailetzak (bereziki, inklusiboak) funtzio garrantzitsua du egoera horretan. Epe laburrera begira, ekintzailetza berritzaileari eman behar zaio laguntza, askotariko tresnak eta programak baliatuz; besteak beste, ekintzailetza-ekimenak sendotzeari eta hazteari ematen dio garrantzia. Epe luzeari dagokionez, arreta berezia jarri behar zaio ekintzailetza-kultura eta -balioak gizartean eta ikasleengan zabaltzeari edo "ereiteari".

- Laguntza-ekosistemaren faktoreak. Azkenik, Planean ekintza zehatzak daude, ekintzailetza-ekosistema orotako funtsezko sei faktoreak aktibatzea eta hobetzea xede dutenak, hots: ekintzailetza-kultura; giza kapitala; merkaturatzea; laguntza-politikak eta -araudiak; azpiegiturak eta euskarri-zerbitzuak; eta finantzaketa.




Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakunde Arteko Planaren eragina azaltzen duen irudia

## 6.4 Planaren jardun-eremuak

Planaren helburuak eta eragina aintzat hartuta, lehentasuneko bost jardun-eremu zehaztu dira ekintzailetzaren arloan; jardun-eremu horiek hurrengo orrialdeetan azaldu dira xehetasunez.

1. Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak. Ekintzailetzarako ekimen berri bat sortzeko beharrezko diren lehen etapak eta urratsak, berehalakoak, hartzen ditu kontuan Ekintzailea identifikatzea, ideia zehaztea, proiektua egitea, eta sozietatea eratzeko urrats eta izapide guztiak egitea, hautatutako egitura juridikoaren arabera. Finantzaketa lortzea eta ekimena non jarri zehaztea ere oinarrizko urratsak dira sortze-prozesuan. Epe laburrera begiratzen da.

2. Hazkundea, sendotzea eta transmisioa. Jardun-eremu honetan, sortutako ekimenaren bizi-zikloaren etapak sartzen dira; hau da, lehen hilabeteetan abian jartzetik edo hazten hastetik, epe laburrera ekimena sendotzera arte. Enpresa bat sendotzea da hasierako tiraldia gainditzea eta merkatuan jarraitzea modu iraunkorrean, finantzaketa-eragileak, kokapena, nazioartekotzea, berrikuntza, etab. aintzakotzat hartuta. Azkenik, enpresa transmititzea edota saltzea ere jardun-eremu honetan sartzen da. Epe ertaineko (edo luzeko) ikuspegia da.

3. Ekintzailetzaren kultura eta balioak. Ekintzailetza sustatzeko ekintzak hartzen ditu kontuan, bai eta ekonomia-, enpresa- eta ekintzailetza-arloan prestakuntza jasotzeko ekintzak ere, hainbat hezkuntza-fasetan (oinarrizkoa eta goi-mailakoa). Epe luzeko ikuspegia da.

4. Intraekintzailetza (edo ekintzailetza korporatiboa). Erakunde publikoetan nahiz pribatuetan gauzatzen den edozein motatako ekintzailetza-jarduera da, erakunde horrek lehiarako abantailak izan ditzan edota aurrez dituen abantailei eutsi diezaion, baliabideak egoki erabiliz eta ekintzaileek ideia berritzaileak identifikatzea eta/edo ustiatzea errazten duen ingurunea baliatuz. Oro har, intraekintzailetzak lotura estua du jarduera hauekin: produktuaren/zerbitzuaren estrategia berritzea; negozio-unitate edota produktu-gama berri bat merkaturatzea; produktu-kontzeptu berriak garatzea; eta produktu edo zerbitzu baten ezaugarri berriak sortzea.

5. Laguntza-ekosistemaren integrazioa (politikak, azpiegiturak eta finantzaketa). Ekintzailetza-jarduerari laguntzeko ekosistemaren funtsezko faktoreak antolatzeko eta integratzeko ahaleginak biltzen ditu. Beste jardun-eremuen osagarri eta zeharkako den jardun-eremu honetan, arlo hauei jartzen zaie arreta: ekintzailetzari laguntzeko politikak eta programak zehaztea eta koordinatzea; laguntzeko azpiegiturak kudeatzea eta koordinatzea; eta enpresetarako eta ekintzaileentzako hainbat finantzaketa-tresna sortzea eta kudeatzea, ekintzailetza-prozesuaren fase bakoitzaren arabera bereizita.




Ekintzailetza-arloko lehentasuneko bost jardun-eremuei buruzko irudia

## 6.4.1 Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak



Helburu estrategikoa: baliatutako ideien eta abian jarritako ekintzailetza-proiektu berrien kopurua handitzea.

Bigarren mailako helburuak:

- Ekintzaileak izan daitezkeen ekimenak zehazteko eta ideiak sortzeko prozesua hobetzea.
- Ekintzailetza-sisteman sartzeko bidea erraztea, eta ekintzailea bideratzea, hark duen motibazioaren arabera (beharra edo aukera).
- Pertsonen (bereziki, gazteen) autoenplegagarritasuna sustatzea, mikroenpresa berriak sortzea eta bertako enpleguari eustea errazten duten baliabideen bitartez (gaikuntza, finantzaketa, orientazioa eta babesa).
- Ideiak edo proiektuak lantzen eta bideragarritasun-plana egiten laguntzea.
- Zientzia- eta teknologia-sistematik enpresa berriak sortzera egin beharreko transmisio teknologikoa erraztea.
- Ekintzaileari aurrera egiten laguntzea: sozietatea eratzeko edota autonomoetan alta emateko prozesua gauzatzen, dirulaguntzen izapideak egiten, finantzaketa lortzen, etab.
- Ekintzailetza-proiektu berriak sustatzea beren negozioa abian jartzeko oro har zailtasun handiagoak dituzten taldeen artean (gazteak, langabeak, adinean aurrera dauden pertsonak, eta gizarte-bazterketaren arriskuan daudenak), bai eta bereziki egoera zaila bizi den lurraldeetan ere.
- Emakumeen ekintzailetza-jarduerei laguntzeko ekintza positiboak sustatzea.

Ekintza-mapa:



Aribideko ekintza nabarmenak:

- Ekintzaileari sisteman sartzen laguntzeko, informazioa emateko eta hasierako laguntza emateko bideak ("Euskadi Emprende" webgunea, leihatila bakarrak, eta aholkularitzarako eta izapideak hasteko guneak).
- Enpresak sortzean, ideia lantzean eta bideragarritasun-plana egitean babes eta laguntza osoa emateko zerbitzuak (Txekin, Txekintek, Urratsbat, DEMA programa).
- Enpresak abian jartzen laguntzeko programak, ezagutzen eta teknologien transmisioan oinarritzen direnak, unibertsitatean sortuak (Inizia), Lanbide Heziketako zentroetan (enpresa berritzaileak sortzeko programa), zentro teknologikoetan, etab.
- Ekintzailetza-jarduerari eta autoenpleguari laguntzeko bekak, ideia-lehiaketak, sariak eta bestelako formulak, bereziki gazteei zuzendurikoak (Gazte ekintzaileentzako bekak, Junior kooperatiba, Gaztempresa...).
- Sektore espezifikoetarako programak (sortze-industriak, nekazaritzako elikagaien sektoreak, etab.).
- Segmentu espezifikoetarako programak (emakumeak).
- Lurralde edo eremu espezifikoetarako programak.

Hobekuntza-eremuak eta balizko ekintza berriak:

- Lehentasun handikoak:
    - Ekintzailetzari laguntzeko zentro publikoek ematen dituzten inkubatu aurreko zerbitzuak berrikustea (eta, "premium" zerbitzuak gehitzeko aukera aintzat hartzea, bai eta abian jartzeko behar diren mekanismoak eta baliabideak gehitzeko eta egungo zerbitzuekin bateratzeko aukera ere): ideiak eta negozio-aukerak baliatzeko laguntza, ideiaren "enpresarizazioa" (estrategia, modeloa eta negozio-plana, produktu eta zerbitzuen garapena, etab.), kudeaketan prestakuntza ematea, etab.
- Lehentasun ertainekoak:
    - Gizarte-ekintzailetzarako erakunde arteko programa.
    - Adituen sare bat eratzea (tokikoa nahiz nazioartekoa), ekimenak inkubatu aurreko laguntza emateko.

Zehazki, hauek dira gauzatuta edo aribidean diren programak:

| Programa/ Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile/Sail arduraduna | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|
| "Euskadi Emprende" webgunea | Ekintzaileak | "Euskadi Emprende" webgunea | EGL | |
| Enpresa-leihatila, hitzarmena Bilboko Merkataritza Ganberarekin | Ekintzaileak | Enpresa-leihatila (ekintzaileen arretarako zerbitzua) | Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta Merkataritza Ganbera |
| Enpresa-leihatila bakarra, hitzarmena Gipuzkoako Merkataritza Ganberarekin | Ekintzaileak | Gipuzkoan, enpresa-jarduera berri batean alta eman nahi duten pertsonen edota enpresen arretarako gunea. | Gipuzkoako Foru Aldundia - GIPUZKOAKO GANBERA | GIPUZKOAKO GANBERA (zenbait AGENTZIArekin elkarlanean) |
| Enpresa-leihatila bakarra, hitzarmena Arabako Merkataritza Ganberarekin | Pertsona ekintzaileak Enpresak | Aholkularitza-zerbitzua. | Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritza | Arabako Foru Aldundia Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera |
| Aholkularitzarako eta izapideak hasteko guneak (PAIT) | Ekintzaileak | Ekintzaileei informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak ematea, aurrez aurre, bai beren enpresa-ekimena zehazteko eta horri dagozkion izapide telematikoak egiteko, bai bere enpresaren lehenengo urteetan aurrera egiteko. Sozietatea eratzea modu telematikoan, Dokumentu Elektroniko Bakarra (DEB) erabiliz. | Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen Saila | Industria, Energia eta Turismo Ministerioa |
| Aholkularitzarako eta izapideak hasteko guneak (PAIT) | Ekintzaileak | Ekintzaileei informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak ematea, aurrez aurre, bai beren enpresa-ekimena zehazteko eta horri dagozkion izapide telematikoak egiteko, bai bere enpresaren lehenengo urteetan aurrera egiteko. Sozietatea eratzea modu telematikoan, Dokumentu Elektroniko Bakarra (DEB) erabiliz. | Estatuko Administrazio Orokorra + Gipuzkoako Foru Aldundia | GIPUZKOAKO GANBERA + AGENTZIAK |
| EKINTZAILE | Ekintzaileak | Teknologia-oinarria edo industria-izaerako proiektu berritzaile berriak laguntzea eta finantzatzea Euskadiko enpresa- eta berrikuntza-zentroen sarearen eta beste ekintzailetza-eragile batzuen bitartez. | Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna | Enpresa- eta berrikuntza-zentroak eta beste eragile batzuk |
| Geroa | Ekintzaileak | Banan banako monitorizazio- eta babes-zerbitzua, landa-eremuan eta itsasertzean negozio bat jartzeko ideia duten sustatzaileentzat. | Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna | Hazi |
| Enpresa-proiektu berritzaileen garapena | Enpresak | Enpresa-proiektu berritzaile berriak abian jartzea, Bizkaian. | Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta BEAZ |
| Ekintzailetza eta berrikuntza soziala | Enpresak | Gizarte-eremuan ekintzailetza bultzatzea, eta enpresa edo sozietate berritzaileak sortzea Bizkaian. | Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta BEAZ |
| TXEKIN | Ekintzaileak | Enpresa-proiektuak babestea enpresak sortzeko prozesuetan - Bideragarritasun Plana. | Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Saileko Berrikuntzaren eta Jakintzaren Sustapeneko Zuzendaritza | GARAPEN-AGENTZIAK + BESTE ERAKUNDE HOMOLOGATUAK |
| TXEKINTEK | Ekintzaileak | Teknologia-oinarria eta/edo berritzailea duten enpresa-proiektuak babesteko programa (enpresa-ideiaren ontze-prozesua eta enpresa-plangintza, hura abian jarri arte). TXEKINTEK proiektuak Gipuzkoan kokatutako enpresa- eta berrikuntza-zentroek babestuta daude: Bic Gipuzkoa Berrilan eta Saiolan. | Gipuzkoako Foru Aldundia - SPRI | Enpresa- eta berrikuntza-zentroak (BIC Berrilan Bic-Saiolan) |
| BARNETEKIN | Enpresak | Laguntzarako programa –BARNETEKIN–, enpresen barneko intraekintzailetza-jardunari laguntzea helburu duena, izaera berritzailea eta/edo teknologikoa duten industriaren edo zerbitzu lotuen arloko enpresa-proiektuen sorkuntza sustatzeko, Gipuzkoan (enpresa-ideiaren ontze-prozesua eta enpresa-plangintza, hura abian jarri arte). BARNETEKIN proiektuak Gipuzkoan kokatutako enpresa- eta berrikuntza-zentroek babestuta daude. Bic Gipuzkoa Berrilan eta Saiolan. | Gipuzkoako Foru Aldundia - SPRI | Enpresa- eta berrikuntza-zentroak (BIC Berrilan Bic-Saiolan) |

| Programa/ Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile/Sail arduraduna | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|
| Araban ekintzaile izan eta enpresa berriak sortzeko laguntza bidea "Ekin Araban 2013" | Ekintzaileak<br>Enpresak | Araban enpresa berriak sortzeko eta ekintzailetzarako laguntza. Arreta eta laguntza berezia eskaintzen dizkie enpresa berritzaileei, Arabako industria-ehunari ekarpenak egiten dizkietenei, dibertsifikazioan, teknologia berrietan, balio erantsian eta hazteko gaitasunean. | Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritza | ARABAKO FORU ALDUNDIA |
| Ekintzaile gazteentzako bekak | Ekintzaileak | Ekintzaile gazteentzako bekak | Lanbide | Tokiko garapen-agentziak, udalak eta eskualdeko agentziak |
| Enpresak sortzeko laguntzak, eskualdeko enplegu-planen baitan | Ekintzaileak | Enpresak sortzeko eta finantzatzeko laguntzak<br>Transmisioa eta salmenta<br>Sartzeko prest dauden negozioak erostea | Lanbide | Tokiko garapen-agentziak, udalak eta eskualdeko agentziak |
| Bizkaiko DEMA programa | Ekintzaileak | Aholkularitza-zerbitzuak ematea negozioak sortzeko, abian jartzeko eta sendotzeko laguntza publikoak izapidetzeko; enpresa-ideien lehiaketak egitea, Lanbide Heziketako ikasleen artean; elkarte digital bat sortzea. | Lanbide | DEMA |
| Gaztempresa | Ekintzaileak | Gaztempresak zure ideia bultzatzen du, hari forma ematen laguntzen dizu eta zure ondoan egoten da prozesu osoan, bai abian jartzeko prozesuan (finantzaketa lortzeko eta ekipamendurako erraztasunak izateko), bai funtzionamenduan jartzen denean. | Lanbide | Gaztempresa |
| Ekintzailetza (Gizarte-ekonomia) | Ekintzaileak | Enpresa eratzeko laguntza (giza kapitala) eta antolaketa-egiturarako aholkularitza | Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila) | |
| Junior kooperatibak | Ekintzaileak | Enpresa eratzeko laguntza (giza kapitala) eta antolaketa-egiturarako aholkularitza | Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila) | Mondragon Unibertsitatea |
| Enpresa berritzaileak sortzeko programa | Lanbide Heziketako ikasleak | Programa honen helburua da enpresa berriak sortzea sustatzea, TKNIKAk eta Lanbide Heziketako zentroek garatutako berrikuntza-proiektuak oinarri hartuta. Horrez gain, programa honek zenbait ekimen bultzatuko ditu, Lanbide Heziketaren ingurunetik kanpo sortuak izan arren, haren laguntza izan dezaketenak, hain zuzen (ETEak, unibertsitatean, teknologia-zentroetan, etab.). | TKNIKA Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren Berrikuntza Zentroa (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila) | TKNIKA eta LHko ikastetxeen sarea Unibertsitateak eta teknologia-zentroak Jardunean dauden enpresen spin-offak |
| URRATSBAT programa | Lanbide Heziketako ikasleak | Lanbide Heziketako ikasleei eta ikasle ohiei laguntza-zerbitzu integrala ematen die, beren enpresa sortzeko prozesuan.<br>Programaren garapenean, fase hauek lantzen dira: sentsibilizazio-ekintzak; ikasle eta ikasle ohi ekintzaileen prestakuntza; proiektuaren garapenerako laguntza eta aholkularitza; enpresa abian jartzea; eta jarraipena. | TKNIKA Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren Berrikuntza Zentroa (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila) | Lanbide Heziketako zentroak |
| ZITEK | Unibertsitatea | Ekintzailetzaren kultura sustatzea; bai eta enpresa berritzaile eta oinarri teknologikodunak ere, Enpresak Sortzeko laguntza Programa bat abian jarriz, EHU-ZITEK, unibertsitate-komunitateari zuzenduta (ikertzaileak, irakasleak, lizentziatuak, graduatu ondoko ikasleak...) Bizkaiko Campuseko mintegien bitartez. | Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen Saila | SPRI<br>BEAZ<br>UPV/EHU |
| Tecnalia Ventures | Unibertsitatea | Teknologia aurreratu eta berritzaileenaren merkaturatzea modu integralean kudeatzea. | Tecnalia | UPV-EHU |
| ETORKIZULAN | Unibertsitatea | Unibertsitate-komunitatean, ekintzailetza sustatzea, eta ekintzaileei beren negozio-ideiak abian jartzen laguntzea. | UPV-EHU | |
| UNIVALUE | Unibertsitatea | Unibertsitateko ikerkuntzen emaitzei balioa ematea, lortutako patenteak eta teknologiak sustatuz. | UPV-EHU | Tecnalia |
| INIZIA | Unibertsitatea | Teknologian eta ezagutzan oinarritutako enpresak sustatzea eta abian jartzen laguntzea, oinarria unibertsitatean dutenak. | UPV-EHU | |
| EMEKIN | Gizarteko segmentu espezifikoak | Gipuzkoan, emakumeek sustatutako enpresa-proiektuak bultzatuz enplegua sortzea xede duen programa da EMEKIN; horretarako, enpresa sortzeko prozesuan banan banako laguntza emateko sistema oso bat dago antolatuta. | Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Saileko Berrikuntzaren eta Jakintzaren Sustapeneko Zuzendaritza | EUSKADIKO KUTXA + ASPEGI + ERAKUNDE HOMOLOGATUAK (GARAPEN-AGENTZIAK + BESTE ERAKUNDE |

| Programa/ Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile/Sail arduraduna | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|
| | | | | BATZUK) |
| Hitzarmena Ampea elkartearekin | Gizarteko segmentu espezifikoak | - Ampea sariak.<br>- Aholkularitza-zerbitzua.<br>- Enpresa- eta lan-arloan emakumeen ahalduntzea bultzatzeko jarduerak. | Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritza | Arabako Foru Aldundia<br>AMPEA (Arabako Emakume Enpresaburu eta Profesionalen Elkartea) |
| Hitzarmena Ajebask elkartearekin | Gizarteko segmentu espezifikoak | - Aholkularitza diru-laguntzetan.<br>- Lanbide Ekimenetarako Gazte Eskola.<br>- Enpresa-topaketak.<br>- Arabako Enpresaburu Gaztearen saria | Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritza | Arabako Foru Aldundia<br>Ajebask |

## 6.4.2 Hazkundea, sendotzea eta transmisioa



Helburu estrategikoa: Euskadiko enpresa berrien hazkundea, sendotzea eta transmisioa (halakorik bada) bultzatzea

Bigarren mailako helburuak:

- Sortu berri diren enpresei abian jartzen eta haien jarduera hazten laguntzea.
- Teknologia-oinarridun enpresa berrien edota enpresa berritzaileen kopurua haztearen eta enpresa horiek sendotzearen alde egitea.
- Enpresen hazkundea eta sendotzea sustatzea sektore estrategiko batzuetan, adibidez: gizarte-ekonomia, osasun-sektorea, sortze-industriak edota nekazaritzako elikagaien sektorea.
- Enpresei laguntzea ondorengotza- edota salmenta-prozesuetan.

Ekintza-mapa:



Aribideko ekintza nabarmenak:

- Teknologia-oinarriko enpresa-proiektuak eta/edo proiektu berritzaileak garatzen laguntzeko programak, Euskadiko enpresa-ehunari balio erantsi handia eta hazteko gaitasuna eman diezaioketenak (Gauzatu, enpresa berritzaileak sortzeko aldundien laguntzak).
- Enpresak garatzeko laguntza-programak, sektore espezifikoetan (Bizkaia Sortzailea, enpresa berritzaile berriak sortzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren programa) eta talde espezifikoentzat (gazteak).
- Enpresetan bazkideak hartzeko, ondorengotza-prozesuetarako, belaunaldi-erreleboetarako eta transmisiorako programak (abian dauden enpresa-proiektuak indartzeko eta modernizatzeko programa, parte-hartze bidezko ondorengotza-prozesuak, etab.).

Hobekuntza-eremuak eta balizko ekintza berriak:

- Lehentasun handikoak:
  - Laguntza-zentro publikoek ematen dituzten inkubatze-zerbitzuak berrikustea (eta "premium" zerbitzuak gehitzeko aukera aintzat hartzea, bai eta horiek abian jartzeko behar diren baliabideak gehitzeko eta egungo zerbitzuekin bateratzeko aukera ere): networkinga, coachinga, aholkulari-sareak, finantzaketa lortzeko bideak, nazioartekotzeko laguntza, merkaturatzeko, etab
- Lehentasun ertainekoak:
  - Enpresei hazten eta sendotzen laguntzeko funts publiko-pribatu bakarra eratzea, eta egun erabiltzen diren finantza-tresnak integratzeko aukera kontuan hartzea.
  - Ekintzaile-sareak sustatzea.

Zehazki, hauek dira gauzatuta edo aribidean diren programak:

| Programa/ Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile/Sail arduraduna | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|
| GAUZATU 2013 | Enpresak | Teknologia-oinarriko ETEak eta/edo ETE berritzaileak sortzen eta garatzen laguntzea. | EGL | SPRI |
| NETs 2013 | Enpresak | Zientzia- eta teknologia-oinarriko enpresak abiatzeko proiektuak egiteko laguntzak. | EGL | SPRI |
| ACELERA PROGRAMA (Connect) | Enpresak | Hazteko eta nazioartekotzeko aukera duten enpresa gazte berritzaileen proiektuei laguntzea. | EGL | SPRI |
| Crecer+ Emprende | Enpresak | Teknologia-oinarriko negozio berritzaileen ekintzaileak identifikatzea eta negozio horien enpresa-hedapena bultzatzea. Kapitala bilatzeko prozesuetarako prestakuntza ematea, eta kapital-ekarpen burutsuak egiten dituzten guneetara bideratzea. | Orkestra | Eusko Jaurlaritza, SPRI, Kutxa, tokian tokiko mintegiak, teknologia-zentroak (Tecnalia, IK4) eta Europako Business Angels sareak. |
| TXEKINTEK | Enpresak | Teknologia-oinarria duten enpresa-proiektuak eta/edo enpresa-proiektu berritzaileak babesteko programa (enpresa-ideiaren ontze-prozesua eta enpresa-plangintza, hura abian jarri arte). TXEKINTEK proiektuak Gipuzkoan kokatutako enpresa- eta berrikuntza-zentroek babestuta daude: Bic Gipuzkoa Berrilan eta Saiolan. | Gipuzkoako Foru Aldundia - SPRI | Enpresa- eta berrikuntza-zentroak (BIC Berrilan Bic-Saiolan) |
| BARNETEKIN | Enpresak | Laguntzarako programa –BARNETEKIN–, enpresen barneko intraekintzailetza-jardunari laguntzea helburu duena, izaera berritzailea eta/edo teknologikoa duten industriaren edo zerbitzu lotuen arloko enpresa-proiektuen sorkuntza sustatzeko, Gipuzkoan (enpresa-ideiaren ontze-prozesua eta enpresa-plangintza, hura abian jarri arte). BARNETEKIN proiektuak Gipuzkoan kokatutako enpresa- eta berrikuntza-zentroek babestuta daude. Bic Gipuzkoa Berrilan eta Saiolan. | Gipuzkoako Foru Aldundia - SPRI | Enpresa- eta berrikuntza-zentroak (BIC Berrilan Bic-Saiolan) |

| Programa/ Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile/Sail arduraduna | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|
| Mikroenpresen sendotzea | Enpresak | Enpresak sendotzea eta modernizatzea esaten zaio, mikroenpresek sustatuta, enpresaren produktuak, prozesuak eta zerbitzuak nabarmen hobetzea eragiten duten jarduerak egiteari, betiere horien bidez lehiakortasuna hobetzen denean. | Gipuzkoako Foru Aldundia | |
| Araban ekintzaile izan eta enpresa berriak sortzeko laguntza bidea "Ekin Araban 2013" | Enpresak | Araban enpresa berriak sortzeko eta ekintzailetzarako laguntza. Arreta eta laguntza berezia eskaintzen dizkie enpresa berritzaileei, Arabako industria-ehunari ekarpenak egiten dizkietenei, dibertsifikazioan, teknologia berrietan, balio erantsian eta hazteko gaitasunean. | Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritza | ARABAKO FORU ALDUNDIA |
| Enpresa berri berritzaileak | Enpresak | Bizkaian, enpresa berritzaile berrien sorrera sustatzea. | Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta BEAZ |
| Bizkaia Sortzailea | Enpresak | Enpresa-proiektu sortzaile berriak abian jartzea, Bizkaian. | Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta BEAZ |
| Enpresa txiki eta ertainen nahiz landa- edo arrantza-eremuko saltoki eta ustiapenen ondorengotza | Enpresak | Edozein jarduera-sektoreko mikroenpresei, enpresa txikiei eta ertainei laguntzak ematea, enpresaren plangintzarako eta ondorengotza-prozesuetarako. | Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna | SPRI |
| Parte-hartze bidezko ondorengotza | Enpresak | Langileen parte-hartze bidezko ondorengotza-programa. | Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila) | Gizarte Ekonomiako Erakundeak |
| Gizarte Ekonomiako bazkide berriak | Enpresak | Gizarte-ekonomiako enpresetan bazkide berriak sartzeko laguntzak. | Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila) | |
| Abian dauden enpresa-proiektuak (ETEak eta mikro ETEak) indartzeko eta modernizatzeko, nahiz belaunaldi-erreleboko prozesuak errazteko programa | Enpresak | Programa honen xedea da enpresa-proiektuak (ETEak eta mikro ETEak) indartzen eta modernizatzen laguntzea, bai eta, Lanbide Heziketaren bidez, belaunaldi-erreleboko prozesuak erraztea ere, ahalmena izan arren "know-how" (egiten jakitea) galtzeko eta enpresa-jarduera suntsitzeko arriskuan dauden sektoreetan. | TKNIKA Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren Berrikuntza Zentroa (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila) | Lanbide Heziketako zentroetako ikasleak eta ikasle ohiak, LH-ko zentroen inguruko enpresak, klusterrak eta sektore-erakundeak |
| II. GAZTENEK PLANA (Ondorengotza) | Enpresak | Euskadiko nekazaritza-sektorean, nekazari gazteak sar daitezen laguntzea, bai eta lanean dabiltzanei bertan jarraitu dezaten bultzatzea ere. | Nekazaritza Sailburuordetza, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila | Hazi<br>Hazilur (arrisku-kapitaleko funtsa) |
| Praktikarako komunitatea, URRATSABAT programaren bidez sortutako enpresa-sareak osatua | Enpresak<br>Ekosistemako eragileen laguntzarako barne-jarduerak eta -prozesuak | Proiektu honen helburua da URRATSBAT programaren bidez sortutako enpresa-sarea kontuan hartzea programa berriro diseinatzean, eta aldi berean, Sareko enpresak indartzeko eta garatzeko jardueren multzo bat diseinatzea; zehazki, informaziorako, aholkularitzarako eta networkingerako zerbitzuen multzo bat diseinatuko da. | TKNIKA Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren Berrikuntza Zentroa (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila) | URRATSBAT programaren bidez sortutako enpresen multzoa, eta URRATSBAT programaren ikasleak eta ikasle ohiak. |
| Gazteen prestakuntza gizarte-ekonomian | Hezkuntza orokorra Unibertsitatea | Gizarte-ekonomian trebatzeko eta hura zabaltzeko ikastaroak gazteentzat. | Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila) | Gizarte Ekonomiako Erakundeak |
| Gaztempresa | Ekintzaileak | Gaztempresak zure ideia bultzatzen du, hari forma ematen laguntzen dizu eta zure ondoan egoten da prozesu osoan, bai abian jartzeko prozesuan (finantzaketa lortzeko eta ekipamendurako erraztasunak izateko), bai funtzionamenduan jartzen denean. | Lanbide | Gaztempresa |
| EMEKIN | Gizarteko segmentu espezifikoak | Gipuzkoan, emakumeek sustatutako enpresa-proiektuak bultzatuz enplegua sortzea xede duen programa da EMEKIN; horretarako, enpresa sortzeko prozesuan banan banako laguntza emateko sistema oso bat dago antolatuta. | Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Saileko Berrikuntzaren eta Jakintzaren Sustapeneko Zuzendaritza | EUSKADIKO KUTXA + ASPEGI + ERAKUNDE HOMOLOGATUAK (GARAPEN-AGENTZIAK + BESTE ERAKUNDE BATZUK) |

### 6.4.3 Ekintzailetzaren kultura eta balioak



Helburu estrategikoa: ekintzailetzaren kultura eta balioak sustatzea, gizartearen maila orotan eta bizitzaren aro guztietan, iraganean gure herrialdearen bereizgarri izan den pentsaera ekintzailea suspertzeko.

Bigarren mailako helburuak:

- Hezkuntza-arloko taldeak kontzientziatzea, aintzat har dezaten zer garrantzi duen eta zer onura dakartzan enpresen sorkuntzak, lanpostuen, aberastasunaren eta ekonomia-garapenerako ekarpenen iturri den aldetik.
- Zenbait programa bultzatzea, ikaslegoaren zenbait sektore (hezkuntzaren lehen mailak, Lanbide Heziketa eta unibertsitateari lotutako esparruak) ekintzailetzaren kulturan eta balioetan prestatzeko; bai eta haiengan ekintzailetzarako gaitasuna eta ekimena garatzeko ere.
- Gizartearen zenbait sektore espezifiko kontzientziatzea (emakumeak, adinekoak...), aintzat har ditzaten ekintzailetzak haien eskura jartzen dituen aukerak.
- Gizarteak, jarrera ekintzailearen ikuskera positiboa izan dezan bermatzea, bai eta gizarteak pertsona ekintzaileena ere.
- Gizarteak jakitea ekintzaile-jardun horretan nola eta zer programaren bitartez lagun diezaiokeen Sistemaren partaide den eragileetako bakoitzak.

Ekintza-mapa:



Aribideko ekintza nabarmenak:

- Izaera ekintzailea sustatzeko programak eta sentsibilizatzekoak (ekimena, enpresa-izaera eta ekintzailetzaren kulturari lotutako beste balio batzuk), hezkuntzaren zenbait fasetan (Egin eta Ekin, oinarrizko hezkuntzan; Ikasenpresa eta Ekintzailearen astea, Lanbide Heziketan; eta Euskampus, Zitek edo Entreprenari, Unibertsitatean).
- Hezkuntza-metodologia berriak, ekintzailetzaren kultura eta jarduna hobetzeko (Ekingune).
- Ekintzailetza saritzeko ekintzak, Lanbide Heziketan zein Unibertsitatean (Laborde, Inizia, Think Big).
- Hitzarmenak eta gizarte-, ekonomia- eta ezagutza-eragileentzako laguntzak, ekintzailetzaren kultura eta balioak sustatzeko (Orkestra, Tecnalia, Mondragon...).

Hobekuntza-eremuak eta balizko ekintza berriak:

- Lehentasun handikoak:
  - Erakunde arteko urteko egutegi bakarra, ekintzailetza sustatzeko EAEko eta kanpoko ekitaldi nagusiekin (azokak, sariak, hitzaldiak, lehiaketak, etab.).
  - EAEko ekintzailetzaren adibide nabarmenak identifikatzea eta sustatzea (tokiko, eskualdeko eta nazioarteko esparruan).
- Lehentasun ertainekoak:
  - *Ikasleentzako enpresa-erronken* programa bat diseinatzea (adibidez, Finlandiako DEMOLA eredua, Mondragon Unibertsitatean baliatutakoa): enpresek beren erronkak aurkezten eta luzatzen dizkiete unibertsitateko edo lanbide-heziketako ikasleei, erronka horiek gainditzeko proiektuak gara ditzaten.

Zehazki, hauek dira gauzatuta edo aribidean diren programak:

| Programa/ Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile/Sail arduraduna | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|
| Gaitasun-curriculuma | Hezkuntza orokorra | Ekimena eta enpresa-izaera sustatzea Norberaren autonomiarako eta ekimenerako oinarrizko gaitasuna garatzea, bai eta jarduera ekintzaileei lotutako beste gaitasun batzuk ere: hizkuntza-komunikaziorakoa, informazioa tratatzekoa eta teknologia digitala erabiltzekoa, eta zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarakoa. | Hezkuntza Saila | Berritzeguneak, ikastetxeak, irakaslegoa eta hezkuntza-komunitateko beste eragile batzuk |
| Bikaintasuna erdiesteko Hobekuntza Plana | Hezkuntza orokorra | Ebaluazioaren kultura ezartzea | Ikastetxeak, ebaluaziorako euskal institutua, Berritzeguneak eta ikuskaritza | Berritzeguneak, ikastetxeak, irakaslegoa eta hezkuntza-komunitateko beste eragile batzuk |
| Egin eta Ekin | Hezkuntza orokorra | Ekintzaile-izaera sustatzea, gaztarotik | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila - DBHko eta Batxilergoko ikastetxeak |
| HASI ETA HAZI | Hezkuntza orokorra | HASI ETA HAZI proiektuak sentsibilizatzea eta ekintzailetzaren kulturarekin lotutako balioak sustatzea du helburu. Hezkuntzarako materiala da, multimedia tresnen sorta bat, irakasleek zein ikasleek erabiltzekoa, ikasten irakasteko prozesuetan. HASI ETA HAZI proiektuaren ardatza da ekimenari, jarrera proaktiboei eta lankidetzarako joerari lotutako giza balioak garatzea, bizitzako edozein arlotan. | GFAko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Saileko Berrikuntzaren eta Jakintzaren Sustapeneko Zuzendaritza | |
| KOSMODISEA | Hezkuntza orokorra | Proiektuaren xedea da ekintzailetzaren kultura eta kultura digitala sustatzea. Lankidetzarako web jolas elkarreragile bat da, Gipuzkoako hezkuntza ez unibertsitarioaren maila guztiei zuzendutakoa: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa eta Prestakuntza Zikloak. | GFAko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Saileko Berrikuntzaren eta Jakintzaren Sustapeneko Zuzendaritza | BIC BERRILAN |
| Hauspoa Proiektua | Hezkuntza orokorra | Ikastetxeen autonomia sustatzeko eta ikasleen arrakasta hobetzea. | Hezkuntza Saila, ikastetxe partaideak eta kanpoko beste eragile batzuk | SNATU - MONDRAGON. Ikastetxe partaideetako zuzendaritza-taldeak, proiektuaren koordinatzaileak, Berritzeguneak, Irakasle Eskolak |
| IKASENPRESA programa (Europako Enpresa Gaztea programa zenaren ondorengoa) | Lanbide Heziketako ikasleak | Ekintzailetzaren balioak sustatzea Lanbide Heziketako ikasleen artean, *Enpresa eta Ekimen Sortzailea* irakasgaiaren baitan.<br>Metodologiak protagonista egiten ditu ikasleak, haiexek garatzen baitute prozesu ekintzailea, ideia identifikatzen den unetik enpresa-proiektua garatzen den arte. | TKNIKA Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren Berrikuntza Zentroa (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila) | Lanbide Heziketarako ikastetxeak |
| LHko Gune Ekintzailea | Lanbide Heziketako ikasleak | TKNIKAren ikerketa-prozesuaren ondorio den aldetik, Gune Ekintzailea proiektu-programaren xedea da Lanbide Heziketarako gune ekintzaile eredu bat diseinatzea, jarduera ekintzaileei, lidergoari, pedagogia ekintzaileari eta abarri lotutako ikuskerak bilduko dituena. | TKNIKA Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren Berrikuntza Zentroa (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila) | TKNIKA eta LHko ikastetxeen sarea |
| EKINGUNE IKASENPRESA eta URRATSBAT programak kudeatzeko eta zabaltzeko plataforma | Lanbide Heziketako ikasleak | EKINGUNE (http://ekingune.tknika.net/) lineako plataforma bat da, Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren ekintzailetza-programen euskarri. Plataforma honek bi funtzio betetzen ditu: batetik, IKASENPRESA eta URRATSBAT programen komunikazio- eta kudeaketa-tresna da, eta bestetik, Lanbide Heziketako ekintzailetzaren zinezko komunitate praktiko gisa eratzen. | TKNIKA Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren Berrikuntza Zentroa (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila) | Lanbide Heziketarako ikastetxeak |

| Programa/ Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile/Sail arduraduna | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|
| EKINTZAILETZARI SARIAK, LANBIDE HEZIKETAN | Lanbide Heziketako ikasleak | Lanbide Heziketako Sailburuordetzak enpresa onenak saritzeko ekitaldi bat antolatzen du urtero, IKASENPRESA programako hezkuntza-enpresa gazteak zein URRATSBAT programaren bidez sortutakoak saritzeko. Ekitaldi honen helburua da programa horietan parte hartzen duten ekintzaileen zein irakasleen lana aitortzea. | TKNIKA Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren Berrikuntza Zentroa (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila) | Lanbide Heziketarako ikastetxeak |
| Laborde saria | Unibertsitatea | Enpresa eta Berrikuntza Zentroei laguntzeko programaren esparruan garatua (Bic Berrilan). Ekimen berritzaile berrien sariak, ideia eta proiektu ekintzaileak sustatzea helburu dutenak, unibertsitatearen esparruan. | GFA - SPRI | Enpresa eta Berrikuntza Zentroak (BIC Berrilan) |
| SARIAK (Thing Big, Inizia...) | Unibertsitatea | Enpresen sorkuntza saritzea. | UPV-EHU | Foru-aldundiak |
| EUSKAMPUS - TEAM AKADEMI EUSKADI | Unibertsitatea | Berrikuntzaren kultura eta izaera ekintzailea sustatzea, Europa mailan ikaskuntza-sistemak hobetuz, eta abilezia eta gaitasun berritzaileak sustatuz. Esperimentaziorako, ikaskuntzarako eta garapenerako gune bat, jakintzaren esparru trinkoetako talde-ekimenen liderrentzat. | UPV-EHU | Tecnalia |
| EKINBUSA | Unibertsitatea | Ikasleak erakartzea, jarduera ludikoen bidez, ekintzailetzaren irudi positibo bat izan dezaten. Ekintzailearen irudi positibo bat aurkeztea. | UPV-EHU | |
| IKD GAZTE | Unibertsitatea | Ikasle aktiboak heztea, ekimena eta ekintzailetzaren kultura curriculumean txertatzeko. | UPV-EHU | |
| GAZE | Unibertsitatea | Gobernantzaren printzipioetan oinarritutako ekimena (ikaslek lider dituena), ekintzailetzaren kultura eta balioak sustatzeko (ekimena), Gipuzkoako GAZE goi-hezkuntzako ikasleen artean. Gipuzkoa Berritzen elkartearen babesean garatutako ekimena. | GFAko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Saileko Berrikuntzaren eta Jakintzaren Sustapeneko Zuzendaritza | GFA - Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Mondragon Unibertsitatea (MU), Deustu eta TKNIKA. |
| ZITEK | Unibertsitatea | Ekintzailetzaren kultura sustatzea; bai eta enpresa berritzaile eta oinarri teknologikodunak ere, Enpresak Sortzeko laguntza Programa bat abian jarriz, EHU-ZITEK, unibertsitate-komunitateari zuzenduta (ikertzaileak, irakasleak, lizentziatuak, graduatu ondoko ikasleak...) Bizkaiko Campuseko mintegien bitartez. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | SPRI<br>BEAZ<br>UPV/EHU |
| ENTREPRENARI | Unibertsitatea | Campus ekintzaile bat garatzeko esparru egoki bat sortzea du helburu, Unibertsitatearen eta gizartearen arteko jakintza-transferentzia ahalbidetzeko, batez ere, zientzia- eta teknologia-oinarridun enpresa berriak sortuz eta ETEetan berrikuntza txertatuz. | SPRI- GFA - UPV/EHU(Gipuzkoa) | BIC BERRILAN |
| LEI - Ekintzailetza Katedra | Unibertsitatea | Euskal ekintzaileen ekosistemaren hobekuntza bultzatzea, funtsezkoa baita proiektu ekintzaileen kalitatea eta ekonomia-eragina hobetzeko. | SPRI- GFA - Deustu-Enpresa pribatuak | LEI - Orkestra |
| Araba Ekinean 2013 Hitzarmena | Enpresak<br>Ekintzaileak<br>Unibertsitatea<br>Gizartea | - Ideia Ekintzaileen Lehiaketa (ideia onenari saria)<br>- Trebakuntza-jardunaldiak<br>- Eskola-kanpainak | Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritza | AFA<br>Vitoria-Gasteizeko Udala<br>Kutxabank |

| Programa/ Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile/Sail arduraduna | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|
| EKINTZAILEAREN ASTEA | Gizartea | IKASENPRESA eta URRATSBAT programatan partaide diren LHko ikastetxeen konpromisoa, jarduera-sorta baten plangintza bat egiteko, hezkuntza-komunitatean eta LHko ikastetxeekin lotutako beste eragile batzuetan ekintzailetza sustatze aldera. Aste horretan (ikastetxe bakoitzak aukeratzen ditu bare jarduera-planari ondoen egokitzen zaizkion datak) hainbat ekitaldi, aurkezpen eta lantegi garatzen dira, ekintzailetzari lotuta. | IKASENPRESA eta URRATSBAT programatako partaide diren LHko ikastetxeen sareko kideak | Lanbide Heziketarako ikastetxeak |
| Eusko Ikaskuntzari laguntza | Gizartea | REM proiektua (Regional Entrepreneurship Monitor). | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta Eusko Ikaskuntza |
| Toribio Etxeberria sariak | Gizartea | Ekintzaileen lana aitortzea —ahalegina, nekea eta hartutako arriskuak—, ekintzailetza sustatzea, enpresen sorkuntza eta garapena akuilatzea. | GFA | SPRI, APD, DIARIO VASCO, KUTXA, ADEGI, CEBEK eta SEA. |
| AIC STARTekin hitzarmena | Gizarteko segmentu espezifikoak | Automozioaren sektoreko enpresa berrien sorkuntza, Bizkaian. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta<br>AIC START |
| Mondragon Fundazioarekin hitzarmena | Gizarteko segmentu espezifikoak | Enpresa-ekimen berrien garapena, Bizkaia. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta Mondragon Fundazioa |
| Gaiker erakundeari laguntza | Gizarteko segmentu espezifikoak | Teknologia-oinarridun enpresa berrien sorkuntza sustatzea. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta Gaiker |
| Tecnalia Fundazioarekin hitzarmena | Gizarteko segmentu espezifikoak | Jakintzaren eta teknologia-oinarridun enpresa berrien sorkuntza sustatzea, Fundazioaren esparruan. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta<br>Tecnalia Fundazioa |
| Landa-eremuko edo itsasertzeko ekimen berrietarako laguntza (merkataritza, turismoa...) | Gizarteko segmentu espezifikoak | Landa-eremuko edo itsasertzeko ekimen berrietarako laguntza (merkataritza, turismoa...) | EGL | Nekazaritza Sailburuordetza<br>Merkataritza eta Turismo Sailburuordetza |
| Casa Maristas Azterlan erakundeari laguntza | Gizarteko segmentu espezifikoak | Durangaldeko industria-ehunaren lehiakortasuna hobetzea. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta Azterlan |

## 6.4.4 Intraekintzailetza edo ekintzailetza korporatiboa



Helburu estrategikoa: apustu bereizgarri bat egitea intraekintzailetzaren edo ekintzailetza korporatiboaren alde, lanpostuak eta ekonomia-jarduera sortzeko duen gaitasuna dela eta.

Bigarren mailako helburuak:

- Enpresei intraekintzailetzaren garrantzia helaraztea, enpresa-iraunkortasunaren, lan-ibilbidearen, eta lurraldearen ekonomia- eta gizarte-garapenaren iturri den aldetik.
- Intraekintzailetzaren garapen-esparrua zehaztea, EAEn, negozioen dibertsifikazio-, berrikuntza- eta garapen-jarduerak sustatuz, ETEetan arreta berezia jarriz.
- Intraekintzailetzaren eredu ireki bat diseinatzea, enpresetara zabaltzeko.
- Enpresetako intraekintzailetzaren adibideak identifikatzea eta sustatzea.
- Unibertsitate-ikerkuntzaren eta enpresa-munduaren arteko lotura sendotzea, jakintzaren eta teknologiaren transferentzia sustatuz.
- Hazteko, lanpostuak sortzeko eta nazioartekotzeko gaitasun handiko proiektuak sustatzea, euskal enpresen artean.

Ekintza-mapa:



Aribideko ekintza nabarmenak:

- Enpresa barneko intraekintzailetza-jardunari laguntzeko programak, izaera berritzailea duten enpresa-proiektu berrien sorkuntza sustatzeko (Barnetekin).
- Ikastegietatik enpresetara jakintza transmititzen laguntzen duten proiektuak, intraekintzailetza-proiektuen garapenerako (Unibertsitateko Zabalduz programa)

Hobekuntza-eremuak eta balizko ekintza berriak:

- Lehentasun handikoak:
  - Erreferentziazko enpresa-multzo bati gonbidapena egitea, intraekintzailetzako prozesu pilotuetan eragile traktoreak izan daitezen, enpresa-sektorearen inplikazioa sustatzeko ekintzailetzaren laguntzan.

Zehazki, hauek dira gauzatuta edo aribidean diren programak:

| Programa/ Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile/Sail arduraduna | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|
| Intraekintzailetza-programa EAEko enpresa-ehunean. | Enpresak/Intraekintzailetza | Intraekintzailetza-programa EAEko enpresa-ehunean. | EGL | |
| BARNETEKIN | Enpresak/Intraekintzailetza | Laguntzarako programa –BARNETEKIN–, enpresen barneko intraekintzailetza-jardunari laguntzea helburu duena, izaera berritzailea eta/edo teknologikoa duten industriaren edo zerbitzu lotuen arloko enpresa-proiektuen sorkuntza sustatzeko, Gipuzkoan (enpresa-ideiaren ontze-prozesua eta enpresa-plangintza, hura abian jarri arte). BARNETEKIN proiektuak Gipuzkoan kokatutako Enpresen eta Berrikuntza Zentroek babestuta daude. Bic Gipuzkoa Berrilan eta Saiolan. | GFA - SPRI | Enpresa eta Berrikuntza Zentroak (BIC Berrilan - Saiolan) |
| Enpresa-proiektu berritzaileen garapena | Enpresak | Enpresa-proiektu berritzaile berriak abian jartzea, Bizkaian. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta BEAZ |
| Bizkaia Sortzailea | Enpresak | Enpresa-proiektu sortzaile berriak abian jartzea, Bizkaian. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta BEAZ |
| Araban ekintzaile izan eta enpresa berriak sortzeko laguntza bidea, *Emprender en Álava 2013* | Ekintzaileak Enpresak/Intraekintzailetza | Araban enpresa berriak sortzeko eta ekintzailetzarako laguntza. Arreta eta laguntza berezia eskaintzen dizkie enpresa berritzaileei, Arabako industria-ehunari ekarpenak egiten dizkietenei, dibertsifikazioan, teknologia berrietan, balio erantsian eta hazteko gaitasunean. | AFAko Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritza | ARABAKO FORU ALDUNDIA |
| ZABALDUZ | Enpresak/Intraekintzailetza Unibertsitatea | Unibertsitateko ikertzaileek lortutako emaitzak eta jakintzak ekoizpen- eta gizarte-ehunera helaraztea, enpresa-proiektu berriak garatzeko. | UPV-EHU | |

## 6.4.5 Laguntza-ekosistemaren integrazioa (politikak, azpiegiturak eta finantzaketa)



Helburu estrategikoa: gaur egun, EAEN, ekintzailetzari laguntzeko ekosistema osatzen duten elementuen, tresnen eta ahaleginen integrazioa sustatzea.

Bigarren mailako helburuak:

- Euskal ekintzailetza-sistema integratu, optimizatu eta eraginkor baten eraikuntzan aurrera egitea, ekimen ekintzaile mota orori lagunduko diona (autoenpleguari, oinarrizko ekintzailetzari eta aurreratuari).
- Ekintzailetzari laguntzeko eragileen, azpiegituren, eskumenen eta jardueren mapa ordenatzea eta arrazionalizatzea.
- Ekintzaileentzako ekosistema homogeneo bat sustatzea eta ezagutaraztea, abiapuntua eta programak zuzenduko eta kudeatuko dituen erakunde arduraduna edozein direla ere.
- Administrazioaren eragina arintzea, apustu sendoa eginez administrazio-kargak pixkanaka murrizteko eta ezabatzeko, epeak laburtzeko, prozedurak uztartzeko eta hizkera ulergarriago bat erabiltzeko.
- Ekosistema bat sustatzea, non ekintzaileek jardun horren une garrantzitsuenetan laguntzak eta azpiegiturak eskura izango dituzten.
- Business Angel-en euskal sare bat sustatzea, eta proiektuen finantzaketa bermatzeko formula berriak bilatzea.

Ekintza-mapa:



<u>Aribideko ekintza nabarmenak:</u>

- Politikak:
    - Erakundeen arteko plan bat garatzea, euskal ekintzailetza-sistemako programak eta eragileak lerratuko dituena eta haien jarraipena egingo duena.
- Azpiegiturak:
    - Enpresa eta Berrikuntza Zentroen arkitektura optimizatzea eta sendotzea, interes publikoko funtzioa duten erakundeak izanik, ekintzaileei laguntzeko zerbitzu integratuen aukera zabala eskaintzen dutelako.
    - Inkubazio-azpiegitura aurreratuak sustatzea, unibertsitate-esparruan, eta zientzia- eta teknologia-arloan (mintegiak).
- Finantzaketa:
    - Hazi-kapitala jarriko duten elkarteak, enpresen ekonomia- eta finantza-egonkortasuna areagotzeko (administrazio publikoekin, finantza-erakundeekin eta elkarren bermerako sozietateekin bat).
    - Business Angele-en sareak sortzeko eta sustatzeko programak.
    - Finantzaketa lortzeko eta langabezia-prestazioa kapitalizatzeko formulak, Lanbideren bitartez.

<u>Hobekuntza-eremuak eta balizko ekintza berriak:</u>

- Lehentasun handikoak:
    - Erakundeen arteko organo iraunkor bat eratzea, ekintzailetzari lotuta.
    - Mintegien onartze- eta graduatze-irizpideak berrikustea.
    - Finantza-tresna berriek ematen dituzten aukerak aztertzea: hazi-kapitaleko funts misto publiko-pribatuak, mikrokredituak, crowdfundinga, etab.
- Lehentasun ertainekoak:
    - Ekintzailetzari laguntzeko ekosisteman parte hartzen duten eragileen akreditazio-sistema. Ekintzailetzari laguntzeko ekosisteman parte hartzen duten eragileen ebaluazioaren helburuak eta adierazleak berrikustea eta eguneratzea.
    - Ekintzailetzari laguntzeko azpiegitura-sarearen egokitze-plana garatzea, hauek helburu hartuta: lankidetza-formula eta -plataforma berriak, sareko lan-dinamika informalagoak, dibertsitatea, nahasketa, *irekitzea* eta konektibitate globala.

Zehazki, hauek dira gauzatuta edo aribidean diren programak:

| Jardun-eremua: | Programa/ Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile/Sail arduraduna | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Politikak | Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakunde Arteko Plana egitea | Ekosistemako eragileen laguntzarako barne-jarduerak eta -prozesuak | Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakunde Arteko Plana egitea. | EGL | Eusko Jaurlaritzaren beste Sail batzuk. Foru-aldundiak |
| Politikak | Programa eta jarduera ekintzaileak foru-aldundiekin eta beste eragile batzuekin koordinatzeko eta lerratzeko proiektua. | Ekosistemako eragileen laguntzarako barne-jarduerak eta -prozesuak | Programa eta jarduera ekintzaileak foru-aldundiekin eta beste eragile batzuekin koordinatzea eta lerratzea. | EGL | Foru-aldundiak Beste eragile batzuk |
| Politikak | Ekintzailetzarekin lotutako administrazio-izapideak erraztea, beste eragileekin elkarlanean | Ekosistemako eragileen laguntzarako barne-jarduerak eta -prozesuak | Ekintzailetzarekin lotutako administrazio-izapideak erraztea, beste eragileekin elkarlanean. | EGL | Beste eragile batzuk |
| Politikak | Ekintzailetzarako Euskal Zerbitzua optimizatzea, bere webgunean modu koordinatuan bistaratuz | Ekosistemako eragileen laguntzarako barne-jarduerak eta -prozesuak | Ekintzailetzarako Euskal Zerbitzua optimizatzea, bere webgunean modu koordinatuan bistaratuz. | EGL | |
| Politikak | Egungo programa eta ekintza guztiak berrikustea | Ekosistemako eragileen laguntzarako barne-jarduerak eta -prozesuak | Egungo programa- eta ekintza-multzoaren berrikusketa: egungo baldintzak malgutzea (datak, epeak, betekizunak) eta elementu berriak txertatzea, hala nola baterako inbertsioa. | EGL | Foru-aldundiak |
| Politikak | Programen jarraipen- eta ebaluazio-sistemaren berrikuspena | Ekosistemako eragileen laguntzarako barne-jarduerak eta -prozesuak | Programen jarraipen- eta ebaluazio-sistemaren berrikuspena. | EGL | Foru-aldundiak Beste eragile batzuk |
| Azpiegiturak | Enpresa eta Berrikuntza Zentroen arkitektura optimizatzea eta indartzea | Ekosistemako eragileen laguntzarako barne-jarduerak eta -prozesuak | Enpresa eta Berrikuntza Zentroen arkitektura optimizatzea eta indartzea. | EGL | |
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | BEAZekin hitzarmena | Gizartea | Sorkuntza-enpresen eraketa sustatzea, Bizkaian. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta BEAZ |
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | BEAZi ekarpena | Enpresak Ekintzaileak | BEAZen ustiaketa-defizita finantzatzea. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta BEAZ |
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | DEMAri laguntza | Gizarteko segmentu espezifikoak | Ezkerraldearen susperraldia sustatzea. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta DEMA |
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | CEDEMIri ekarpena | Enpresak Ekintzaileak | CEDEMIren ustiaketa-defizita finantzatzea. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta CEDEMI |

| Jardun-eremua: | Programa/ Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile/Sail arduraduna | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | Bic Berrilan eta Saiolan | Ekintzaileak | Enpresa eta Berrikuntza Zentroak tarteko laguntza-erakundeak dira, proiektu berritzaileak eta/edo oinarri teknologikoa duten ETEei eta ekintzaileei laguntzekoak. Interes publikoko funtzio bat betetzen dute, eta zerbitzu-sorta zabala eskaintzen dute: ebaluazioa, proiektuen onarpena eta laguntza, enpresa berritzaileen edo oinarri teknologikodunen sorkuntza... | GFA - SPRI + (Eibarreko, Donostiako eta Hernaniko udalak) + (Arrasateko Udala + MU + Ikerlan + Ulma + Jema + Erkide) | Enpresa eta Berrikuntza Zentroak (BIC Berrilan - Saiolan) |
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | Ceia | Ekintzaileak Enpresak | Enpresa-ekimenak bultzatzea eta haien garapena sustatzea. Enpresa-sustapena, aholkularitza, enpresa-trebakuntza eta azpiegiturak. | AFAko Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritza | Arabako Foru Aldundia Ceia |
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | Mintegiak (Zitek, Inizia) | Unibertsitatea | Enpresa-ehunaren sorkuntza sustatzea, ideia ekintzaileak abiapuntu hartuta, I+G+i ikerketa-taldeen emaitzetatik eratorritakoak zein Campusarekin lotura duten edo izanak diren ekintzaileek sortutakoak. | UPV-EHU | BFA |
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | Mintegiak | Enpresak Ekintzaileak | Enpresa eta pertsona ekintzaileentzako kokalekua, zientzia- eta teknologia-erakundeekin loturadunak. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila - DBHko eta Batxilergoko ikastetxeak Ekonomia Sustapena eta UPV/EHU, Tecnalia |
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | Mintegia | Ekintzaileak | Gizarte-ekonomiako enpresentzako mintegia. | Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila) | Gizarte Ekonomiako Erakundeak |
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | Nazioarteko ostatatze zentroa | Enpresak | UPV/EHUren Zientzia Parkean nazioarteko spin-offak kokatzea eta horiek EAEko enpresa-, zientzia- eta teknologia-berrikuntzarako plataformatan integratzea. | UPV-EHU | |
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | BioMintegia | Enpresak | Bioteknologiarako mintegi-azpiegitura aurreratu lehiakorra eta globala, ekonomia-garapena eta sektore berri baten sorrera (bioteknologiarena) bultzatuko dituena, Gipuzkoan. | GFA - Ekonomia eta Lehia Ministerioa (Estatuko administrazioa) - FEDER | BIC Berrilan eta sektoreko enpresak |
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | Industrialdeak | Enpresak | Izaera modularreko industrialdeen sustapena, eraikuntza eta kudeaketa, ondoren, enpresa-proiektu berriak edo zabaltzekoak dituzten sustatzaileei emateko, finantza-formula malguak eta merkatukoa baino prezio lehiakorragoa ezarrita. | Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna | SPRILUR Foru-aldundiak |
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | TEKNOLOGIA-PARKEAK | Enpresak | Parkeen helburu nagusia da gizarte- eta ekonomia-garapenean laguntzea, proiektu teknologikoki aurreratuen sorkuntzan eragiten duten ekonomia-eragileak inguratuz, kokapen eta azpiegitura egokiak emanez, jakintza-elkartrukea gerta dadin, eta hala, enpresa-proiektu berriak sor daitezen. | SPRILUR - FORU ALDUNDIAK - UDALAK | Teknologia-parkeak |
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | Behargintzak | Gizartea | Enpresa txikiak eta autoenplegua sortzeko eta abian jartzeko laguntza ematea. Behargintza zentro bat baino gehiago dago EAEn, oro har, Udaletako zerbitzuen barnean. Bakoitzak bere ekintzak garatzen ditu, ekintzailetzaren arloan, eremu edo udalerriaren beharrizanak kontuan hartuta, bai eta proiektua bera ere. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | |

| Jardun-eremua: | Programa/ Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile/Sail arduraduna | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | Garaia Berrikuntza Gunea | Enpresak | Berrikuntzarekin, garapenarekin eta ekintzailetzarekin lotzeko gune bat. Berrikuntzarekin lotutako askotariko erabileratarako espazioak eskaintzen dira, alokairuan, ikerkuntza eta proiektuen garapena sustatzeko. | SPRILUR - GFA - MONDRAGON TALDEA | Garaia Berrikuntza Gunea |
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | Entreprenari Gunea | Unibertsitatea | Campuseko ikerkuntza-taldeen, doktoreen, irakasleen eta ikasleen teknologia-transferentziarako proiektuetara bideratutako enpresa berritzaileen sorkuntza bultzatzea. | GFA | BIC Berrilan<br>UPV-EHU<br>El Diario Vasco<br>Kutxabank |
| Ideiak eta ekimen berriak | ZITEK | Unibertsitatea | Ekintzailetzaren kultura sustatzea; bai eta enpresa berritzaile eta oinarri teknologikodunak ere, Enpresak Sortzeko laguntza Programa bat abian jarriz, EHU-ABIATU, unibertsitate-komunitateari zuzenduta (ikertzaileak, irakasleak, lizentziatuak, graduatu ondoko ikasleak...) Bizkaiko Campuseko mintegien bitartez. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | SPRI<br>BEAZ<br>UPV/EHU |
| Laguntzarako azpiegiturak eta zerbitzuak | Lehiberri (Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Zentroa) | Enpresak | Elkartu, trebatu eta garatzeko leku bat Tolasaldeko enpresentzat. Enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzen du, trebakuntzaren, enpresen arteko lankidetzaren, ekintzailetzaren eta nazioartekotzearen bidez. | GFA + UDALAK + estatuko Administrazio Orokorra + FEDER... | Lehiberri (Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Zentroa), Tolosaldea Garatzen |
| Finantzaketa | Hazi-kapitalaren funts bat, ekintzailetzarako (EKINTZAILE XXI) | Ekosistemako eragileen laguntzarako barne-jarduerak eta -prozesuak | Hazi-kapitalaren funts bat, ekintzailetzarako. | EGL | |
| Finantzaketa | Business Angel-en sareentzako laguntzen direktorio bat eta programa bat garatzea | Ekosistemako eragileen laguntzarako barne-jarduerak eta -prozesuak | Business Angel-en sareentzako laguntzen direktorio bat eta programa bat garatzea. | EGL | |
| Finantzaketa | Business Angels sareak bultzatzeko programa bat abian jartzea | Ekosistemako eragileen laguntzarako barne-jarduerak eta -prozesuak | Business Angels sareak bultzatzeko programa bat abian jartzea. | EGL | |
| Finantzaketa | Luzaro | Enpresa berritzaileak | Baldintza oso onetan emandako mailegua, enpresa berriak abian jartzeko. SPRIk Ekintzaile programaren II fasetzat zehaztua. | EGL | SPRI |
| Finantzaketa | Crecer+ Business Angels | Ekintzaileak | Business Angel-en inbertitzaile-komunitate bat sustatzea, EAEn, kapital-ekarpen burutsuak egin diezazkieten fase oso goiztiarrean dauden eta hazkunde azkarra izan dezaketen negozioei. | Orkestra | SPRI, GFA, AEBAN (Business Angel-en Espainiako Elkartea), besteak beste |
| Finantzaketa | SEED CAPITALi egindako ekarpenak | Enpresak | SEEDen ustiaketa-defizita finantzatzea. | BFAko Ekonomia Sustapen Saila | Ekonomia Sustapen Saila eta SEED CAPITAL |
| Finantzaketa | Seed Gipuzkoa arrisku-kapitalaren elkartea | Enpresak | Finantza-baliabideak ematea, enpresen kapitalean aldi baterako parte hartuz, enpresen ekonomia- eta finantza-egonkortasuna areagotzeko. Eta horrez gain, balioa areagotzea, elkartearen kudeaketan parte hartuz. | GFA - EZTEN arrisku-kapitalaren funtsa (% 50-% 50) | Eusko Jaurlaritza, SPRI, KUTXA, Laboral kutxa |
| Finantzaketa | Abalak | Enpresak/Intraekintzailetza | Arabako ETEen eta autonomoen enpresa-proiektuen finantzaketa errazteko programa, Arabako Foru Aldundiaren abalaren bidez. Abalaren xede da Hornidura Teknikoen Funtsari ekarpenak egiteko konpromisoa, proiektu horiek finantzatze aldera, Elkarren Bermerako Sozietateen abalen baitako huts egindako eragiketen zati baten ordainetan. Bi lerro barne hartzen ditu: ekintzailetza-proiektuei dagokiena, eta GREEN enpresen kokapenari dagokiona. | AFAko Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritza | Elkargi EBB eta Oinarri EBB. |

| Jardun-eremua: | Programa/ Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile/Sail arduraduna | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Finantzaketa | Hazibide SA | Enpresak | Ekintzaileei laguntzeko eta finantzatzeko ekintzak (hazi-kapitalaren elkartea). | AFAko Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritza | AFA, Caja Vital Kutxa, Vitoria-Gasteizeko Udala, Talde, Erkide |
| Finantzaketa | Mikroekintzailetzarako mikrokredituen programa | Enpresak | Finantzaketa lortzeko aukera, bereziki, ohiko finantza-erakundeek proiektuaren bideragarritasunaz gaineko bermeak eskatzen dituzten kasuetarako. | Lanbide | Finantza Erakundeak eta Tokiko Garapen Agentziak. |
| Finantzaketa | Langabezia-prestazioaren kapitalizazioa, lanpostu autonomoa sortzeko. | Ekintzaileak | Langabezia-prestazioaren kapitalizazioa, lanpostu autonomoa sortzeko. | Lanbide | |
| Finantzaketa | Formula berriak aztertzea: atzerriko kapitala erakartzea, crowfundiga, etab. | Ekosistemako eragileen laguntzarako barne-jarduerak eta -prozesuak | Formula berriak aztertzea: atzerriko kapitala erakartzea, crowfundiga, etab. | EGL | |

## 7. EKINTZA-PLANA

Eragile parte-hartzaileek Plan honetan nabarmendutako lehentasunak ekosistemaren hobekuntzarako eta aurrerapenerako benetako ekintza eta proiektu bihurtzeko gogoa azaldu dute, eta horren ondorioz, ekintza-plan bat zehaztu da, lehenbiziko urteetan gauzatzeko.

Ekintza-planean bereizten dira lehenbiziko 100 egunetan egiteko ekintzak (plana martxan jartzeko egin behar diren ekintzak), batetik, eta legegintzaldiaren amaiera arteko geratzen diren hiru ekitaldietan egiteko ekintzak, bestetik.

<u>100 egunerako Ekintza Plana:</u>

| Kudeaketa- eta jarraipen-organoak | Eginkizunak | Datak |
|---|---|---|
| Artezkaritza Kontseilua | - Lankidetzarako Esparru Akordioa zabaltzea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailera, Enplegu eta Gizarte Politikak Sailera, eta Osasun Sailera<br>- Planaren aurkezpen publikoa | - Burutu gabea<br>- Burutu gabea |
| Erakunde Arteko Mahai politiko-tekniko osokoa | - Gaikako lantaldeak identifikatzea<br>- Planaren barne-onarpena eta -tramitazioa erakunde bakoitzean | - Burutu gabea<br>- Burutu gabea |
| Gaikako lantaldeak | - Talde bakoitzeko parte-hartzaileak zehaztea | - Burutu gabea |
| Idazkaritza | - Planaren behin betiko dokumentua egitea eta kontrastatzea<br>- 2014rako Ekintza Plana ("300 egunerako Plana") egitea eta kontrastatzea | - Burutu gabea |

<u>1500 egunerako Ekintza Plana:</u>

<table>
<tr><th>Kudeaketa eta jarraipen-organoak</th><th>Eginkizunak</th><th>Datak</th></tr>
<tr><td>Artezkaritza Kontseilua</td><td>- Ikuskapena</td><td>- Etengabea</td></tr>
<tr><td>Erakunde Arteko Mahai politiko-tekniko osokoa</td><td>- 1. bilera: 2014rako plangintza eta taldeak abian jartzea<br>- 2. bilera: adierazleak eta aurrerapen-maila berrikustea<br>- 3. bilera: aurrerapen-maila berrikustea eta 2015erako Plana</td><td>- Lauhilekoko maiztasuna</td></tr>
<tr><td>Gaikako lantaldeak</td><td>- Gaikako bilerak egitea bi hilean behin, alor bakoitzean identifikatutako lehentasunezko ekintzak garatzeko:<br>- <u>1. eta 2. jardun-eremuak: Ideiak eta ekimen berriak, eta hazkundea, sendotzea eta transmisioa</u><br>- Ekintzailetzari laguntzeko zentroek emandako zerbitzuak berrikustea (eta "premium" zerbitzuak gehitzeko aukera aintzat hartzea), bai eta haien onartze- eta graduatze-irizpideak berrikustea ere.<br>- <u>3. jardun-eremua: Ekintzailetzaren kultura eta balioak</u><br>- Erakunde arteko urteko egutegi bakarra. Ekintzailetza sustatzeko EAEko eta kanpoko ekitaldi nagusiak jasoko dira egutegian: azokak, sariak, hitzaldiak, lehiaketak, etab.<br>- EAEko ekintzailetzako adibide nabarmenak identifikatzea eta sustatzea (tokiko, eskualdeko eta nazioarteko esparruan).<br>- <u>4. jardun-eremua: Intraekintzailetza</u><br>- Erreferentziazko enpresa-multzo bati gonbidapena egitea, intraekintzailetzako prozesu pilotuetan eragile traktoreak izan daitezen, enpresa-sektorearen inplikazioa sustatzeko ekintzailetzaren laguntzan.<br>- <u>5. jardun-eremua: Politikak, azpiegiturak eta finantziazioa</u><br>- Finantza-tresna berriek ematen dituzten aukerak aztertzea: hazi-kapitaleko funts misto publiko-pribatuak, mikrokredituak, crowdfundinga, etab.<br><br>- Adierazleak neurtzea eta idazkaritzari jakinaraztea.<br><br>- Ekintza berriak eta aurrekontuak idazkaritzari jakinaraztea, plan eguneratuan sartzeko.</td><td>- Hautazko maiztasuna<br><br>- Burutu gabea<br><br>- Burutu gabea</td></tr>
<tr><td>Idazkaritza</td><td>- Bilerak prestatzea eta dinamizatzea, eta ondorioak ateratzea.<br>- Laguntza aditua, ekintza berriak egiteko proposamenak identifikatzeko.<br>- Gaikako lantaldeen aurrerapen-mailaren jarraipena.<br>- Ebaluazio-txosten labur bat prestatzea, zehaztutako adierazleak oinarri hartuta.<br>- Plana eguneratzea, ekintza berriak eta zehaztutako aurrekontuak kontuan hartuta.</td><td>- Etengabea</td></tr>
</table>

## 8. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakunde Arteko Planaren helburua da EAEko ekintzailetzaren plangintza eta koordinaziorako tresna nagusia izatea, alor politikoan zein teknikoan, planaren diseinuan parte hartu duten eragile guztientzat.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko sailburuak eta hiru foru-aldundietako Ekonomia Sustapeneko aldundiek sinatutako Euskal Ekintzailetza Sistema Garatzeko Lankidetza Hitzarmen Markoa erreferentziatzat hartuta, sistema sinple bat ezarriko da planaren urteko jarraipena egiteko:

1. Egikaritzapena. Gure erakundeen egungo ekonomia-testuinguruan, are garrantzitsuagoa da politika publikoak egikaritzean gero eta eraginkortasun- eta koordinazio-maila hobeak lortzeko helburuan aurrerapenak etengabe egitea.

   Planak eragile publikoen arteko lankidetzarako esparru bat eskaintzen du, helburu hauek lortzeko: taldeen arteko koordinazioa indartzeko lan-sistema sendotzea, sistemaren eraginkortasuna areagotzen dela bermatzea, eta planean jasotako ekintzen betetze- eta eragin-maila handiak direla bermatzea.

2. Ebaluazioa. Herritarrek gardentasun eta ardura handiagoz jokatzeko eskatzen diote ekintza publikoari, eta Administrazioek beren politiken jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak eta prozesuak ezarri behar dituzte.

   Planak beherago zehaztutako aginte-koadroa izango du, eta urteko ebaluazioaren dinamika proposatzen du, zehaztutako bost jardun-eremuetako bakoitzeko ekintzen eta programen aurrerapen-maila zein eragina aztertzeko.

3. Egokitzea. Pertsonek eta enpresek aurre egin beharreko erronken aniztasuna eta larritasuna ikusita, Administrazioek jarduteko eskema arinak abian jarri behar dituzte, beren politikak doitzeko eta egokitzeko, gero eta aldakorragoa den errealitatea kontuan hartuta.

   Horregatik, Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakunde Arteko Planak urtean behingo berrikuspenak eta egokitzapenak proposatzen ditu, administrazio publikoek aurrekontuak egiteko erabiltzen dituzten epeak kontuan hartuta, planean jasotako lehentasunak eta ekintzak berrikusi ahal izateko eskaera eta premia aldakorren arabera.

Horretarako, organo hauek ezarriko dira:

- Artekaritza Kontseilua. Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako zazpi sail eta arlo parte-hartzaileen arduradun politiko gorenek osatuko dute, eta plana behar bezala betetzen dela zainduko dute.
- Erakunde Arteko Mahai politiko-tekniko (osokoa). Planean parte hartzen duten erakundeetako (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak) ekintzailetzaren alorreko arduradun politikoek eta/edo teknikoek. Mahai horren ardura izango da egindako ekintzei zein planera gehitutako ekintzei buruzko informazioaren jarraipena egitea, eragileen eta proiektuen artean egon daitezkeen sinergien eta lankidetza-aukeren analisi xehatua egitea, eta elkarrekin egiteko proiektu berriak proposatzea. Mahai hori lau hilean behin bilduko da.
- Gaikako lantaldeak. Erakunde Arteko Mahaiak diseinatutako eta bultzatutako taldeak dira eta hautazko maiztasunez bilduko dira, beren ezaugarrien arabera. Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta ekosistemako gainerako eragileen teknikariek osatuko dituzte taldeak, gai eta premia zehatzen arabera. Hobekuntzarako lehentasunezko ekintzak eztabaidatzea, zehaztea eta martxan jartzea dagokie, eta ekosistemako ekintzen multzoaren jarraipena egin beharko dute. Halaber, aldi baterako ad-hoc taldeak sortu daitezke, lan teknikoa behar duten ekintza espezifikoak egiteko. Talde horiek ekosistemako eragileen ordezkari egokiek osatuko dituzte, eta kasuan kasu hautatuko dira.
- Idazkaritza. Bileretarako agenda eta materialak prestatzeaz arduratuko da. Halaber, jarraipeneko urteko txostena zein ekintzen ebaluazioa egiteaz eta, hala badagokio, plana eguneratzeaz arduratuko da.

**PLANEAN LEHENTASUNA EMANDAKO AURRERAPEN-ILDOAK, PLANAREN EPEALDIAN GARATZEKO**
Ekintza horiez gain, Erakunde Arteko Mahaian sortutako beste batzuk ere gehi daitezke

| | Lehentasun handikoak | Lehentasun ertainekoak |
|---|---|---|
| 1. taldea: Zerbitzuen berrikuspena | • Laguntza-zentro publikoetan emandako zerbitzuak berrikustea (aurre-inkubazioa eta inkubazioa) | • Gizarte-ekintzailetzarako erakunde arteko programa<br>• Aditu-sare bat sortzea<br>• Enpresen hazkunderako eta sendotasunerako funts publiko-pribatu bakarra eratzea<br>• Ekintzaile-sareak sustatzea |
| 2. taldea: Ekintzailetza-kultura | • Erakunde arteko urteko egutegi bakarra<br>• Ekintzailetzako adibide nabarmenak identifikatu eta sustatzea | • Ikasleentzako enpresa-erronken programa diseinatzea |
| 3. taldea: Intraekintzailetza | • Erreferentziazko enpresa-multzo bati gonbidapena egitea, intraekintzailetzako prozesu pilotuetan eragile traktoreak izan daitezen | |
| 4. taldea: Ekosistemaren integrazioa | • Mintegien onartze- eta graduatze-irizpideak berrikustea<br>• Finantza-tresna berriek ematen dituzten aukerak aztertzea | • Ekintzailetzari laguntzeko ekosisteman parte hartzen duten eragileen akreditazio-sistema.<br>• Ekintzailetzari laguntzeko azpiegitura-sarearen egokitze-plana garatzea |
| Ad-hoc taldeak | • Aldi baterako talde berriak, Erakunde Arteko Mahaiko kideen lan teknikoa eskatzen duten proiektu espezifikoak egiteko.<br>• Talde horiek kasuan kasu egokitzat jotako pertsonek osatuko lituzkete eta haien iraupena taldearen ezaugarrien araberakoa izango litzateke. | |

Planeko lehentasunezko aurrerapen-ildoak, 2014-2016 aldian garatzeko

Planean zehaztutako jarraipen-dinamika hori Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetzak gidatutako prozesua izango da, eta bi atal izango ditu:

1. Emaitzak ebaluatzea eta aurkeztea. Urteko lehen seihilekoan, aginte-koadroa oinarri hartuta, zehaztutako ekintzen ebaluazioa egingo da, honako hauek aztertzeko: egikaritze- eta ahalegin-maila, jarduerak eta eragina.
2. Ekintzen eta aurrekontuen berrikuspena. Urtero, irailean, eragile bakoitzak bere ekintza berriak eta aurrekontuak aurkeztuko ditu, eta planean jada dauden ekintzen baliozkotasuna berrikusiko du.




## Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko dinamika

Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakunde Arteko Planaren jarraipen- eta ebaluazio-sistema gauzatzeko, hiru mailako aginte-koadro bat zehaztu da, honako hauek neurtzeko:

1) Egikaritzea eta ahalegina, planaren garapenean

2) Zuzenean sorrarazten dituen jarduerak

3) Adierazitako helburuak lortzeko ekarpenak.

Aginte-koadroa diseinatu da zehaztasuna, lautasuna eta garrantzia oinarrizko irizpide gisa hartuta, 35 adierazle kontuan izanda:

1. Egikaritzearen eta ahaleginaren adierazleak *(4 adierazle)*. Planaren jardun-eremu bakoitzari erreparatuta, hari lotutako ekintzen betetze-maila jakiteko aukera ematen dute, bai eta esleitutako baliabide ekonomikoak eta eragindako baliabide pribatuen (halakorik balego) zenbatekoa ere.

   Bost jardun-eremuetako bakoitzerako:

| |
|---|
| Zehaztutako ekintza eta programak zer neurritan jarri diren martxan: martxan jarritako ekintzen ehunekoa. |
| Ekintza eta programetarako esleitutako baliabide ekonomikoak: M € |
| Ekintzen eta programen bidez eragindako baliabide ekonomiko pribatuak: M € (baterako inbertsioa dakarten programetan aplikatzen bada). |
| Ekintzetan eta programetan parte hartzen duten eragile desberdinen kopurua. |

2. Jarduera-adierazleak (15 adierazle). Jardun-eremu bakoitzeko ekintza eta programek zuzenean sortutako jardueraren berri jakiteko aukera ematen dute. Jardun-eremu bakoitzean, helburu estrategikoa eta bigarren mailako helburuak betetzearekin lotutako jarduera-adierazle adierazgarrienak hautatu dira, eta kasu gehienetan, egun neurtzen diren adierazleak identifikatu dira. Programa bakoitzean, eragile arduradunek idazkaritzari jakinarazi beharko dizkiote haien programei dagozkien adierazleen neurketen emaitzak.

| Jardun-eremua: | Jarduera-adierazleak |
|---|---|
| 1. Ideiak eta ekimen berriak | - Euskadi Emprende webgunean, leihatiletan eta PAIT guneetan egindako kontsulten kopurua (lekuan bertan egindako kontsultak eta kontsulta telematikoak bereizita)- Aholkularitza jasotako proiektu ekintzaileen kopurua<br>- (Programen bidez) Egindako bideragarritasun-planen kopurua |
| 2. Hazkundea, sendotzea eta transmisioa | - Programetan parte hartzen duten proiektuen/enpresen kopurua<br>- 5 urtetik beherako bizitza duten euskal enpresetan inbertitutako kapitala (M €)<br>- Ekintzaileei transmititutako enpresen kopurua |
| 3. Ekintzailetzaren kultura eta balioak | - Ekintzailetza sustatzeko programaren batean parte hartzen duten ikastetxe eta unibertsitateen kopurua<br>- Ekintzailetza-sarietara aurkeztutako proiektuen kopurua<br>- Inplikatutako pertsonen kopurua |
| 4. Intraekintzailetza | - Intraekintzailetza-programetan parte hartzen duten enpresen kopurua<br>- Enpresek horrelako programetan inbertitutako diru-kopurua (M €) |
| 5. Laguntza-ekosistemaren integrazioa | - Lankidetzan egindako edo lotutako programen kopurua<br>- Mintegietan aurkeztutako eta onartutako pertsonen eta proiektuen kopurua<br>- Mintegietako errotazio-maila<br>- EAEn sortutako enpresa guztiak kontuan hartuta, jasotako laguntza publikoa zenbaterainokoa izan den<br>- Business Angel-en sare barruko inbertitzaileen kopurua |

3. Eragin-adierazleak (16 adierazle). Zenbait ekonomia- eta gizarte-adierazlek EAEn zer-nolako bilakaera izan duten jakiteko dira. Adierazle horietan eragin nahi da, hain zuzen, jardun-eremu bakoitzean zehaztutako programen bidez. Gure inguruko erakunde ezagunek (GEM txostena, INE edo EUSTAT) neurtutako adierazle garrantzitsuak hautatu dira.

| Jardun-eremuak | Eraginaren adierazleak |
|---|---|
| 1. Ideiak eta ekimen berriak | - Guztizko ekintzailetza-tasa (GEM)<br>- EAEn autoenplegatutako pertsonen kopurua (INE)<br>- Beharrak bultzatuta zein aukerak baliatzeko sortutako proiektu ekintzaileak (% ) (GEM) |
| 2. Hazkundea, sendotzea eta transmisioa | - Empresa sortu berriek sortutako lanpostuen kopurua (GEM)<br>- Eskainitako produktu eta zerbitzuen zein erabilitako teknologien berrikuntza-maila (GEM)<br>- Sortutako enpresen lehia-maila eta jardun-eremuak (GEM)<br>- Sortutako enpresek lortutako finantziazioaren jatorria (GEM)<br>- Sortutako enpresen nazioartekotze-maila (GEM) |
| 3. Ekintzailetzaren kultura eta balioak | - Ekintzailearen profilaren ezaugarrien bilakaera (GEM)<br>- Negozio-aukerak hautematen dituzten pertsonak (% ) (GEM)<br>- Proiektu ekintzaileak martxan jartzeko behar diren gaitasunak dituztela uste duten pertsonak (% ) (GEM)<br>- Porrotarekiko beldurra ekintzailetzarako oztopoa dela uste duten pertsonak (% ) (GEM) |
| 4. Intraekintzailetza | - Intraekintzailetza-jarduerak egiten dituzten enpresen ehunekoa (GEM)<br>- Intraekintzailetzaren bidez sortutako enpresen kopurua<br>- Enplegua izan eta intraekintzailetza-proiekturen batean parte hartzen duten pertsonen ehunekoa (GEM) |
| 5. Laguntza-ekosistemaren integrazioa | - Ekosistemaren analisi konparatiboa, adituek egina (GEM):<br>  - Finantza-laguntza<br>  - Kolektibo espezifikoetarako laguntza<br>  - Azpiegiturak<br>  - Politikak<br>  - Administrazio-sinplifikazioa<br>  - Jakintzaren transferentzia<br>  - Enpresaburuaren figuraren balorazioa |

Aginte-koadroaren urteko neurketa-prozesua planeko Idazkaritzak gidatuko du, eragile parte-hartzaileek emandako informazioa eta beste erakunde batzuek (GEM, INE edo EUSTAK) argitaratutako informazioa oinarri hartuta.

## 9. AURREKONTUA

Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakunde Arteko Planaren 2013-2016 aldirako aurrekontua lotuta dago zuzenean honako erakunde hauen aurrekontu arruntekin: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Enplegu eta Gizarte Politika Saila; hiru foru-aldundietako Ekonomia Sustapena eta Berrikuntza departamentuak; eta zuzenean inplikatutako sozietate publikoak (enpresa- eta berrikuntza-zentroak, Lanbide, UPV-EHU, etab).

Hain zuzen ere, planarekin zuzenean lotutako 2013rako aurrekontua 63 milioi eurokoa izan da. Kontuan hartu behar da planean sartutako zenbait proiektuk ez dutela aurrekonturik esleituta, dela oraindik diseinu-fasean daudelako, dela aurrekontu-esleipenik behar ez duten programak direlako (pertsonen dedikazioa, kolaborazioak, etab.).

| Jardun-eremua: | Programa-kopurua | Dagokion aurrekontua (2013ko datuak) |
|---|---|---|
| 1. IDEIAK ETA EKINTZAILETZARAKO EKIMEN BERRIAK | 30 | 13.908.695 € |
| 2. HAZKUNDEA, SENDOTZEA ETA TRANSMISIOA | 19 | 20.573.889 € |
| 3. EKINTZAILETZAREN KULTURA ETA BALIOAK | 29 | 724.949 € |
| 4. EKINTZAILETZA KORPORATIBOA | 6 | 3.414.258 € |
| 5. LAGUNTZA-EKOSISTEMAREN INTEGRAZIOA | 37 | 23.680.980 € |
| | 110* | 62.302.771 € |

* Egun egiten ari diren programen guztizko kopurua kalkulatzeko, jardun-eremu bakoitzean ageri diren programak behin kontatuz.

Jardun-eremu bakoitzarekin lotutako aurrekontuaren laburpena

Aurrekontu estua da, gure administrazioen gaur egungo markoak mugatua (aurrekontu-egonkortasuna eta gastu-ahalmenaren berreskuratze geldoa, alegia). Etorkizunerako, inbertsio-ildo horren alde egingo da, eta hipotesi hori kontuan hartuta, plana X. Legegintzaldi osora (2013-2016) estrapolatuz gero, aurrekontu-esleipena 266 milioi €-koa izango litzateke (2013an, 62 milioi; 2014an, 65; 2015ean, 68; eta 2016an, 71).

Horrez gain, planak beste baliabide batzuk lor ditzake honako hauen bidez:

- Eragile parte-hartzaileek baliabideak jartzea, proiektu berriak eta lehentasunezko jardun-ildoak garatzeko. Ekarpenak egiteko irizpideak adostu egingo lirateke, lehentasuna emandako proiektu berri bakoitzaren premiak eta Ekintzailetzari Laguntzeko Erakunde Arteko Funtsaren zuzkidura kontuan hartuta. (2014an zehazteko)

- EAEko altxortegiak izan ditzakeen aurrekontu-sarreren bilakaera. Positiboa balitz, planak baliabide gehigarriak lortu ahal izango lituzke, ekintzailetza-jardueran eragin handiagoa izateko, aurreikusitako ekimenen edo ekintza berrien bidez.
- EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) alderdien arteko ituna dela eta, akordio horretan xedatutako erreforma fiskalaren eta iruzurraren aurkako borrokaren bidez lortutako baliabideen % 50 ekonomia suspertzeko eta enplegua sustatzeko erabiliko da, eta bereziki, ekintzailetza eta tokiko ekonomia sustatzeko.
- Bestalde, Ekintzailetza Jarduerari Laguntzeko Erakunde Arteko 2013-2016 Planean jasotako jardun-lerroetarako, autonomia-erkidegoek estatuko gobernutik (EBko funtsen bidez) ekintzailetza sustatze aldera jasotako aurrekontu-sailekin osa daitezke baliabideak.

Azkenik, kontuan hartu behar dugu Legegintzaldiaren hasieratik berehalako eraginerako neurriak martxan jarri direla, bai ekonomia oro har suspertzeko, bai ekintzailetza eta enplegua bereziki sustatzeko. Hortaz, krisiaren ekonomia- eta gizarte-ondorioei aurre egiteko, 2013an, ekonomia eta enplegua suspertzen laguntzeko txoke-planak jarri dira martxan, eta horietan 1.000 milioi €-tik gora mobilizatu dira, zuzenean edo zeharka.

# I. ERANSKINA

## Beste eragile batzuek garatutako programen xehetasunak

## Udalak:

| Eragilea | Programa/Jarduera | Hartzailea | Ekintzailetza-prozesuaren faseak | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Bilboko Merkataritza Ganbera | PAEM (Emakumeei Enpresarako Laguntza emateko Programa) | Gizarteko segmentu espezifikoak (emakumeak) | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza<br>Ideia zehaztea eta proiektua egitea<br>Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea<br>Sozietatea garatzea | Emakumeei Enpresarako Laguntza emateko Programak (PAEM) helburu hauek ditu: emakumeak autoenpleguaren eta enpresa-jardueraren alde sentsibilizatzea, eta haiek gidatutako enpresak sortu eta sendotzeko tresna eraginkorra izatea. Ekintzailetzarako grina duten emakumeen ekimenei laguntza emateko diseinatutako dago, proiektuaren edozein fasetan, dela enpresa-ideiaren hasieran, dela martxan jartzean, dela enpresa sendotzean. | Ekonomia Sustapenerako Departamentua eta Merkataritza Ganbera |
| Bilboko Udala | Bilbao Eutokia - Ekintzaileak | Ekintzaileak | Ideia zehaztea eta proiektua egitea<br>Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea<br>Sozietatea garatzea | Bilbao EUTOKIAk, eremu fisikoa izateaz gain, gizarte-berrikuntzarako ekosistema bat du (pertsonak, eragileak, erakundeak...), gizarte-berritzaileak lotu, inspiratu eta bultzatzeko. | Bilboko Udala<br>Bilbao Ekintza<br>Innobasque<br>INIT |
| Bilboko Udala | Enpresa-ideiaren bideragarritasuna | Ekintzaileak | Ideia zehaztea eta proiektua egitea | Zerbitzu horren bidez, enpresa-ideiaren bideragarritasuna aztertzeko, negozio-plana egiteko eta etorkizuneko enpresa egoki kudeatzeko behar den laguntza ematen da, doan. | |
| Bilbao Ekintza | Ekintzailearen Eguna | Gizartea | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza | Urtean behingo ekitaldi ludiko eta soziala da, dibulgaziozkoa, Bilboko ekintzaileen lana aitortu eta saritzeko. Egun horretarako, ponentziak eta jarduerak antolatzen dira, ekintzailetza-kultura herritar guztiei helarazteko. | |
| Bilbao Ekintza | Saltoki berrietarako finantziazioa | Ekintzaileak<br>Enpresak | Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea | Bilbao Ekintzaren helburua da proiektu berriak dituzten merkatariei, ekintzaileei eta, oro har, ETEei laguntza ematea, negozioak martxan jartzeko behar diren finantziazio-iturriak eta abalak eskuratzeko. | Oinarri |
| Bilbao Ekintza | DENDAZ DENDA PROGRAMA | Ekintzaileak<br>Enpresak | Ideia zehaztea eta proiektua egitea<br>Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea | Dendaz Denda Programa Bilboko merkataritzarako laguntza-plana da, eta enpresa-ekimen berriei babesa ematen die, prestakuntzaren eta bideragarritasun-azterketak egiteko aholkularitzaren bidez. | Europako Gizarte Funtsa |
| Bilbao Ekintza | Bideragarritasun-azterketak egiteko laguntza,<br>enpresak sortzeko proiektuetan | Ekintzaileak<br>Enpresak | Ideia zehaztea eta proiektua egitea | Negozio-plana egiteko prestakuntza- eta aholkularitza-zerbitzuak eta beste laguntza-zerbitzu batzuk eskaintzen ditu, bideragarritasun-azterketetarako eta enpresa martxan jartzeko izapideetarako lanak errazteko. | Europako Gizarte Funtsa |
| Bilbao Ekintza | Explot Esperientzia | Hezkuntza orokorra | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza | Ekintzailetza-kultura hedatzea Bilboko ikastetxeetan. Sormena berraktibatu eta sustatu nahi dugu, gazteenak emozionatzeko moduko ideiak eta proiektuak detektatzeko, etorkizuneko ekimenen gidari izan daitezen. | |
| Bilbao Ekintza | Ekiten ikasi | Hezkuntza orokorra | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza | Bilboko ikastetxeetarako programa, gazteenen ekintzailetza sustatzeko. Proiektuan, ideia bat bilatzea eta negozio-plan batean garatzea proposatzen da. Didaktika-materialak eta metodologiak ematen ditugu, bai eta enpresa-ekimena sustatzeko jarduerak egiteko laguntza ere. Gaitasunak, trebetasunak eta ezagutzak eskaintzen ditugu, parte-hartzaileek beren proiektuak edo lanbide-ibilbideak kudea ditzaten. Urtero, Ekiten Ikasi Ideia Lehiaketa antolatzen dugu. | |
| Bilbao Ekintza | Emprender en Bilbao-Langintza Bilbon | Ekintzaileak | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza | Enpresa-ekimenen lehiaketa, Bilbon enpresaren bat sortzeko proiektua duten pertsonentzat. Helburua ekintzailetza sustatzea da, eta autoenplegurako eta hirian enpresa berriak sortzeko ekimenei laguntza ematea. | |

| Eragilea | Programa/Jarduera | Hartzailea | Ekintzailetza-prozesuaren faseak | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Donostiako Udala | Donostiako Sustapena | Ekintzaileak | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza<br>Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea<br>Ideia zehaztea eta proiektua egitea<br>Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea | Zure enpresa berritzaile izan dadin laguntzen dizugu, eta zure proiektuaren berrikuntza-kurba areagotzen jakin dezazun. Enpresa-kudeaketarako tresna aurreratuenak eskaini nahi dizkizugu. Funtsean, arrakasta bermatzeko behar duzun benetako babesa eskaini nahi dizugu. | |
| Gasteizko Udala | Ekintzaileentzako bekak - 2013<br>Empresa Local 10 | Ekintzaileak | Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea | Ekintzaileei laguntzea haien enpresa-proiektuaren garapen-aldian. 5 hilabetekoa izango da, gehienez. | Ekonomia Sustapenerako Departamentua<br>Europako Gizarte Funtsa |
| Gasteizko Udala | Enpresentzako eta ekintzaileentzako prestakuntza | Ekintzaileak<br>Enpresak | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza | Gasteizko Udalak zenbait arlotako prestakuntza-jarduerak antolatzen ditu, presentzialak zein e-learning bidezkoak. | |
| Gasteizko Udala | Ekintzaileei Laguntzeko Plan Integral Pertsonalizatua - 2. edizioa | Ekintzaileak | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza<br>Ideia zehaztea eta proiektua egitea<br>Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea | Gasteizko Udalean, badakigu ekintzaileak ezinbestekoak direla lurraldearen garapenerako, eta aurre egin behar dietela zalantzei eta prestakuntza- eta finantza-babesa izateko premiei. Gure hirian ekintzailetzaren alde egiten dugu, planak eta ekintza zehatzak garatuz. Zure ideietan sinesten dugu, sinesten dugu aukerak dituzula zerbait berria, bakarra eta berritzailea sortzeko. Honako hauek hartzen ditu barnean: elkarrizketa, prestakuntza, aholkularitza, bekak eta mintegia. | Eusko Jaurlaritza<br>Lanbide<br>Europako Gizarte Funtsa |
| Arabako Merkataritza Ganbera | Entretrain | Pertsonak eta enpresak | Ekintzailetzako eta intraekintzailetzako ekimenen zenbait esparru eta fase | Ekintzailetza-kultura sustatzea pertsonen eta enpresen artean, ETE bat sortzeko eta kudeatzeko behar diren prestakuntza eta gaitasunak eskuratzen lagunduz. Halaber, proiektu berrietan nazioartekotzeko helburua sustatzea.<br>4 hizkuntzatan eskainitako atari batean gauzatu da, eta prestakuntza-eduki biribilak eta tresnak eskaintzen dira bertan. | Europako herrialdeetako bazkideak |
| Arabako Merkataritza Ganbera | Enpresa-sormenerako ikastaroa | Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza | Ikasleentzako lehiaketa da. Lehiaren xedea da ikasleen inguruneko enpresa baten benetako arazo baterako konponbide berritzaile onena ematea. | |
| Arabako Merkataritza Ganbera | Enpresa Berrien Kluba | Enpresa sortu berriak | Enpresa sortu berriak sendotzea | Enpresaren bizitzako lehen bost urteetan, Klubak abantailak eskaintzen dizkie Ganberaren zerbitzuetan, bai eta sendotze-fasean dauden enpresetarako zerbitzu eta jarduerak ere. | |

## Tokiko garapen-agentziak:

| Ekintzailetza-prozesuaren faseak | Eragilea | Programa/Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak | Garapen-agentziak | Informazioa eta aholkularitza | Ekintzaileak | Informazio-, aholkularitza- eta laguntza-zerbitzu presentzialak ematea, enpresa-ekimenak martxan jartzerakoan. | Garapen-agentziak |
| Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak | Gasteizko Udala | Basaldea | Ekintzaileak | Enplegua eta negozioak sortzea, produktu ekologikoen ekoizpenaren eta banaketaren sektorearen inguruan. | Gasteizko Udala |
| Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak | Basauri-Etxebarriko Behargintza | Merkataritza-aholkularitzarako eta aholkularitza ekonomiko-finantzariorako programa | Ekintzaileak | Jarduera-planak garatzea merkataritza-esparruan zein esparru ekonomiko-finantzarioan, aholkularitza espezifikoa emanez. | Basauri-Etxebarriko Behargintza |
| Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak | Gipuzkoako agentziak | Hizkuntzen kudeaketa ekintzailetzan | Ekintzaileak | Hizkuntzen kudeaketarekin lotutako elementuak balio erantsi gisa sartzea bideragarritasun-planetan | Gipuzkoako agentziak |
| Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak | Garapen-agentziak | Autoenplegurako eta enpresak sortzeko ikastaroak | Ekintzaileak | Ekintzaileentzako ikastaroak. Gai hauek lantzen dira: Negozioa, forma juridikoa; eratzeko legezko izapideak, baimenak, lizentziak, finantziazioa eta laguntzak; lan- eta ingurumen-arriskuak; eta finantziazioa (finantziazio-iturriak eta -motak, eta kobrantzen, ordainketen eta zergen alorreko kudeaketako ohiko tresnak). | Garapen-agentziak |
| Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak | Inguralde (Barakaldoko Udala) | Aurre-ekintzailetzako tailerrak | Ekintzaileak | Ekintzaileen arteko topaketak antolatzea, ideiaren hasiera-fasean (gogoeta), enpresa-proiektua sendotzeko. | Inguralde (Barakaldoko Udala) |
| Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak | Donostiako Sustapena | Ekin + | Ekintzaileak | Profil berriak eta proiektu berritzaileak garatzeko eta azkartzeko programa intentsiboa. Helburua gaitasun handiko ekintzaileei laguntza ematea da, 3 hilabeteko programa intentsibo baten bidez. Programan, hautatutako proiektuek banako tutoretzak, lantegi praktikoak, lanerako eremuak eta proiektu-mintegiak, aholkulari-sare bat eta abar baliatzeko aukera izango dute. | Donostiako Sustapena |
| Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak | | Yuzz programa | Oinarri teknologikoko proiektuak dituzten ekintzaile gazteak (30 urtetik beherakoak) | Teknologiaren inguruko ideia berritzaileak dituzten gazteen sentsibilizaziorako eta gaikuntzarako programa intentsiboa. 3 urteko aldian, hogei gazte inguruk hartu dute parte edizio bakoitzean, 8 hilabetez. | Banesto Fundazioa<br>Donostiako Sustapena |
| Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak | Donostiako Sustapena | Prestakuntza-programa, adituek emandako saioen bidez | Ekintzaileak | Prestakuntza-eredu berria, enpresa-garapenaren 4 arloren (ideiak eta profil ekintzailea, negozio-eredua, enpresen kudeaketa, eta finantziazioa) inguruko saioak ematearen bidez | Donostiako Sustapena |

| Ekintzailetza-prozesuaren faseak | Eragilea | Programa/Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak | Donostiako Sustapena | Pertsona Ekintzaileentzako Zentroa<br><br>Camino kalea, Maria Cristina hotelaren beheko solairua | Ekintzaileak | Eremu fisiko espezializatua, ekintzaileen gaikuntza hobetzeko. Prestakuntza-aretoak, lanerako bulegoak, informaziorako gunea eta beste jarduera osagarri batzuk daude. | Donostiako Sustapena |
| Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak | Donostiako Sustapena | Sektore estrategikoetako negozio-aukerei buruzko sentsibilizazioa eta hedapena | Ekintzaileak | Donostiako Sustapeneko klusterretako zerbitzuek ekintzaileentzat egiteko hurbiltze- eta sentsibilizazio-planak (hitzaldiak, bisitak enpresa-zentroetara, informazioa, etab.). | Donostiako Sustapena |
| Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak | Donostiako Sustapena | Emakume ekintzaileak | Emakume ekintzaileak | Emakume ekintzaileentzako saioak, ekintzailetzarekiko sentsibilizazioa eta lankidetza sustatzeko | Donostiako Sustapena |
| Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak | Donostiako Sustapena | Ekintzailetzarako sentsibilizazio-programa, dibertsitatearen aldetik | Dibertsitate funtzional fisikoa edo sentsoriala duten pertsonak | Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako programa pilotua, sentsibilizatzeko eta jarrera ekintzaileak garatzeko | Elkartu (Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Gipuzkoako Federazio Koordinatzailea) |
| Ideiak eta ekintzailetzarako ekimen berriak | Behargintza Leioa | Ikas-komunitateak | Langabetuak | Ekintzailetzarekiko sentsibilizazio-saioak, laneratzeko aukera hori aurretik aintzat hartu ez duten langabetuentzat | Leioako Behargintza |
| Hazkundea, sendotzea eta transmisioa | Garapen-agentziak | Enpresak sendotzea | Enpresa sortu berriak | Enpresa sortu berrien lehiakortasuna hobetzeko jarduerak | Garapen-agentziak |
| Hazkundea, sendotzea eta transmisioa | Amurrio Bidean | Konekta, nuev@s empresari@s | Enpresa sortu berriak<br>Teknikariak | Alor horretan lan egiten duten erakundeen arteko harremanak sendotzea, enpresa berriei zerbitzu espezializatuagoak eta haien premietara hobeto egokitutakoak eskaintzeko | Amurrio Bidean |
| Hazkundea, sendotzea eta transmisioa | Debegesa | Koopera | Enpresa sortu berriak | Lankidetza-jardunaldiak, sarean lan egiten ikasteko. Ekingune elkartearen sorrera (enpresa sortu berrien elkartea) | Debegesa |
| Hazkundea, sendotzea eta transmisioa | Debegesa/ Uggasa/ Bilbao Ekintza/ Lea Artibai | Mentoringa | Enpresa sortu berriak | Jakintza eta esperientzia duten enpresen laguntza, enpresek haiengandik ikasteko | Debegesa/ Uggasa/ Bilbao Ekintza/ Lea Artibai |
| Hazkundea, sendotzea eta transmisioa | Inguralde | Barakaldo Open | Ekintzaileak – transmisio-prozesuan dauden enpresak | Ekintzaileentzako negozio-aukerak sortzea, honako hauen ondorioz sortuak: negozioa transmititu nahi duten saltokiak edo merkataritza-jarduerarako berreskuratu daitezkeen lokal hutsak. | Inguralde |
| Hazkundea, sendotzea eta transmisioa | Inguralde | Merkataritza- eta zerga-kudeaketa hobetzea | Enpresa sortu berriak | Ikasgelako prestakuntza + banakako aholkularitza enpresa parte-hartzaileei, zerga- eta merkataritza-alorretan. Kudeaketa-planak zehaztu eta ikuskatuko dira. | Inguralde |
| Hazkundea, sendotzea eta transmisioa | Bilbao Ekintza | Conexiones improbables (Nekez gerta daitezkeen loturak) | Enpresak | Enpresen arteko hibridazioa. Elkarrekin jardun ezin dutela uste ohi den enpresa eta sektoreen arteko lankidetza sustatzea eta laguntzea. | Bilbao Ekintza |

| Ekintzailetza-prozesuaren faseak | Eragilea | Programa/Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Hazkundea, sendotzea eta transmisioa | Donostiako Sustapena | Enpresekin: lehiakortasun-ibilbide globala | Proiektu estrategikoak dituzten enpresa sortu berriak | Zerbitzu espezializatua eta pertsonalizatua, proiektu bideragarriak bultzatzeko. Tutoretza eremu hauetan:<br>- Lehiarako diagnostikoak<br>- Finantziazio-zerbitzua<br>- Nazioartekotzea<br>- Berrikuntza<br>- Merkaturatzea | Donostiako Sustapena |
| Hazkundea, sendotzea eta transmisioa | Donostiako Sustapena | Klusterizatutako sektoreekin lotutako enpresak | Enpresak:<br>Ikus-entzunezkoak, digitalak, multimediakoak, sormenaren alorrekoak<br>Energia berriztagarriak, efizientzia energetikoa<br>Teknologia asistiboak<br>Surfa<br>Nekazaritzako elikagaien sektorea | Hiriaren sektore estrategikoekin lotutako enpresetan lehiakortasuna hobetzeko zerbitzu espezializatuak: zaintza teknologikoa, negozio-aukerak, lankidetza-sareak, hibridazio-saioak, enpresa-misioak, buletinak... | Kluster sektorialak |
| Hazkundea, sendotzea eta transmisioa | Donostiako Sustapena | Neurrirako prestakuntza eta enpresen arteko hurbilketa | Enpresa sortu berriak eta enpresa sendotuak | - Finantziazioa<br>- Pitchinga<br>- Finantziazio pribatuko foroak<br>- Nazioartekotzea<br>- Negozioa | Donostiako Sustapena<br>Eragile publikoak (Enisa, Spri, Eusko Jaurlaritza, Cofides, etab.)<br>Teknologia-zentroak: Tecnalia, Biomagune, Nanogune, CEIT, etab.<br>Aholkularitza-zerbitzuak<br>Unibertsitateak (Deustu, EHU, Mondragon) |
| Hazkundea, sendotzea eta transmisioa | Donostiako Sustapena | Ekitaldi bereziak-Sarea | Enpresak: sortu berriak zein sendotutakoak | - Enpresekin<br>- Gaztekin | Donostiako Sustapena<br>Eragile publikoak (Enisa, Spri, Eusko Jaurlaritza, Cofides, etab.)<br>Teknologia-zentroak: Tecnalia, Biomagune, Nanogune, CEIT, etab.<br>Aholkularitza-zerbitzuak |
| Hazkundea, sendotzea eta transmisioa | Donostiako Sustapena | Laguntza ekonomikoak: programa espezializatuak | Enpresak, bai enpresa sortu berriak, bai lehia-hobekuntzarako proiektu jakinen bat duten enpresa tradizionalak | - Talentu berritzailea<br>- Esperientzia<br>- Autonomoak, mikroenpresak, enpresa txikiak eta ertainak, lehiakortasuna hobetzeko<br>- Merkataritza-lokalak | Donostiako Sustapena |
| Ekintzailetzaren kultura eta balioak | Garapen-agentziak | Ekintzailetza-kultura sustatzea | Prestakuntza-zentroak | Ekintzailetza-kulturaren sustapena zentroetan: ideia-lehiaketak, sentsibilizazio-hitzaldiak... | Garapen-agentziak |
| Ekintzailetzaren kultura eta balioak | Garapen-agentziak | Ekintzailetza-kultura sustatzea | Herritarrak | Ekintzailetza-kulturaren sustapena zentroetan: ideia-lehiaketak, sentsibilizazio-hitzaldiak... | Garapen-agentziak |

| Ekintzailetza-prozesuaren faseak | Eragilea | Programa/Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Ekintzailetzaren kultura eta balioak | Debagoieneko Mankomunitatea | Kimu Berri | Gazteak | Enpresa-ekimen berriak sustatzea kirolaren eta denbora librearen sektorean garapen-potentzial handia duten jardueretan. | Debagoieneko Mankomunitatea |
| Ekintzailetzaren kultura eta balioak | Lea Artibaiko Garapen Agentzia/ Getxolan/ Leioako Udala/ Bilbao Ekintza/ Oarsoaldea | Ekinn! | Ekintzaileak | Ekintzailetza-kultura hedatzea eta pertsonak zein proiektuak erakartzea eginez ekiten ikasteko. | Lea Artibaiko Garapen Agentzia/ Getxolan/ Leioako Udala/ Bilbao Ekintza/ Oarsoaldea |
| Ekintzailetzaren kultura eta balioak | Oarsoaldea/ Bilbao Ekintza | TPA, Zuk egin dezakezu! | Pertsonak | Tailerren, hitzaldien eta coaching-saioen programa, pertsonei beren eraldaketa pertsonaleko prozesuan laguntzeko, ingurunearekiko jarrera proaktiboa izate aldera. | Oarsoaldea/ Bilbao Ekintza |
| Ekintzailetzaren kultura eta balioak | Uggasa | Sortzen | Ekintzaileak | Pertsonak mobilizatzeko, lotzeko eta haiei aholku emateko ekintza-multzoa | Uggasa |
| Ekintzailetzaren kultura eta balioak | Meatzaldeko Behargintza<br>Portugaleteko Behargintza<br>Sestaoko Behargintza<br>Santurtziko Behargintza<br>Inguralde | Enpresa-ideien Ezkerraldeko eta Meatzaldeko lehiaketa | Negozio-ideiak dituzten pertsonak | Ezkerraldeko eta Meatzaldeko zenbait agentziak edo behargintzek egiten duten lehiaketa, herritarrek proposatutako enpresa-ideiak saritzeko. | Meatzaldeko Behargintza<br>Portugaleteko Behargintza<br>Sestaoko Behargintza<br>Santurtziko Behargintza<br>Inguralde |
| Ekintzailetzaren kultura eta balioak | Inguralde (Barakaldoko Udala) | IkasInguralde | Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak | Ekintzailetza-kultura sustatzea Barakaldoko ikasleen artean. | Inguralde (Barakaldoko Udala) |
| Ekintzailetzaren kultura eta balioak | Inguralde (Barakaldoko Udala) | Barakaldo Enpresa Berritzailea Saria | Ekintzaileak eta enpresa berritzaileak | Hiriaren enpresa-ehunean berrikuntzaren eta modernizazioaren kultura sendotzea dakarten ekimen berritzaileen garapenerako laguntza eta sustapena. | Inguralde (Barakaldoko Udala) |
| Ekintzailetzaren kultura eta balioak | Egaz Txorierri | Ekin Txori programa | Ikastetxeak eta herritarrak | Ekintzailetza-kulturarekiko sentsibilizazioa ikastetxeetan eta herritarren artean, tailerren eta enpresak sortzeko programen bidez. | Egaz Txorierri |
| Ekintzailetzaren kultura eta balioak | Egaz Txorierri | Ezagutu Aukeratzeko programa | DBH 3 eta 4ko eta Batxilergo 1 eta 2ko ikasleak | Txorierriko zenbait lanbidetara eta enpresatara hurbiltzea, besteren konturako eta norberaren konturako kontratazioaren ikuspegitik. | Egaz Txorierri |
| Ekintzailetzaren kultura eta balioak | UKUE | Urola Kostan EKIN! | Eskualdeko ikastetxeetan matrikulatutako gazteak<br>Ekintzaileak<br>Intraekintzailetzako proiektuak dituzten enpresak<br>Eskualdearen garapen sozioekonomikoari bereziki lagundu dioten pertsona, enpresa eta erakundeak | Ekintzailetza-kultura sustatzea, eta bereziki, ekintzailetza eta intraekintzailetza balioestea eta aitortzea.<br>- Enpresa-ideien lehiaketa.<br>- Ohorezko aipamena eskualdearen garapen sozioekonomikoari bereziki lagundu dioten pertsona, enpresa edo erakundeei. | UKUE |
| Ekintzailetzaren kultura eta balioak | Donostiako Sustapena | Donostia Ekin | Ekintzaileak | Ekintzaileen eta enpresa sortu berrien arteko topaketa, urtean behingoa, sentsibilizazioa, elkar ezagutzea eta lankidetza sustatzeko. Ideia-tailerrak eta esperientzia ekintzaileak, sariak... | Donostiako Sustapena<br>Irakaskuntzako institutuak<br>Lanbide Heziketako Zentroak<br>Unibertsitateak |
| Ekintzailetzaren kultura eta balioak | Leioako Behargintza | Ekin berri | Ekintzaileak | Ekintzaile-komunitatea sortzea udalerriko enpresa-mintegiaren inguruan, proiektuak lankidetzaren bidez sendotzeko eta sustatzeko. | Leioako Behargintza |

| Ekintzailetza-prozesuaren faseak | Eragilea | Programa/Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Intraekintzailetza | Urola Kosta | Elkar-Ekin | Enpresak | Enpresek adierazitako konponbideak eta hobekuntza-proposamenak bultzatzea, eskualdeko enpresen eta gazteen arteko lankidetzaren bidez. | Urola Kosta |
| Intraekintzailetza | Debegesa | Eskualdeko dibertsifikazio-plana | Enpresak | Debabarreneko dibertsifikazio-politika, jarduteko 4 nitxo identifikatuta. | Debegesa |
| Intraekintzailetza | Durangaldeako Behargintza | Lehiakortasun-poloa | Enpresak | Eskualdeko enpresen zerbitzurako ekimena. Prestakuntza-zentroek eta jakintza-zentroek hartzen dute parte, eta tokiko industria-ehuna apurka-apurka eraldatzea du helburu. Horretarako, banakako lehia-hobekuntza, eta industria-dibertsifikaziorako ekimenen garapena zein enpresa-ekimen berrien sustapena baliatuko dira. | Durangaldeako Behargintza |
| Intraekintzailetza | Lea Artibaiko Garapen Agentzia | Health Unit: Espezializazio burutsuaren estrategia Lea Artibain | Enpresak | Eskualdeko balio-proposamena zehazteko eta balio-proposamen horrekiko sektore emergente sinergiko baten hazkundea sustatzeko estrategia diseinatzeko prozesua.<br>Prozesu horren ondorioz, *osasuna* estrategiaren jardun-eremuak zehaztu dira.<br>Horren guztiaren oinarria eskualdeko gaitasunen azterketa sakona izan da. Azterketa dela eta, Health/Healthy (osasuna/osasuntsua) esparruaren aldeko apustuaz gain, sektore tradizionalen lehiakortasuna sustatzeko beste bide batzuk ageri dira, lankidetzaren bidez jorratzekoak. | Lea Artibaiko Garapen Agentzia |
| Intraekintzailetza | Goieki | Lankidetza Sarea- Get Gune<br>Get Berri | Enpresak | Sektore emergenteetara bideratutako dibertsifikazioa. Eskualdea espezializatu nahi den sektore eta azpisektore nagusiak zehaztea eta dauden teknologien analisia egitea, eskualdearen gaitasunak eta merkatuan detektatutako aukerak uztartu ahal izateko. | Goieki |
| Intraekintzailetza | Iraurgi Lantzen/ Uggasa/ UKUE | Enpresa-lankidetzarako proiektua zuraren eta altzarien sektorean | Enpresak | Proiektuaren helburua zuraren eta altzarien sektorean enplegu-tasei eustea da, eta tamaina txikiagoko enpresek bizirautea. Horretarako, elementu objektiboak eta ukigarriak (balio-katearen, ahalmenen eta gaitasunen, merkatu-joeren eta abarren analisia) uztartuko dira, elementu horiek beharrezkoak baitira aukera-arloak eta denen interesekoak zein diren arrazoitzeko eta identifikatzeko, etorkizuneko banakako proiektuen edo lankidetza-proiektuen oinarri izan daitezen. | Iraurgi Lantzen/ Uggasa/ UKUE |
| Intraekintzailetza | UKUE | Urola Kostan Ekin – Enpresa-idea lehiaketa | Intraekintzailetzako proiektuak dituzten enpresak | Ekintzailetza-kultura sustatzea, eta batez ere, ekintzailetza/intraekintzailetza balioestea eta aitortzea (lehiaketaren 3. atala). | UKUE |

| Ekintzailetza-prozesuaren faseak | Eragilea | Programa/Jarduera | Hartzailea | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Intraekintzailetza | UKUE | Sinergiak eta lankidetza nekazaritzako elikagaien sektorean | Nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresak | Nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresek osatutako lankidetza-eremua, dibertsifikaziorako proiektu berriak garatzeko. | UKUE |
| Laguntza-ekosistemaren integrazioa | Garapen-agentziak | Enpresa-zentroak | Enpresa sortu berriak | Lehentasunezko baldintzak dituzten guneak, bertan kokatutako enpresen arteko lankidetza sustatzeko. | Garapen-agentziak |
| Laguntza-ekosistemaren integrazioa | Gasteizko Udala | Ekintzailetzarako bekak | Ekintzaileak | Enpresa-proiektua garatzen laguntzeko bekak | Gasteizko Udala |
| Laguntza-ekosistemaren integrazioa | Donostiako Sustapena | Enpresak sortzeko laguntzak | Ekintzaileak | 8.000 euro arteko laguntzak, sektore estrategikoetan enpresak sortzeko, industria-auzoak eta industrialdeak garatzeko, eta zailtasunak dituzten kolektiboetarako. | Donostiako Sustapena |
| Laguntza-ekosistemaren integrazioa | Oarsoaldea | Herrilab | Pertsonak/proiektuak | Ideiak mobilizatzeko eta pertsonak elkartzeko eremu fisikoa, komunitatearen ongizatea lortze alderako proiektuak sustatzeko. | Oarsoaldea |

## Unibertsitateak

| Eragilea | Programa/Jarduera | Hartzailea | Ekintzailetza-prozesuaren faseak | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Deustuko Unibertsitatea | Ingenio programa | Unibertsitatea | Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea | Nork bere enpresa sortzea edo negozio-lerro berriak bilatzea etorkizunerako lanbide-aukera izan daitezkeela proposatzea.<br>Ideia berritzaileak sortzeko eta martxan jartzeko behar diren ezagutzak eta tresnak eskuratzea.<br>Enpresa arrakastatsuak sortzeko funtsezko elementu bat berrikuntza dela aintzat hartzea.<br>Berrikuntzaren inguruko ikerketa lanbide-aukera bat izan daitekeela aintzat hartzea. | Deustu Fundazioa |
| Deustuko Unibertsitatea | Incubación activa - Ekintzaileak ereiten | Gizartea Unibertsitatea | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza<br>Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea<br>Ideia zehaztea eta proiektua egitea | Ekitea eta/edo epe labur-ertainean enpresa bihur daitezkeen ideiak garatzen hastea. | BFA<br>Deustuko Unibertsitatea |
| Deustuko Unibertsitatea | DeustoBank | Enpresak | Sozietatea martxan jartzea<br>Sozietatea garatzea | DeustoBank sortzearen helburua da unibertsitateko *spin-off*en bidezko jakintza-transferentziari laguntzea, Business Angel-en sare bat eraikiz. | Deustuko Unibertsitatea |
| Deustuko Unibertsitatea | DeustoKabi | Unibertsitatea<br>Ekintzaileak | Sozietatea martxan jartzea | DeustoKabiren helburua da unibertsitatean sortzen diren ekintzaileei eta enpresa-proiektuei laguntzea, unibertsitatean sortutako teknologia, jakintza eta zerbitzuen transferentziarako zein enpresan aplikatzeko prozesua bultzatuz. | Deustu Fundazioa<br>BFA<br>BEAZ |
| Deustuko Unibertsitatea | Deusto Start I eta II | Ekintzaileak | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza<br>Ideia zehaztea eta proiektua egitea | Deusto START I<br>Ekintzaileen lehenbiziko premietarako da, ideia enpresa-proiektu bihurtzen den unerako.<br>Deusto START II<br>Ekintzaileei aholku emateko eta laguntzeko, enpresa jada martxan jarrita izanik, hazi behar dutenean. | Deusto Business School Ekintzailetzaren Euskal Zerbitzua |
| Deustuko Unibertsitatea | Deustu Ekintzaile | Unibertsitatea | Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea | Enpresa-proiektuen edo -ideien lehiaketa. | Deustuko Unibertsitatea |
| Deustuko Unibertsitatea | Trukemarket Fest | Gizartea | Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea | Arropa trukatzeko ekitaldi bat antolatzea. | Deustuko Unibertsitatea |
| Deustuko Unibertsitatea (Donostiako Campusa) | Innovandis (Berrikuntza eta ekintzailetzako berezko titulua) | Unibertsitatea | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza | Berrikuntza eta ekintzailetzako berezko titulua prestakuntza-aukera osagarria da, eta Donostiako campuseko ikasleek egin dezakete, graduko eta gradu bikoitzeko ikasketekin batera, gehigarri bikaina izan baitaiteke haien prestakuntzarako.<br>Titulu horrek aukera ematen dio ikasleari portaera berritzailea eta ekintzailea garatzeko gai izateko. | Innovandis (Deustuko Unibertsitatea)<br>Enpresa pribatuak. |
| BizkaiLab | Ekin-it (Ekintzailetza) | Gizartea Unibertsitatea | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza | Deustuko Unibertsitateko ikasleen ekintzailetza indartzeaz eta unibertsitate-komunitatean portaera ekintzaileak sustatzeaz gain, programak helburu hauek ditu: ideia berritzaileak sortu eta martxan jarri nahi dituzten ekintzaileen oinarrizko zenbait gaitasun sendotzea; nork bere enpresa sortzea edo negozio-lerro berriak bilatzea (intraekintzailetza) etorkizunerako lanbide-aukera izan daitezkeela proposatzea; eta berrikuntzaren inguruko ikerketa lanbide-aukera bat izan daitekeela aintzat hartzea. | BFA<br>Deustuko Unibertsitatea |
| BizkaiLab | Incubación activa - *Spin-off*ak sendotzen | Gizartea Unibertsitatea | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza<br>Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea<br>Ideia zehaztea eta proiektua egitea | Ekitea eta/edo epe labur-ertainean enpresa bihur daitezkeen ideiak garatzen hastea. | BFA<br>Deustuko Unibertsitatea |

| Eragilea | Programa/Jarduera | Hartzailea | Ekintzailetza-prozesuaren faseak | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| BizkaiLab | e-Parkea / Gnoss plataforma | Gizartea<br>Unibertsitatea<br>Enpresak | Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea | Proiektuaren helburu nagusia lankidetza-lanerako plataforma bat sortzea da, Deustuko Unibertsitateko ikertzaileentzat. | BFA<br>Deustuko Unibertsitatea |
| BizkaiLab | Emotional Networks | Gizartea<br>Unibertsitatea<br>Enpresak | Sozietatea martxan jartzea | Esperientziak, emozioak eta elkartasuna biltzeko gizarte-sare bat sortzea. | BFA<br>Deustuko Unibertsitatea |
| BizkaiLab | Ekintzaileak ezagutzen | Gizartea<br>Unibertsitatea<br>Enpresak | Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea | Azterketaren helburua da unibertsitateko ikasleen asmo ekintzaileen ikuspegi orokorra eskaintzea, unibertsitatearen ekintzailetza-ahalmenaren balorazioa egiteko eta haien emaitzak hobetu ditzaketen gomendioak emateko. | BFA<br>Deustuko Unibertsitatea |
| BizkaiLab | Start up Bizkaia | Gizartea<br>Unibertsitatea<br>Enpresak | Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea | Bizkaian garatzeko moduko "ekintzailetza-ekosistema" zehaztea, lurraldeko ekonomia-hazkunderako eta aberastasuna eta enplegua sortzeko faktore garrantzitsua izan dadin. | Deustuko Unibertsitatea<br>BEAZ<br>Tecnalia |
| Mondragon Unibertsitatea | Lidergo ekintzailea eta berrikuntza (gradua) | Unibertsitatea | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza | Lidergo ekintzailea eta berrikuntza (gradua) | |
| Mondragon Unibertsitatea | Ekintzailetzari buruzko ikerkuntza | Unibertsitatea<br>Enpresak | Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea | Berrikuntzari eta ekintzailetzari buruzko ikerketa-taldeak. | |

## Finantza-eragileak:

| Eragilea | Programa/Jarduera | Hartzailea | Ekintzailetza-prozesuaren faseak | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) |
|---|---|---|---|---|
| EAEko ARRISKU-KAPITALEKO KUDEAKETA | Arrisku-kapitala | Enpresak | Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea | EAEn arrisku-kapitaleko jarduera sustatzea eta garatzea. |
| Goteo Euskadi | Crowdfounding | Ekintzaileak<br>Enpresak | Sozietatea martxan jartzea | Goteo crowdfundingerako edo finantziazio kolektiborako (diru-ekarpenak) zein lankidetza distributiborako (zerbitzuak, azpiegiturak, mikroatazak eta beste baliabide batzuk) plataforma bat da, banakoentzako etekinez gain kolektibitaterako onurak dakartzaten proiektuetarako. Hau da, prokomuna, kode irekia eta/edo jakintza librea sustatzen duten proiektuetarako. Sare horretako kide gisa eginkizun bat edo gehiago bete ditzakezu: proiektu bat bultzatzea, finantzatzen laguntzea, edo helburuak lortzen laguntzea. |
| ORZA | Arrisku-kapitala | Enpresak | Sozietatea martxan jartzea<br>Sozietatea garatzea | Zuzenean inbertitzen duen erakundea da, eta enpresetan partaidetzak eskuratuz jarduten du. |
| TALDE | Arrisku-kapitala | Enpresak | Sozietatea martxan jartzea | ETEetarako finantza-baliabideak jartzen ditu, haien garapenean laguntzeko. |
| ICO | ICO-Emprendedores lerroa | Ekintzaileak<br>Enpresak | Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea | Enpresa berrien sorrerarako edo lanbide-jarduera berrietarako laguntza ematea, lehentasunezko kredituen bidez. |
| BBK | Gazte ekintzaileak | Gizarteko segmentu espezifikoak (gazteak) | Ideia zehaztea eta proiektua egitea<br>Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea | Negozio-ideia bat edo Bizkaian enpresa bat sortzeko proiektua duten ekintzaileei laguntzen diegu. Lehentasuna ematen diegu gazteei, kolektibo horrek arazo bereziak baititu kreditua eta kalitatezko enplegua eskuratzeko. Gure helburua autoenplegua eta enpresen sorrera sustatzea da, eta horrela, gazteentzako enplegua sortzen laguntzea. |
| BBK | BBK Enpresa-ideien Lehiaketa | Lanbide Heziketako ikasleak<br>Unibertsitatea | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza | BBK Enpresa-ideien 2012ko Lehiaketaren helburu nagusia da Bizkaiko unibertsitateko eta lanbide-heziketako ikasleen ekintzailetza sustatzea da, eta ekintzaile gazteen aldeko apustua egitea, lanbiderako prestakuntza jasotzen duten zentroen aldetik, bai BBKren aldetik, haien lanbide-etorkizunerako zubi izan daitekeena. |
| BBVA | ICO-Emprendedores lerroa | Ekintzaileak<br>Enpresak | Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea | Enpresa berrien sorrerarako edo lanbide-jarduera berrietarako laguntza ematea, lehentasunezko kredituen bidez. |
| BBVA | Premio Emprendedores: OpenTalent BBVA 2013 lehiaketa | Ekintzaileak | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza | Bosgarren urtez segidan, BBVAk BBVA Open Talent lehiaketa antolatu du, ekintzaile berritzaileentzat. Lehiaketaren xedea da teknologiarekin eta banku-sektorearekin lotutako bi urtetik beherako proiektu onenak aurkitu eta saritzea. 100.000 euro arteko saria lor dezakete irabazleek. |
| La Caixa | Emprendimiento Social 2013 programa | Ekintzaileak<br>Enpresak | Ideia zehaztea eta proiektua egitea<br>Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea | La Caixaren Emprendimiento Social programaren helburua da hazi-fasean dauden ekintzaileei eta enpresa sozialei laguntzea. Enpresa sozial sortu berrientzako, enpresa sozial gazteentzako eta negozio-lerro berriak dituzten enpresa sozialentzako programa da. |
| La Caixa | Premios Emprendedor XXI sariak | Ekintzaileak | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza | *Emprendes* kategorian, negozio-plan sinesgarria duten hautagaiak saritzen dira. Hautagaiok beren konpromisoa eta gaitasuna erakutsi beharko dute, enpresaren lehen etapetan lorpen garrantzitsuak lortuz. |
| La Caixa | Ekintzaileentzako mikrokredituak | Ekintzaileak<br>Enpresak | Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea<br>Sozietatea garatzea | Enpresentzako eta ekintzaileentzako finantziazioa, hasieratik negozioa hedatzera arteko aldian. |
| Banesto Fundazioa | YUZZ programa | Ekintzaileak | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza<br>Ideia zehaztea eta proiektua egitea | Programak irauten duen 7 hilabeteetarako, saritu bakoitzak lan presentziala eta telematikoa egiteko konpromisoa hartzen du, ideia merkaturako garatzeko. Gainera, herrialdean hautatutakoen arteko 3 onenek diru-sari bat jasoko dute. |

## Beste eragile batzuk:

| Eragilea | Programa/Jarduera | Hartzailea | Ekintzailetza-prozesuaren faseak | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Araba Garapen Agentzia | Lurzoruaren eta industria-pabiloien eskaria kudeatzea | Enpresak | Sozietatea martxan jartzea | Industria-lurzoruaren sustapena. Agentziaren jarduera nagusia industrialdeak sustatzea da, Araban. | Arabako Foru Aldundia |
| Azpiegiturak Bizkaia | Ekintzailetza-aretoak, bulegoak eta industria-lurzorua | Ekintzaileak<br>Enpresak | Sozietatea martxan jartzea | Prestatutako esparruak eskaintzen ditugu, doako lagapeneko erregimenean, ekintzailetza-proiektuak garatzeko. | BFA |
| BARRIXE | Emprendetur I+G+b 2013 programa | Ekintzaileak | Ideia zehaztea eta proiektua egitea<br>Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea | Laguntzak jaso ditzakete turismoaren sektoreko jakintza zientifiko-teknologikoko esparruko proiektuek eta negozio-ereduek. | Industria, Energia eta Turismo Ministerioa<br>BFA<br>Bilboko Merkataritza Ganbera |
| BARRIXE | Emprendetur Gazte Ekintzaileak 2013 programa | Ekintzaileak | Ideia zehaztea eta proiektua egitea<br>Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea | Turismoaren sektoreko jakintza zientifiko-teknologikoko esparruko proiektu eta negozio-ereduetarako programa da. | Industria, Energia eta Turismo Ministerioa<br>BFA<br>Bilboko Merkataritza Ganbera |
| BARRIXE | Business angel-en sareak sustatzeko diru-laguntzak | Ekintzaileak | Sozietatea martxan jartzea | Business angel-en sare berriak sortzea, eta sare horiek zerbitzuak emateko egiten dituzten jardueren garapena bultzatzea, berrikuntza-proiektuak garatzeko kapitala behar duten ETEen eta proiektu horiek finantzatu nahi lituzketen gertutasuneko inbertitzaile edo business angel-en artean egindako bitartekaritza-ekintzak profesionalizatu eta erregularizatzearen alde eginez. | Industria, Energia eta Turismo Ministerioa<br>BFA<br>Bilboko Merkataritza Ganbera |
| GILSA | Jundiz | Enpresak | Sozietatea martxan jartzea | Gasteizen ekimena eta industria-inbertsioa suspertu eta sustatzeko helburua du, lurzoru urbanizatuko lursailen salmentaren bidez. | SPRILUR<br>Gasteizko Udala |
| Gislur | Lurzoruaren eta industria-pabiloien eskariaren kudeaketa Bizkaian (online plataforma) | Enpresak | Sozietatea martxan jartzea | Bizkaian lurzoru industriala, merkataritza-eremuak eta zerbitzuak bilatzeko plataforma. Industrialdeetan edo enpresa-parkeetan kokatutako enpresa guztien informazio osoa eta geolokalizatua dauka. | BFA<br>Bilboko Ganbera |
| Bizkaiko Teknologia Parkea | Elkartegi Teknologikoa | Enpresak | Sozietatea garatzea | Enpresa anitzeko eraikina, garapen fasean dauden teknologia alorreko enpresentzat bereziki diseinatua. Ekintzaileentzako areto bat ere badu. | |
| Bizkaiko Teknologia Parkea | Nido eraikina | Enpresak | Sozietatea garatzea | Enpresa berritzaileak beren bizitzako lehenengo hiru urteetan inkubatzeko eta garatzeko egindako eraikina. | |
| Bizkaiko Teknologia Parkea | Izartek | Ekintzaileak | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza<br>Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea<br>Ideia zehaztea eta proiektua egitea<br>Sozietatea eratzea<br>Sozietatea martxan jartzea | Enpresak sortzeko eta garatzeko laguntza integrala. | |

| Eragilea | Programa/Jarduera | Hartzailea | Ekintzailetza-prozesuaren faseak | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea | Ekintzailetza | Enpresak | Sozietatea martxan jartzea<br>Sozietatea garatzea | Zientzia eta Teknologia Parkeak oinarri teknologikoko enpresa berrien sorrera bultzatzen du. Proiektuek kokaleku berezia dute, bai eta kudeaketa- eta teknologia-tutoretza ere. Halaber, honako hauek eskuratzeko aukera dute: hazi-kapitala, lehentasunezko finantziazioa (zenbait eragileren lankidetzari esker) eta erakundeen laguntzak. | |
| Arabako Teknologia Parkea | Ekintzailetza | Enpresak | Sozietatea martxan jartzea<br>Sozietatea garatzea | Arabako Teknologia Parkeak oinarri teknologikoko enpresa berrien sorrera bultzatzen du, CEIA Arabako Eraberrikuntza Industrialdeari esker. Hori dela eta, proiektuek kokaleku berezia dute, bai eta kudeaketa- eta teknologia-tutoretza ere. Halaber, honako hauek eskuratzeko aukera dute: hazi-kapitala, lehentasunezko finantziazioa (zenbait eragileren lankidetzari esker) eta erakundeen laguntzak. | |
| Innobasque | Gipuzkoa Berritzen - Barne-ekintzailetza ETEetan | Enpresak/Intraekintzailetza | Sozietatea martxan jartzea<br>Sozietatea garatzea | Enpresei intraekintzailetza epe luzeko hazkunderako funtsezko iturritzat harraraztea. Horretarako, zenbait gauza egin behar dira; esaterako, kudeaketa-ereduak hobetzea eta eraginkorrago bihurtzea, negozio aukerak identifikatzeko eta aprobetxatzeko, oso azkar aldatzen den inguru honetan. | Gipuzkoa Berritzen |
| Innobasque | Gipuzkoa Berritzen - Azpiegituren mapa | Gizartea | Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea | Lurraldeko eragile eta azpiegitura espezializatuen mapa diseinatzea. Mapak erraz eguneratzeko eta interesdunak zein orientatzaileak erraz erabiltzeko modukoa izan beharko du, eta horrez gain, azpiegitura espezializatuak eta berritzaileak dituzten erakundeentzako katalogoa gisa ere balio behar du. | GFA<br>Debegesa<br>Gipuzkoa Berritzen |
| Innobasque | Ekintzailetza soziala | Gizartea | Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea | Enpresa sozial berritzaileak sortzea errazten duen ingurunea sortzea EAEn | |
| Innobasque | Enpresaren garapena | Enpresak | Enpresaren garapena | Enpresen azeleratzailea izeneko prozesuaren bidez, Innobasquek zure enpresaren hazkundea bultzatzen lagunduko dizu, gure bazkide eta adituen sarea baliatuta. | |
| Innobasque | Southern Europe´s Cleantech Hub | Gizartea<br>Ekintzaileak<br>Enpresak | Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea<br>Sozietatea martxan jartzea | Nazioarteko merkatuetan konponbide teknologikoak merkaturatzeko moduko proiektu berritzaile lehiakorren sorrera eta garapena sustatzea.<br>Enpresa, ETE eta ekintzaile berritzaileek finantziazioa eta inbertitzaileak (bertakoak eta nazioartekoak) lortzeko modu berritzaileak sortzea.<br>Cleantech Forum Europe teknologia garbien alorreko ekintzaileekin ekintzak egiteko foroa da. Hona hemen foro horretan egiten diren ekitaldi batzuk:<br>Bilbao Marine Energy Week, Cleantech Now! (GreenINN y Cleantech Showcase).<br>Ekimen horri esker sortu dira, adibidez, proiektu hauek: *Wattio, Likuid, @narum* eta *Luix.* | Ekimen pribatuari buruzko adituen batzordea |
| Innobasque | Cleantech Now! (Southern Europe´s Cleantech Hub) | Ekintzaileak | Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea<br>Sozietatea martxan jartzea | Cleantech ardatz duen berrikuntza sustatzea, ikasle gazteen hazkunderako eta enplegurako aukera-eremua izan dadin. Horretarako, ikasleei aukera emango zaie beren ideiak lotzeko beren enpresa-proiektuari lagun diezaiokeen enpresa-, teknologia-, erakunde- eta inbertsio-ehunarekin. | UPV-EHU<br>Deustuko Unibertsitatea<br>Mondragon Unibertsitatea:<br>Tecnun<br>Tknika<br>Eusko Jaurlaritza<br>Foru-aldundiak |

| Eragilea | Programa/Jarduera | Hartzailea | Ekintzailetza-prozesuaren faseak | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| Bizkaia Talent | Harrera, bitartekaritza, orientabideak eta laguntzak | Ekintzaileak | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza<br>Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea | Kualifikazio handiko pertsonak erakarri, bertan geldi daitezen lortu, eta lotzea. | |
| ADEGI | Adegiren Ekintzaileen Foroa | Ekintzaileak | Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea | Foroa lankidetza-proiektu erakargarria da, eta hor ADEGIra elkartutako ekintzaileek konpromisoa hartu dute beren proiektuak eta negozio-ideiak garatzeko esperientzia eta jakintza erabilgarriak aldizka konpartitzeko. Jakin badakite gerta litekeela bakoitza etapa desberdin batean egotea, eta horregatik elkarren esperientziak baliatu nahi dituzte, konpartitzeko, haiei balioa emateko, aberastasun-iturri izan daitezen. | Eusko Jaurlaritza<br>Euskadi Emprende |
| ADEGI | Gaitasunen azterketa | Ekintzaileak | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza<br>Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea | Helburua pertsona horien prestakuntza eta gaitasunak optimizatzea da, eta haien enpresen iraunkortasunerako laguntza ematea, bai eta, era horretan, EAEko enpresa-ehunaren iraunkortasunari laguntzea ere. | |
| ADEGI | BAN EUSKADI (Business Angels) | Ekintzaileak<br>Enpresak | Sozietatea martxan jartzea | BAN EUSKADIren helburu nagusia elkartzeko gune bat eta konfiantza- eta konfidentzialtasun-esparru bat sortzea da, business angel-ak (inbertitzaile partikularrak) eta enpresa-proiektuen ekintzaile edo sustatzaileak harremanetan jartzeko. | |
| CEBEK | CEBEK Emprende (Foroa) | Ekintzaileak | Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea | CEBEK Emprende ekimenak Bizkaiko enpresa sortu berrien sendotasunaren eta hazkundearen alde egin nahi du, eta horretako, gune bat eskaini nahi die, esperientziak aldizka konpartitzeko eta jakintza eskura izateko (online nahiz offline). Halaber, CEBEKera elkartutako beste edozein enpresak eskura ditzakeen zerbitzu, informazio, prestakuntza-baliabide edo aholkularitza berberak eskaintzen zaizkie enpresa sortu berriei, leihatila bakar baten bidez. | Euskadi Emprende |
| CEBEK | Gaitasunen azterketa | Ekintzaileak | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza<br>Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea | Helburua pertsona horien prestakuntza eta gaitasunak optimizatzea da, eta haien enpresen iraunkortasunerako laguntza ematea, bai eta, era horretan, EAEko enpresa-ehunaren iraunkortasunari laguntzea ere. | |
| CEBEK | BAN EUSKADI (Business Angels) | Ekintzaileak<br>Enpresak | Sozietatea martxan jartzea | BAN EUSKADIren helburu nagusia elkartzeko gune bat eta konfiantza- eta konfidentzialtasun-esparru bat sortzea da, business angel-ak (inbertitzaile partikularrak) eta enpresa-proiektuen ekintzaile edo sustatzaileak harremanetan jartzeko. | |
| SEA | Gaitasunen azterketa | Ekintzaileak | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza<br>Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea | SEAren helburua pertsona horien prestakuntza eta gaitasunak optimizatzea da, eta haien enpresen iraunkortasunerako laguntza ematea, bai eta, era horretan, EAEko enpresa-ehunaren iraunkortasunari laguntzea ere. | |
| SEA | BAN EUSKADI (Business Angels) | Ekintzaileak<br>Enpresak | Sozietatea martxan jartzea | BAN EUSKADIren helburu nagusia elkartzeko gune bat eta konfiantza- eta konfidentzialtasun-esparru bat sortzea da, business angel-ak (inbertitzaile partikularrak) eta enpresa-proiektuen ekintzaile edo sustatzaileak harremanetan jartzeko. | |

| Eragilea | Programa/Jarduera | Hartzailea | Ekintzailetza-prozesuaren faseak | Programaren xehetasunak (helburuak eta ekintzak) | Eragile parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| SEA | Enpresentzako laguntzak eta diru-laguntzak | Enpresak | Sozietatea martxan jartzea<br>Enpresaren garapena | Administrazioek enpresa-jarduera sustatzeko ematen dituzten laguntza eta diru-laguntza guztien berri ematen die SEA Arabako Enpresaburuen Elkarteak enpresa elkartuei, zenbait dokumentu-euskarritan. | |
| Novia Salcedo Fundazioa | Bilbao, Gizarte Ekintzailetza Harrobia | Ekintzaileak<br>Enpresak | Ekintzailetza eta enpresa-prestakuntza<br>Ideia-bilaketa eta ekintzailetza sustatzea<br>Ideia zehaztea eta proiektua egitea | Adituen, enpresen eta ekintzaileen arteko lankidetzarako gunea da, jarduera ekonomiko bilakatuko diren aukerak aurkitzeko xedez. Funtsean, taldean ekiteko ekintzari balioa ematea da helburua. | Bilboko Udala<br>APTES<br>Ihobe<br>InnovaSalud<br>Adecco Fundazioa<br>Euskaltel |

# II. ERANSKINA

## 2014ko apirilaren 15ean Eusko Legebiltzarrean Jarduera Ekintzaileari Laguntzeko Erakunde arteko Planari buruz izandako Debatean onartutako ebazpen-proposamenak

2014ko apirilaren 15ean Eusko Legebiltzarrean Jarduera Ekintzaileari Laguntzeko Erakunde arteko Planari buruz izandako Debatean onartutako ebazpen-proposamenak.

1. LANKIDETZA PUBLIKO/PRIBATUKO ESPARRUA EZARTZEA OINARRI TEKNOLOGIKOKO ETA GARATZEKO NAHIZ NAZIOARTEKOTZEKO POTENTZIAL HANDIKO ENPRESAK GARATZEKO

Oinarri teknologikoko enpresa berrien (OTEB), hazteko potentzial handia duten eta nazioartekotzeko aukerak dituzten start up enpresen eta beste enpresa, unibertsitate edo zentro teknologiko batzuetan sortutako spin off enpresen bitartez garatutako ekintzailetzari dagokionez, laguntza publikoko esparru propio, berezia eta desberdina antolatu beharko litzateke hainbat mailatan (arauen eta antolamenduaren mailan, esaterako); era berean, inkubazio-azpiegiturak eta finantza-egitura eta finantzaketako tresna berriak garatzeko esparrua antolatu beharko litzateke. Finantzaketa hori hainbat alderdirekin lotuta dago: emaitzekin eta bere garapenaren maila jakin batetik abiatuta finantza pribatua lortzearekin eta lankidetza publiko/pribatuko garapen-esparruari laguntzearekin, oinarri teknologikoko eta garatzeko nahiz nazioartekotzeko potentzial handia duten enpresa mota hori garatzeko.

Horregatik guztiagatik, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio oinarri teknologikoko eta garatzeko nahiz nazioartekotzeko potentzial handia duten enpresa berrientzako lankidetza publiko/pribatuko esparru bat defini dezala. Enpresa berri horiek honako hauek izan daitezke: OTEBak, hazteko potentzial handia duten eta nazioartekotzeko aukerak dituzten start up enpresak eta beste enpresa, unibertsitate edo zentro teknologiko batzuetan sortutako spin off enpresak, eta abar. (ESren 1)

2. EKINTZAILETZAKO EUSKAL SISTEMAKO BALIABIDEAK ANTOLATZEARI LEHENTASUNA EMATEA

Ekintzailetzako euskal sistemak modu eraginkorrean funtzionatzeko, funtsezkoa da sistema horri eragiten dion aktualitate osoari (berriak, ekitaldiak, laguntzak) eusteko sistema finkatu bat izatea.

Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrari eskatu dio ekintzailetzarako laguntzen gordetegi bat egin dezala, Euskadiko, Espainiako eta Europako gordetegia, Euskadin antolatzen diren Jardunaldien eta emandako intereseko ikastaroen aipamena ez ezik, Espainiako eta Europako jardunaldi eta ikastaro interesgarrienen identifikazioa ere biltzen dituena. (ESren 2)

3. EKINTZAILETZAKO AGENTE PUBLIKO ETA PRIBATUENTZAKO PROGRAMA BAT SORTZEA JARDUERA HORI SUSTATZEKO

Ekintzailetza sustatzeko, komenigarria da laguntza-programa baten bitartez bultzatzea jarduera horrekin lotutako agenteek bilerak, jardunaldiak eta lantegiak —ekintzaileen eta ikasleen, langabeen eta inbertitzaileen kolektiboen eta abarren arteko elkarrekintza ahalbidetuko dutenak— garatzea. Era berean, komenigarria da, alde batetik, ekintzailetza-inguruneak sortzea, eta ingurune horietan ekintzaileek kezkak partekatzea, beren intereseko eta beren sektore bereko pertsonekin harremanetan jartzea, eta, bestetik, ekintzailetzako trebetasunen alorreko prestakuntzako eta trebakuntzako ekintzak garatzen laguntzea. Halaber, negozioak garatzeko erabilgarriak diren tresnak ematea ekintzaileei. (ESren 4)

Horregatik, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio ekintzailetzako agente publiko eta pribatuei bideratutako laguntza-programa bat sor dezala, jarduera hori sustatzeko.

4. KULTURA EKINTZAILEA ETA GAZTEEN EKINTZAILETZA BULTZATZEA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio kultura ekintzailea eta gazteen ekintzailetza bultza dezala, modu positiboan diskriminatuz enplegu-sorgune berriak —kultura- eta sorkuntza-industriekin, ingurumenarekin zerikusia duten enpresekin (green jobak), arreta soziosanitarioarekin (white jobak) eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiekin (blue jobak) lotuta daudenak— (ESren 8)

5. LEHEN SEKTOREKO JARDUERA EKINTZAILEARI LAGUNTZEA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio lehen sektoreko jarduera ekintzaileari lagun diezaiola; horretarako, ekintza-plan bat ezarri beharko du espezifikoki produkzio ekologikorako; era berean, laguntza-linea jakin batzuk ezarri beharko ditu sektore ekonomiko honetan jarduten duten gazte eta emakumeentzat. (ESren 9)

6. MERKATARITZA TXIKIARI LAGUNTZEA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio merkataritza txikiari lagun diezaiola euskal txikizkako merkataritza suspertzeko planen bitartez; era berean, eskatu dio merkataritza txikiaren berrikuntza teknologikoa ahalbidetzea. (ESren 11)

7. AUKERAN OINARRITUTAKO EKINTZAILETZA ETA PREMIAN OINARRITUTAKOA ARGI ETA GARBI BEREIZTEA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio Plan honetan argi eta garbi bereiz dezala EAEko egungo jarduera ekintzailearen azterketa aukeran oinarritutako ekintza berritzailearen egoeraren azterketa/diagnostikoaren eta premian oinarritutako ekintzailetza inklusiboaren egoeraren azterketa/diagnostikoaren artean. Azterketa horretan, bi ekintzailetza mota horietan jarduten duten baliabide materialen eta giza baliabideen kontabilizazioa ez ezik, sektore publikoak eta pribatuak bien sustapenean izandako parte-hartze kuantifikatua ere bildu beharko da. (ESren 13)

8. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio beharrezkoak diren ekintzak ezar ditzala, Legean aurreikusitako ekintzaileei laguntzeko leihatila bakarra errealitate bihur dadin Plana amaitu aurretik. (EPren 1)

9. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio Legean aurreikusitako laguntza-linea lor dezala, langabeziagatiko prestazioaren kapitalizazio osoa sustatzeko. (EPren 2)

10. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio mikrokreditu-linea bat ezar dezala eta hazi-kapitaleko funtsa sor dezala, jarduera ekintzailearen finantzaketa egokia bermatuko dutenak. (EPren 4)

11. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio ekonomikoki horni ditzala planean aurreikusitako ekintzak, 2014rako aurreikusitako finantzaketatik hasita. (EPren 5)

12. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio Jarduera Ekintzaileari Laguntzeko Erakunde arteko Planak errentagarritasun soziala sustatzen duten jarduera ekonomikoak bultza ditzala, Euskal Herriko eredu sozioekonomikoa aldatzeko. (EH Bilduren 1)

13. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio Jarduera Ekintzaileari Laguntzeko Erakunde arteko Planak elkarrekin garatu ditzala jarduera ekintzailearen zikloko fase desberdinak, jarduera ekintzailea benetan eraginkorra izateko. (EH Bilduren 2)

14. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio Jarduera Ekintzaileari Laguntzeko Erakunde arteko Planaren inpaktu-adierazleetan bil dezala ekimen berriei dagokienez, ekonomia sozialean oinarritutako ideien ehunekoa, planaren benetako helburuari laguntzeko. (EH Bilduren 4)

15. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio Jarduera Ekintzaileari Laguntzeko Erakunde arteko Planaren inpaktu-adierazleetan bil ditzala, hazkunde-faseari dagokionez, enpresen arteko lankidetza-dinamikak, enpresa berriek elkar osatzeko eta lankidetza sustatzeko. (EH Bilduren 6)

16. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio Jarduera Ekintzaileari Laguntzeko Erakunde arteko Planaren garapenean, lurralde-adimenari jarraiki, planak kontuan har ditzala udalerri bakoitzeko indarrak, jarduera ekonomikoak eskualde-ikuspegiarekin lantzeko eta sustatzeko. (EH Bilduren 7)

17. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak eta Sustapen ekonomikoko hiru ahaldunek sinatutako Euskal Ekintzailetza Sistema Garatzeko Lankidetzako Esparru Akordioaren babesean ez ezik, ekonomia eta enplegua suspertzeko EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) alderdien arteko akordioaren (akordio horretan ekintzailetzaren berariazko bultzada biltzen da) arabera ere, lagun dezala jarduera ekintzaileari laguntzeko erakunde arteko plana garatzen. (EA-NVren 1)

18. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio jarduera ekintzaileari laguntzeko erakunde arteko plana susta dezala, plan horretan ezarritako helburuak betetzeko, Euskadin ekintzailetza aldaketa ekonomiko eta sozialaren benetako palanka bihur dadin lagunduz. (EA-NVren 2)

19. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio plan honen bitartez eta inplikatutako erakunde eta agente guztien konpromisoarekin susta dezala ekintzailearen ibilbidea ahalik eta gehien erraztea ideia sortzen denetik hasita enpresa-proiektua gauzatu eta finkatu arte. (EA-NVren 3)

20. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio Eusko Legebiltzarrean aurkeztu ostean, hura behar bezala garatzeko beharrezkoak diren lan-mekanismoak eta-organoak abiaraz ditzala. (EA-NVren 4)



expertos
Sistema
nivel
consolidación
sistema
intraemprendimiento
capital
Personas
emprendizaje
cada
mercado
políticas
negocio
creación
colaboración
específicos
empresa
Business
cultura
Vasco
Social
plazo
empresariales
Desarrollo
mejora
conocimiento
mayor
Departamento
proyecto
crecimiento
potencial
necesidad
Promoción
Gipuzkoa
objetivos
través
emprendedor
ecosistema
CAPV
jóvenes
social
competitividad
Dirección
hacia
proyectos
emprendedora
ideas
puesta
idea
objetivo
media
procesos
euros
acceso
así
mediante
fomento
SPRI
emprendedoras
nuevas
personas
DEC
agentes
diferentes
conjunto
medio
y/o
Centro
persona
programa
vasco
últimos
DFA
Políticas
Empresas
Plan
DFB
emprendimiento
Infraestructuras
TEA
emprender
valores
base
Universidad
apoyo
Espíritu
educación
Formación
empleo
Económica
empresas
grado
desarrollo
oportunidades
general
tejido
proceso
programas
Bizkaia
acciones
Bilbao
iniciativas
DFG
económico
Programa
GEM
espíritu
marcha
formación
Rastreo
empresarial
Angels
infraestructuras
elaboración
actividades
Empleo
Viceconsejería
Apoyo
innovación
niveles
participantes
Deusto
emprendedores
iniciativa
Sociedad
Constitución
Innovación
Emprendimiento
tecnológica
innovadoras
oportunidad
Despegue
financiación
sociedad
económica
soporte
años
actividad
sector
Álava
nuevos
población
Profesional
etapas
negocios
etc
servicios
entorno
Gobierno
Emprendedora